

**EMAKUMEA:**

***SEXU ALA GENEROA?***

**UEUren Filosofia Saila**

---

**PRINTZAK SAILA 7**

© Jexux Arrizabalaga, Arantxa Crabonell (bil.)  
© UEUren Filosofia Saila  
General Concha 25, 6. 48010 BILBO

I.S.B.N.; 86967-52-X  
Lege-gordailua: BI-1490-93

Inprimategia: BOAN, S.A.  
Aita Larramendi 2, 48012 BILBO  
Azalaren diseinua: Julio Pardo

## **LORE BANA**

Lore asko moztuarren ez dute udaberria geldituko!

Grezian izan zen emakumea gizonaren meneko eta esklabu izan zeneko garaia. Orduan ernetu ziren kultur erroek garatu diren kultur-erak matxismoa txalotu dute bi mila urtetan barna: oraino dirauen mundu ikuskera oinperatzailea.

Hori jakin eta ere utopian sinistu eta utopia maitatzen dakiten emakumeak, aberkide hauek, ez dira mutu eta meneko geratzen eraso mingarrien aurrean. Badakitelako, besteak beste, zein eder den askatasuna. Rosak bezala.

1992ko neguaren hasieran gertatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean, Zorroagan, Psikologia disziplinako idazkariak golpez ebaki zion ahogaina Rosa idazkariari. Eta bere ezta isilik geratu. Ezta zuzenena egungo justizia, hori gauza jakina da, hala eta guztiz ere Donostiako entzutegiak matxistatzat, autoritariotzat eta biolentziazko ekintzatzat jo zuen Andres psikologi irakaslearen jokaera.

Rosa eta bera bezalako diren emakumei muxu bat, lore bana.

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA .....</b>	<b>7</b>
<b>EMAKUMEA GREZIAR PENTSAMENDUAN .....</b>	<b>11</b>
<i>Arantxa Carbonell, Leonor de la Torre</i>	
<b>SEXISMOA SINBOLO ETA ARKETIPOETAN .....</b>	<b>25</b>
<i>Anuntxi Arana</i>	
<b>GENERO ETA ZIENTZIA .....</b>	<b>49</b>
<i>Arantza Urkaregi - I. Gomez</i>	
<b>EMAKUMEA ETA EUSKARA .....</b>	<b>69</b>
<i>Miren Azkarate</i>	
<b>EMETASUNA LURRALDE DESBERDINETAN .....</b>	<b>79</b>
<i>Itziar Arruti</i>	
<b>EMAKUMEA ETA TORTURA .....</b>	<b>87</b>
<i>Itsaso Idoiaga</i>	
<b>COME HOME FOREVER ROXALI! .....</b>	<b>91</b>
<i>Itxaro Borda</i>	
<b>ZINEA ETA EMAKUMEA .....</b>	<b>99</b>
<i>Begoña del Teso</i>	

# SARRERA

Berdintasuna eta independentzia lortu behar dituelaren gaur egungo emakumeen kontzientzia, inoiz izan ez den bezalakoa da. Emakumeak nor den pentsatzen du eta hori bakarrik aurkitzen denean frogatzen du, batez ere. Jakina, segurtasun hori independentzia ekonomikoak ematen dio. Azken urte hauetan gizonezkoek, emakumeekin erkatuz askoz ere gutxiago aurreratu dute. Matxismoak jarraitzen du eta legeak funtsean ez dira aldatu. Ekonomiak, politikak, hezkuntzak, zientziak etabarrek gizonen eskuetan jarraitzen dute.

Feminismoa ez dago modan, baina, emakumearen burruka ez da moda kontua. 70etako hamarkadan emakumearen burrukak ikusten ez badira ere horrek ez du esan nahi zintzilik dauden errebindikazioak desagertu direnik. Eskakizun horiek hor daude eta 70etako hamarkadan burruka egin zuten emakume gehientsuenek badirudi hor dirautela.

Feminismoa eta feminitatea kontrajarriak direla iruditu arren ez da horrela. Ez daukate kontrajarrita egon beharrik. Feminitatea gizonezkoek sortu duten emakumearen irudi konkretua isladatzen duen kontzeptua dela ematen du; keinuak, itxura, irudia, izateko era desberdina adierazi nahi dira hitz hori aipatzen denean, gizonak jarritako emakumearen baitako betiereko baloreak bailiren. Ordea, ideia horrek ez dauka feminismoaren ideiarekin kontrajarriarik egon beharrik. Bata ez da bestearen "anti" edo aurkako.

Munduari begira maiz pentsa dezakegu, esate baterako Hego Ameriketara begirada bat bota ondoren, emakumeen artean badagoela nolabaiteko elkartasuna emakume izate horrek eragindakoa; hala ere, ez da erraza gertakari hori behar den bezala zehazten. Gure artean alderantzizko jarrerak ikusten ohituak baikara, alegia, emakume batek bere burrukari esker estatus altuagoa erdietsi badu, bere emakume nortasunean, bere alboko emakumea izango da

sarritan kritikatzan hasiko zaiona, alegia, azken finean matxismoaren defentsan ereriko dena. Beraz, zoritxarrez, emakumeen arteko solidaritatea urritasunean mantentzen dela esan behar.

Zorionez, gaur egun, emakumea kulturaren munduan berari dagokion tokia lortzen ari da. Egia da emakumearen presentzia kulturaren munduan gero eta nabarmenagoa eta sendoagoa dela; alabaina, egia da, baita ere, mundu horretan sartzeko, beste zenbait esparrutan bezala, eta gero eta gorago dauden mailak lortzeko gizonaek egin behar dituen ahaleginak bikoiztu egiten zaizkiola emakumeari. Ikasketa zenbait aurrera eraman ahal izateko edota lantokiren bat lortzeko emakumeak gizonaek dituen meritoak bikoizten ez baditu baztertuta geldituko da. Baieztapen hau ez da kasu guztietan gertatuko, baina, hori horrela dela ziurta dezaketenak bat baino gehiago dira.

Lanpostuak lortzeko orduan, Europako zenbait herritan emakumearen diskriminazioaren aurkako legeak ezarri dituzte, hots, lanpostuak eskaintzerakoan sexu-diskriminazioak egitea legez zigortua da. Hala eta guztiz ere lan-munduko errealitatea berdintasuna lortzetik urruti dago. Hor daude lan-munduan, lanean zein langabezia diskriminazioak jarraitzen duela adierazten duten datuak portzentatetan emanda.

Indarrean dugun legedia, oraindik, bi sexuen arteko berdintasuna adieraztetik urruti dago. Hau bistakoa da eta egunerokotasunean begiratu besterik ez dugu egoera hori hautemateko. Agian, aipagarriena izateaz gain gogaikarriena ere izango delako hor dugu bortxatua izan den emakumeak salaketa egin ondoren parean tokatu zaion epailearen lehenengo galderak "Nola zindoazen jantzita", "Zeuk horretarako biderik eman al diozu?", "Probokatzeko motiborik eman al diozu?" eta antzeko galderak jasan beharra eta hori guztia gutxi balitz eta oraindik gehiago umilatzeko haziaren froga egingo diote.

Egunero egunkarietan gizonaek emakumeei egiten dizkieten torturak, jipoiak, bortxaketak, hilketak irakurtzen ditugu. Badirudi munduaren funtzionamenduak horrela izan behar duela; hainbestearino gaude ohituta non ez baitigu zirrarak eragiten.

Gure mundu txiki honetara begiratzen badugu aipatzeke utzi ezin dugun konstatazio bat egin beharrean gaude, alegia, bere herriaren aldeko burrukarengatik atxilotua dena emakumea denean –nahiz eta gizonaek ere izugarrikoak jasan– honek jasan behar izaten dituen mesprezuak, umilazioak izugarriak eta bi dira. Egoera hori jasan dutenen txostenak irakurtzen baditugu imaginatu ere ezin ditzakegun ankerkeriekin egingo dugu topo. Torturaren mundu horretan ere emakumea diskriminatuta dago.

Guk bizi dugun munduan bikote heterosexualetan banaketak legeztaturik daude, dibortzioa baimenduta edota abortua ere nolabait legeztatuta. Batez ere, emakumeak egindako burruka luzearen emaitza dira, ez dago zalantzarik. Arlo honetan eman diren askatasunaren aldeko urrats hauek oraindik ez daude ordea, helmugaraino eramanda, falta dira mordoxka bat behar den lekuraino heltzeko. Gizonaren alde dago indarrean daukagun legedia eta gizarteak, aurrera begira, bere gain hartu beharko ditu zenbait erantzunkizun, esate baterako, umeen arduragatik, gehienetan behintzat, amari eman beharreko laguntzak.

Zer esanik ez bikote homosexuali begiratzen badiegu. Kasu honetan, bizi dugun egoera hauteskundeetako betiereko gaia dela dirudi. Nonbait botu asko dira, ez ordea nahikoa dituzten eskubideak lortu ahal izateko. Etorkizunean belaunaldi berriekin normaltasuna lortuko al dute! Guk ez dugu jakin-eta horretara heltzen.

Emakumeak gizartean bere presentzia, bere lekua izan dezan egiten ari den burruka horren ondorioa izan da 80-90 hamarkadan sortu den "New Man" deitzen den gizon berri hori. Etxean lana egiten duena, jatorduak prestatu, etxea txukundu, erosketak egin, umeak zaindu eta abar egiten duen gizon berriaren irudia hor dago. Negar egiteko ahalmena izateaz gain, lotsarik gabe egiten duena, eguneroko bizitzan beste sentsibilitate batekin gauzak ikusteko ahalmena duena.

Gizonezko hauek ezagutzen dira gure munduan, denok ezagutzen ditugu horrela jokutzen dutenak. Gizonezkoengan horrelako aldaketa aurrera-pausoa dela dudarik ez dago. Galdera da, beste maila batean, zenbateraino erakargarria den "New Man" hori, ez gizonezkoen artean, baizik eta emakumezkoen artean. Oraingo emakumeei gustatzen al zaie horrelako gizona?

Gizarte berdina eta libreagora gizonezkoek eta emakumezkoek elkarrekin joan beharra dute, ez dago beste biderik. Jakina, elkartuta joate horrek ez du suposatzen emakumearen burrukak duen espezifikotasuna ukatu behar denik.

Horregatik UEUn leku bat egin nahi izan zaio problematika honi, betiere, bere izateak, alegia, filosofia sailak, izenak berak adierazten duena mantenduz.

Urtero aspaldiko urteotan aste bat hartzen da Iruinean filosofia sailarentzat eta 1991. urtea, nolabait esateko, emakumeari eskaini zaio, ikuspegi desberdinetatik bere errealitatearen berri, neurri batean behinik behin, jakin dezagun. Asteaz zehar eskaini diren hitzaldi guztiak emakumeek emandakoak izan dira, gure kulturaren munduan ezagun zaizkigun emakumeak gehienak, eskaini dizkiguten hitzaldi horien ondoren eztabaidak ere sortu

dira. Zenbaitetan eztabaida interesgarriak, azaldu diren gaiak horretara bultzatzen zutelako. Hain zuzen, hori izan da ondoren lan horiek bildu eta edonork irakur ditzan bilduma egin eta argitaratzearen zioa.

Lan hauen egileak, gehientsuenak behintzat, ezagunak egingo zaizkio irakurle arruntari. Halaber, bat edo beste ezaguna ez bazaio egiten ez da ezer gertatzen, izan ere, garrantzia duena ez baita zein emakumek idatzi duen, zer aportatzen duen edota zenbateraino atsegina sortarazten duen baizik. Gustura irakutzen badituzu lan hauek eta merezi duen zirraren bat, hausnarketarako bideren bat bederen eragiten badizu, oso ondo.

Jexux Arrizabalaga  
eta  
Arantxa Carbonell



# EMAKUMEA GREZIAR PENTSAMENDUAN

**Arantxa Carbonell, Leonor de la Torre**

Gauza bera da greziar munduko historia  
eta gizonen egin duten historia kontatzea,  
hau da,  
gizonen gizonentzako eraturako historia kontatzea.

Maitasun arrunta homosexuala nahiz heterosexuala  
izan zitekeen Grezian, baina  
adimen arteko maitasun intelektual  
hori ezin izan zitekeen  
gizonen artekoa besterik.

*Claude Mosse*

## **EMAKUMEAK, HAURRAK ETA ESKLABUAK**

Sokratesek esana da “Jainkoei eskertzen diet greziarra izatea eta ez barbaroa, jauna izatea eta ez esklaboa, gizona eta ez emakume izatea”. Kristo aurreko V. mendean milioi erdi biztanle Atenas hirian menpeko egoeran bizi dira 40.000 biztanle jaun libreei zerbitzatzeko. Emakumeak dira piramidearen behelaldean kokatuak daudenak haur, esklabu eta atzerritarrekin batera.

Batikbat gailurrekoentzat garrantzitsua da ondorengoak uztea ondareak transmititu ahal izateko eta aberastasuna familian bertan iraunarazteko. Hala, ezkontza mistoak legez kanpokoak ziren eta galerazita zeuden zeren kasu honetan seme-alabak ez baitziren hartuak izango hiritar legitimitzat. Kristo aurreko 451ean jada bada hiritar lege bat, zeinak konkubinen seme-alabak ez direla hiritarrak direnik kontsideratuko adierazten duen. Menandroren antzerki-lanetan ere alabak greziarrak izanen dira emaztea greziarra bada. Esklabuen arteko harremanak baimentzeko ahalmena gizon jabeak baino ez dauka. Eta semeak ziren, eta ez alabak, aitaren ondarea jasotzen zutenak.

Grezian jaiotako haurrak bere gurasoen ezkontzari esker bereganatzen zuen hiritar estatutua. Ulisesek aitortu zuen, jada aspaldi dela, heredentziaren puska txikiagoa ematen zitzaiola legitimoa ez zen haurrari libre den emazte batengandik jaiotako haurrari baino. Gizarte greziarrak ondorengoak uzteari betebeharrak inportantea irizten zion; ondasunen banaketa eta aberastasunen transmisioa, ordea, gizonarengandik gizonarenganako zen soilik.

## **OIKOS: ETXE BARRUKO ITXIALDIA**

Emakumearen lekua beretsua izan da Grezian bost mendetan zehar, hots, oikosen barnean egon beharra, besteak beste etxeko lanak egiten. Emakumea etxe barrukoa da eta bere betekizun behinena haurrak izatea da, oikosa osatzen duten tesauruak zaintzea, sukaldaritzan eta ohialak iruten aritzea. Gizona, berriz, etxe kanpoko da, berezkoa zaio politika, gudan aritzea eta gizarte-bizitza. Homeroren gizartean ere, jainkoek gizakiei eginbeharrak banatzerakoan, lan desberdinak bete zituzaten agindu zien emakumezkoiei eta gizona zekoiei. Izadi desberdinekoak direlakoan oinarrituta emakumea barneko eginbeharretara lotuko zaio; bizkitartean kanpo bizitzan arituko dena gizona zekoa da. Aspaldi hartan Ulises, honela zuzendu zen emazte zuen Penelopengana: “jauregian dauden ondasunak begiratu eta zaindu

beharko dituzu”. Ulises, bere partetik, mentura berrien bila abiatu zen. Aburu berekoa da Aristotele honakoa jakitera ematerakoan: “batak kanpo-ondasunak ekar ditzala, besteak etxea gorde dezala”. Jenofontek “Ekonomiko” bere lanean lantzen ari garen puntuarekiko adostasuna erakusten du. Berak aitortzen duenez senar-emazteek batasuna osatu beharra dute, baina betiere senarra izanik kanpo-lanetan arituko dena. Isomakok bere jarrera azaltzen digu “ni ez naiz sekulan etxean geratzen, etxeko lanak egiteko nahikoa baitut”. Eta guzti honen berri Elektrak ere ongi daki “langilea etxera itzultzen denean, dena txukun ordenaturik etxean aurkitzea gustatu egiten zaio”.

Greziar literaturan, nahiz pentsamenduaren bestelako adieraz moldetan ere, bereziki zedarritzen dute etxekoandre onaren eta gaiztoren arteko bereizketa. Horrenbestez, ez zaio emakume onari kanpoa interesatu behar. Bere etxeko atarian egotea ez dago ondo ikusita. Kalea emagaldueña da. Menandrok bere antzerkitan emakume zintzoari beti etxean egon behar duela aholkatzen dio.

Etxe barnean emakumea eta gizona elkarrengandik banatuta bizi dira gela desberdinetan, emakumezkoen gelak “ginezeo” izenez ezagutzen direnak dira. Senarrak etxera lagunak gonbidatzen dituenen ez amak ez alabek ez dute oturentzetan parte hartzen, hauek “andron” deitzen diren gelatan gordeko dira. Emakumea etxean geratzen da lagunene batek senarra gonbidatzen badu. Jenofonteren “Ekonomiko”an hauxe itauntzen dio Sokratesek Kritobulori: “ezagutzen al duzu zure emaztearekin zu baino gutxiago mintzatu zaion inor? balego oso gutxi benetan hizketatuko zitzaion”. Etxea eta emakumea hain elkarri uztartuak zirelako emakumeak jasotzen zuen heziera-iturri ziren ama edo amama edo emakume zen esklaburen bat. Ezkontzeko erabakia edo baimena aitarena baino ez den bitartean emakumeak galerazita dauka hitza publikoki erabiltzea.

## **EMAKUMEA HARRAPAKIN BILAKATZEN DENEAN**

Bere kabuz erabakitzeko gaitasuna ukatua duen emakume greziarra propietate bihurtzen da; isilpeko harremanetarako objektua da. Homeroren gizartean, orduan ere, emakumea saldu eta erosi egiten zen merkatuan, objektu preziatutzat baitzuten. Adibideak ez dira falta, esaterako Leartek 20 behiren truke inude zen emakumea erosi zuen. Emakume zerbitzarietatik asko ziren guduan erasotutako hirietan bahitutakoak. Gizon handikiek oparitzat zituzten hainbat emakume, modu honetara gizonen arteko adiskide-harremanak sendotzen ziren, eta bestalde gizarte-loturak bermatzen ziren.

Troia galdu zutenean armadako gizandiek erret familiako emakume guztiak hartu zituzten oparitzat. C.Mosse egileak azaltzen du tirania garaian arrunta zela alaba oparitzea boterea eskuratzeko xedeaz.

Epopeian bezala emakumea batikbat objektua da. Kristo aurreko VIII. mendean, kolonizazio garaian, lurraldekin batera lekuko buruzagiek euren alabak eman behar izaten zizkieten etorri berri ziren konkistatzaileei. Maiz gertatzen zen, guda garaian, etsaiaren emakumeak bahitzea, hiri konkistatutan bizi ziren emakumeak zein haurrak esklabu bihurtzen zituzten arruntki. Eta halaber, arrunta zen gizon libre batek bera baino aberatsagoa zen beste gizon bati alaba konkubinatzat eskaintzea, betiere noski, abantail ekonomikoen truke. Konkubinen alokatzea, seme-alaben salmenta eta abandonatzea, exposito kaxaka...guztiak dira Erdi Arora bitartean bizitza izan duten usantzak. Bete-bete sinisten zuen gizarte greziarrak aitaren propietate direla seme-alabak.

## EMAKUMEAREN PAPER A ETA ESTATUAREN OSASUNA

Garai hartako zenbait egilek adierazten dute erresumetako erreinuen galera suertatu zela zeren Helenak eta Klimenestrek ez baitzuten bete emakume izateagatik zegokien rola edo papera. Aristotelek adierazten du, Espartak lurraldeak eta erresumak galdu zituela emakumeak ez zirelako zintzoak izan. Zoritzarraren errua, finean, jarrera edo jokaera oker bat da; emakumearena.

## KYRIOSPEAN

Semea txiro izan arren  
beti hezitzen da  
alaba aberatsa izan arren  
beti lagatzen da.

*Poeta komiko batek*

Greziar emakumearen estatutua eta gizonarena ez ziren berdinak. Aristoteleren ustez, egoerarik onena haurrak nahiz emakumeak gizonaren esanetara eta agindupean daudena da; izan ere *\*inbecilis mentis\** baitira emakumeak, hots, adimen urrikoak. Emakumearen izaera okerra, animalien belaunalditan zehar agitu izan zen *\*akats naturala\** dela azaltzen du Aristotelek. Emea jaiotzen zenean esan ohi zen gizona edo mozkortuta zegoela edo zaharra zela.

Aristoteleren hitzetan beraz gizonak emakumea moldatu beharko luke formak materia moldatzen duen legez. Jenofontek “Ekonomiko” lanean Isomakok Sokratesi, bere ezkontzaz mintzatzen ari zaiola, honakoa azaltzen diola esaten du: “Lehenengo eta behin sakrifizioa eskaini nien jainkoei, aldi berean eskatzen nielarik irakaslea ni izan nendin, eta ikaslea, aldiz, nere emaztea izan zedin”.

Perikleren aburuz isiltasuna da emakumeak daukan apaingarririk ederrena, agian Wittgensteinek, bestelako testuinguru batean esango zukeen modura esan daiteke “zentzurik gabe hitz egitekotan hobe dela isiltzea”. Emakumea adingabea eta adimengabea da, ez du eta bere kabuz deus erabakitzeko eskubiderik; ezkontza-moten eta banaketa-daten xehetasun guztiak Kyriosak baino ez zituen erabakitzen, eta horregatik dio Isomakok Jenofonteren Atenas hartan: “nik neure aburuz pentsatu ostean, eta zure gurasoak zure orde zausartu ondoren nik zu hautatu zaitut ezkontzan elkar batzeko eta zure gurasoek ni aukeratu naute”.

Kyrios baten tuterarik gabe emakumea ezer gutxi zen Grezia Zaharrean. Higiniak honela dio “nebarik gabe ni! aitarik gabe ni! dohakabeak sumintzen nau”. Menandronen antzerkietan senarra hil zaien emakume alargunen seme alabei \*omezurtz\* deitzen zaie.

Baina literaturak salbuespen-adibideak ere erakusten dizkigu; Leuzipa eta Teklaren istorioak lekuko dira. Zergatik dira baina salbuespen ?

- a) Leuzipak arrakasta lortu zuen erabakitzeko askatasuna aldarrikatu zuelako, gurasoek atondutako ezkontzari uko egin zionean.
- b) Teklak aurrez beretzat erabakita zegoen ezkontzari ezetza emateaz gain bere burua bataiatu zuen atrebentziaz. Bera emakume izanik meza ematen zuen, elizak artean apezgintza bakarrik gizonetzkoen onartzen zirenean. Teklaren amak agindu zuen alaba sutara zezaten, alabaren patua alabak, eta ez kyriosak, erabaki zuelako bere kabuz.

## BATZARRETATIK ETA GERLATIK AT

Telemakok bere ama Peneloperi gizontasuna erakustearren honakoa esan zion:

“ Zoaz zure lekura, zure sexuari dagokion lanez ardura zaitetz, hau da, telarraz eta goruaz, eta begira ezazu zerbitzariak euren lana betetzen duten, zeren \*hitza\* gizonoi baitagokigu, batez ere neri, ni naizelako etxeko nagusia”.

Claude Mosse egileak argitzen digunez, \*hiritar\* deitura Aristotelen garaitik ezaguna zen arren ez da ordea komeni hiritar terminoaz mintzatzea emakumezkoen gagozkienean, zeren \*hiritar estatutuak\* batzarretan eta politikan parte hartzea esan nahi baitu. Aristotelentzat gauza bera dira emakumea eta supazterra -etxea-,

eta gainera emakumeak ezin dezake hiriko gorabeheretan eskurik sartu adimen urrikoa izateagatik. Pentsalari berak uste du, halaber, senar-emazteen arteko harremanak ez direla orekatsuak, ez direla berdinen artekoak, eta halako harremanak erabilgarritasunean baino ez direla oinarritzen esan zuen. Gauzak honela, senarra helburugilea da, emakumea, aldiz, helbidea eta tresna da (esklabu eta jauntxoen arteko harremanen antzekoak). Gizarte-bizitzaren politika eratzea gizonen esku zegoen, zeren hauen arteko harremanak bai baitziren trukakorrak.

Hasi heroien garaitik eta Alexandro bitartean gudara doazenak gizonak dira. Homerogan jada Hektorek Andromakari honako hau gogorarazten diola irakur daiteke: “gerra egitea gizonoi dagokigu eta zuk hobe zenuke ohialak irutera etxera aldegingo bazenu”. Hartara, polisa, guda, politika eta hitza gizonena baino ez da. Zenbait adituren ustez garai hartako Atenas \*gizonen kluba\* zen zeren, besteak beste, gizarte-bizitzan emakumeak parte hartzeko aukera bakarrak kultu-erlijioak zirelako. Gainera, emakumea adulterioagatik kondenatzen bazuten debekatua zuen berriz ere iharduera erlijiosoetara azaltzea.

Ez al da, maila batean bederen izugarritzko kontraesana Grezian alde batetik garapen kultural garrantzitsua eman zela ikustea, eta bestaldetik inondik inora, Atenaseko emakumeen egintza literarioen arrastorik ez dagolea ikustea (Safo salbu)? Susmagarria ez ote da hirurak prostituzioaz akusatua izatea, hau da, Safo, Mileto Aspasia eta Filaenis?

## **EZKONTZA: ERABAKITAKO PATUA**

Emakumeak jasan egin behar du senarrak pairatzen duen guztia nahiz eta gizona zoritxarrekoa edo mozkorra suertatu zaion, nahiz eta beste emakumeren batekin oheratzen den...gizonaren umorea jasan beharko du...etxea apal eta txukun gordeko du hitz atseginak adituz eta ahoskatuz... eta senarrak jakia gozoa dela baieztan badu emazteak ere berdin iritziko dio, eta mikatza dela uste badu emazteak arrazoa emango dio, zeren bestela jokatzu gero emakumea ez bailitzateke bat etorriko gainontzeko unibertsoarekin.

*- Testu neoplatonikoa-*

Homeroren poemetan ezkontza jada errealitate soziala da, orduan mota askotako ezkontzak ospatzen ziren, non betiere emakumea trukatu, saldu eta erosten baitzen gizonen elkarrekintzak indartzeko, era berean ohorea eskuratuz. Andromaka eta Penelope emakume-ereduak dira gainontzeko emakumeentzat, senarraren zain 20 urte pasatakoak. Klimenestrak ere senarraren esperoan iragango ditu egunak eta gauak. Atenasen, emakumea eta ezkontza hain daude eguneroko bizitzan elkarri itsatsiak non gaur pentsaezina gertatzen baitzaigu bere kabuz

bakarrik garai hartan bizi zitekeen emakume aske baten irudia imajinatzea. Emakumeaz aritzea beraz ezkontzaz mintzatzea da. \*Engi\* terminoaren esanahiak adierazten du bateratze-ekintza, non aitak bere alabari aurkezten dion bizitza osoan maite beharko duen senargai. Ez zuten existitzen, horrenbestez, emaztearen iritziak ez eta desioak ere.

Kyriosak, hau da, aitak edo zegokion tutoreak erabakitzen zuen zein izanen zen alabaren egoitza berria behin hau ezkonduz gero, gizonak izanik, behin berriro, emakumearen patua erabakitzen dutenak. Adibideak ez dira falta, esate baterako Demostenek artean 5 urte besterik ez zituela bere aitak jada erabakia zion heriotzaren bezperan zein izango zuen senargai geroan.

Plutarkok \*Erotikos\* lanean ezkontza instituzionalaren aldeko jarrera adierazten du fermuki, azpimarratzen duela behin eta berriz maitasun iraunkorrari zor zaion fidelitatea. Fidelitatea gaitzat zuten elaberriak asko izanik kontakizun guzti hauek zoriontsua besterik izan ez zitekeen amaiera erakusten zuten. Irakasten denaren muina hauxe da: bikoteak (neska-mutilak) azkenerarte iraun behar zuen, heroismoa hain zuzen irautean baitatza.

Teklari norekin esposatuko zen erabaki egin zioten baina berak gaitzetsi zuen kristau fedean arituz lan egin nahiago zuelako. Teklaren ama horratik, biziki haserre, bere alaba sutan erre zezaten eskatu zuen. Bere laguna ere, Pedro, akusatua gertatu zen honek ikasgai arraroak jakitera ematen omen zituelako jendaurrean, zeinetan ezkontza –greziar izaeraren erro eta ohorea dena– arbuiatzen baitzuen.

Sexualitateak eta kastitateak heriotzarekin eta berpiztearekin lotura estua dutela uste zuten orduko greziar haiek. Nola gaindi daiteke heriotza? heriotzari aurre egiteko modu bi daude: bata ugalketa, hau da, espeziari jarraipena ziurtatuz eta bermatuz; bestalde bataioa eta kastitatea bitarteko ere badira. Polisaren galerarekin batera, maiz eztabaidatzen zen eraman beharreko sexu-jokaera egoki baten ereduaren gainean; halaber ezkontza eta emakumeak bete beharko zukeen papera edo rola ere hizketa-gai ziren.

Mutilekin erkatuz gero neskak askoz gazteagoak izanik ezkontzen ziren. Ezkondua zelarik ere senarra beste etxe batzuetan biziko zen 30 urte bete bitartean. Hortaz, mutilak adimen-ariketetan eta ariketa fisikotan trebatzen ziren bitartean neskek, berriz, seme-alabak zaintzen hartzen zuten jada ardura.

Ezkontza sakabanatzeko erabaki-ahalmena senarrak baino ez du, berdin dio honek arrazoirik ez badu ere (gogoratu testu neoplatonikoa). Bestalde dibortzioa epaiketa labur-laburrean deliberatzen zen. Emakumea adulteroa bazen senarra behartua zegoen emaztea arbuiatzera, bestela “atinia” izeneko zigorra ezarriko

baitzioten. Banatze-eskaera egiteko ez zen emakumearen kasuan infidelitatea irizpide askirik zenik kontsideratzen. Euripidesen Medeak honela dio: “emakumeak senarra lagatzen badu zorigaitza etorriko zaiola berari, zeren emakumeak ezin baitu gizona arbuiatu”. Bestalde, gauza normala zen emakumea antzua suertatzen bazen, gizonak konkubina hartzea.

Ezkontza K.a. IV. mendean legeztatu zuten Atenasen. Modu honetara ondasunak familian bertan irautea bermatu zen, aldi berean propietate pribatua indartu zelarik hain zuzen ondasun-transmisioak segurki finkatu zirenean. Greziarrek ezkontza-mota bakarra monogamia dela aitortzen duten arren egiazki etxe berean bizi dira emaztea, senarra, honen konkubina eta seme-alaba ilegitimoak ere bai.

## ADULTERIOA

Agamenon hamar urte pasa ondoren emaztearengana itzuli zenean, senarrak espero zuen Klimenestrak, biei emango ziela ongietorria; Agamenoni ezezik honen konkubinari ere harrera ona zor zien emazteak. Bestalde Grezian emaztegaiak birjina izan behar zuen, pentsamolde honen aztarna garbiak jada irakasten dira Hesiodoren lanetan. “Hobe da –dio Euripidesez– fidela ez den gizona ukaitea senarrarik ez izatea baino”. Honela da konkubina bizi dela emaztearen etxe berean.

Etxera Herakles emakume esklabu batekin azaltzen den batean Deyanira emazte duena honela mintzatzen da “aurrerantzean bi izanen gara esperoan egonen garenak”. Medeak honakoa aitortzen digu: “gizon bati etxea aspergarria egiten zaionean gizona orduan kalera joan ohi da lagun baten ikustera edo...baina guk, aldiz, gizaki bat besterik ezin digu begiratu”. Emakumearen adulterioa zigortzen zen bitartean, gizonarena ez zen aintzakotzat batere hartzen. Greziarrentzat egoera normala zen senarraren etxean konkubinak, zerbitzariak eta emakume esklabuak bizitzea. Emakume zerbitzariekin oheratzeko baimena zuen senarrak, baita kanpotik zetozen zerbitzariekin ere. Gizonen munduan pallakea onartua zegoen eta halakorik adulterioa denik ez da kontsideratzen. Bazen goi-klasetan \*kontinentzia sexuala\*z ezagutzen zena, kastitatearen mitoa, non sexuan emakumeak izan behar duen paper pasiboa txalotua eta arras baloratua zen.

Helena -senarraren etxea abandonatu duelako- ez da emakume zintzoa, zeren Helena eta Klimenestraren antzeko diren emakumeak zigorra jasotzen baitute senarra uzteagatik. Legedian gizonari emakume bakarra baimentzen zaion arren bestelakoa da eguneroko bizitza. Zentzu honetan gizonari zigortzen zitzaion adulterio bakarra beste atenastar baten emaztearekin egindakoa da, ez beste.



## ESKLABUAK ETA PORNAIA

Plazerrerako dauzkagu kortesanak eguneroko zaintza gizonari eskaintzeko dauzkagu konkubinak, seme-alaba legitimoak emateko eta etxeko jagole izateko dauzkagu emazteak".

-Contra Neerea-  
Pseudo Demostenes

Emakume txiroenak ziren pornai bihurtzen zirenak, Pireo eta Atenaseko ostatuetan aritzen ziren. Hetairak berriz plazerrerako emakumeak ziren, Claude Mossek hauxe dio Hetaira hauei buruz: "emakume hauek ziren, eta ez beste, Atenasen libre ziren emakume bakarrak; kalean ibiltzen zirelako, oturuntzetan eta jaietan, besteek ez bezala, hauek parte hartzen zutelako. Artean ez baitzitzaion baimentzen etxeko andreari oturuntzetan parte hartzerik nahiz eta jai bere etxean ospatu izan. Kortesana libre egiten duen beste faktorea dirua da, izan ere diruaren garrantzia boterearen sinbolo izatean baitatza. Horrela badute sarrera kortesanez betidanik gizonentzat besterik izan diren espaziotara. Nerea da horren adibide argia; bidaiatu egiten duen emakumea da, festetan parte hartzen duena, finean Nerea informatu egin den emakumea da. Horregatik bera eta bere antzekoak zigortuak –gaizki ikusiak– izan dira. Pomeroy egilea iritzi honetakoa da: zeintzuk ziren emakume libreak? gizonekin harreman iraunkorrik ez zuten haiek. Eta gogora dezagun garaiko ereduak maitasun iraunkorra sutuki goraiatzan zuela. Pomeroyren arabera beraz alarguna emakume libre da; ez du senarrik, gainera badu dirua.

Esklabuek harreman sexualik ukan nahi bazuten aurrez behartuak zeuden euren jabearen baimena eskuratzera. Esklabua, bere emaztea eta bien seme alabak nagusiarenak ziren, haren propietate. Prostituzioak hainbat zio zituen:

- a) Gauza arrunta zen aita txiroa izanik bere alaba saltzea edo abandonatzea.
- b) Legeak ez zuen oztopatzen haurrak bahitzea.
- c) Autoprostituzioa.
- d) Hetariren zuzendaritzapean. Libiak aukeratzen zizkion bere senararentzat plazerrerako izanen zituen emakume birjinak. Hetairek poz-itxura dute, emetasuna dotoreziaz erakusten dute, amodioan profesionalak dira, eta gainontzeko emakumeek galerezita zituzten askatasunak haiek ordea bazituzten.

## EMETASUNA ETA ARTASUNA, MATERIA ETA FORMA

Zientziak eta erlijioak kultura berria eta zaharra argi eta garbi desberdintzen dituzten arren berdin iraun dute mendetan zehar emakumeekiko jarrerak eta eginbeharrek.

Aristotelek honako hau esan zuen “naturak batetik sexu indartsua sortu zuen, sexu ahula bestetik”. Horrela esplikatzeko da zergatik Atena jakinduriaren jainkosa izanik jakinduria kualitate maskulinoztat kontsideratzen zen. Euripidesek bere iritzia damaigu ondorengo aipu honen bitartez “emakume argiak arriskutsuak dira, beraz onena duzue emakume tuntuak etxeratzea”, “gorrotatzen baitut nik emakume argia”, “nere etxera ez dadila sekulan sar bere sexuari dagokion baino maila bikainagorik erakusten duen emakumerik. Plutarkok “Erotikos” lana burutzen ari zenean bete-betea parte hartzen ari zen aldi berean garaian maitasunari buruz zegoen eztabaidan; honela, baziren emakumeak maitasuna eman eta sentitzeko ahalmena zutela defendatzen zutenak, eta bestetik baziren, halakorik errotik ukatuz gezurtatzen zutenak. Emakumeak erakutsi egin behar zuen kontrolaren jabe bazela, horregatik honakoa dio Pisiasek “ez da egokia emakume zintzoarentzat maitemintzea, ez da zuzena emakume zintzoarentzat amodio apasionaturik sentitu ahal izatea.

Teofrastoren aburuz, Aristoteleren ikaslea berau, emakumeari heziketa gehiegi emanez gero alfer bihurtzen da.

Grezian emakumearen zereginak honako hauek ziren: sukaldaritza, artile eta ohialak irutea, esklabuen betebeharrak zuzentzea, kanpotik zetozen bisitariak bainatzea eta hauen ohandaz arduratzea, inude, amagina, ama. Platon da harrizten den filosofo bakarra, gaitasun eta prestakuntzarik gabeko amengan haurren hezikeeraren ardura uzteagatik. Baita kultu erlijiosoetan ere; sazerdotisak Knosso, Eleusi eta Delfosoko tenpluetan. Jai sagratuetako ospakizunetan hartzen zuten parte. Antzinatean tenpluko gizonen apaizek etekinak eskuratzen dituzte emakumeen prostituzio sakratutik. Emakumeak hetairak ere izan ohi ziren, dantzariak eta akrobatak.

- Koalitate maskulinoak ondokoak ziren → kontrola, meneratze-ahalmena, kultura eta hitza.
- Berezitasun femeninoak ondokoak ziren → maltzurkeria, gezurra (metis) ardozaletasuna, gozozaletasuna, gehiegizko sentsualtasuna erakustea eta berritsukeria.

Euripidesen antzezlanetan amak maiz negarretan agertzen dira, gudan zendu zaizkien semeengatik malkotan blai. Seinalatzekoa da Plutarkok Fulviaren maskulinitatea azpimarratzen duela, baina zergatik? emakume izanik Fulvia ohialaz iruteaz arduratzen ez delako. Egile berak baiezten digu “emakumearentzat denik eta hoberena dela geldi-geldirik egotea eta batez ere isil-isilik”, Plutarkok hori izkribitu eta handik 900 urtera antzeko zerbait topatzen dugu kristau testu batean jaso, honako aholkua: “emakumeak etxean geratuko dira, batere builarik atera gabe”. Beraz, besteak beste, emakumea pintatzerakoan erabiltzen dituen koloreak dira maltzurkeria, gezurtia izatea, mozkorra, gehiegizko sentiberatasunaren jabe. Ildo eta bide berdina erakusten dizkigute Platonen irakaspenek zeren pentsalari honen aburuz emakumea zuzena, manakorra, apala, lasaia eta atsegina baita. Gizona, aldiz, lehiakide izateko sortua da, lehiazalea eta erasokorra da.

## PANDORAREN MITOA

Amaitzeko Hesiodok idatzi zuen Prometeoren mitoaren muina, eta prezezki \*Pandoraren mitoa\* jaso dugu. Pandoraren mitoan adierazten da nola agitu zen behin batean lehen emakumezkoen sorkuntza. Greziar pentsamendua egituratzen duten aurkako bikoteek jada aparteko garrantzia hartzen dute Pandoraren mitoan. Bertan kontatzen denaren arabera kultura, argia, arrazoia, gudan aritzea eta politikarako trebetasuna gizonari baino ez dagokio. Ordea, ez gizarteko izatea, etxeko lanak betetzea, neurri gabetasuna, izadia eta gaua dira emakumeari dagozkionak.

Honela dio \*Pandoraren mitoak\*: *“Eta Jainkoek gizonarengandik gorderik baitaukate jan-edatekoa; zeren, bestela, aisa egun bakar batez egingo zenukeen lana eta urte oso bat izango zenuke eta bukatu egingo lirateke idi eta mando saiatuen lanak.*

*Baina Zeusek gorde egin zizkion isekengatik bihotza samindurik; horregatik, larritasun mingarriak asmatu zituen gizonen xedera eta sua izkutatu zuen. Baina horra hor non Japetoren seme jatorrak gizonen onerako lapurtu egin zion Zeus zuhurrari kalamu baten ahurrean, tximistaz gozatzen duen Zeusen gerezian. Eta haserre bizian esan zion Zeusek, hodei-biltzaileak:*

*“Gauza guztien patua ezagutzen duzun Japetonida! Poztu egin zara sua lapurtu didazulako eta nire adimenari iruzur egitea lortu duzulako; zorigaitzaren iturri izango da zuretzako bereziki eta etorkizuneko gizonentzako. Nik suaren ordainetan, beren zorigaitzaz samurki gozatuz bihotza alaituko dien gaitza emango diet guztiei”.*

*Horrela esan zuen eta algarak egiteari ekin zion gizonen eta jainkoen aitak; Hefesto txit gorenari agindu zion lehenbailehen nahas zezala lurra urarekin, eman*

ziezaiola ahotsa eta bizitza eta egin zezala dontzeila-irudi liraina eta liluragarria, jainkosa hilezkorren antzerako aurpegia zuena. Gero Ateneari agindu zion irakats ziezaizkiola eskulanak, falfail fineko ohialak ehuntzen. Afrodita urre itxurakoari agindu zion burua liraintasunez, sentsualtasunez eta apaingarri liluragarriez ingura zezala; eta Heremesi, Argifonte mezulariari, agindu zion eman ziezaizkiola adimen lotsagabea eta izakera aldakorra.

Eman zituen agindu hauek guztiak eta haiek men egin zioten Zeus Kronida subiranoari. Berehala Patizanbo txit argiak Kronidaren borondateari jarraituz hurrez irudikatu zuen dontzeila garbiaren itxurako irudia.

Begi berde-argikoen Atenea jainkosak gerrikoa eman zion eta apaindu egin zuen. Sotiltasun jainkosek eta Sinestarazle jainkosa agurgarriak lepoan lepoko urreztatuak jarri zizkieten eta adats ederreko Orduak udaberriko loreen koroa jarri zioten. Palas Ateneak era guztietako edertasunez apaindu zion gorputza eta Argifonte mezulariak bihotza gezurrez, hitz liluragarriez eta izaera aldakorraz hornitu zion, Zeus handiaren aginduz. Jainkoen aitzindariak eman zion hitza eta emakumezko honi Pandora izena jarri zion, zeren egoitza olinpikoak dauzkaten guztiek opari bat, ogiz elikatzen diren gizonen galera izango zena, eman baitzioten.

Eta gero bukatu egin zuen bere iruzur pozointsua eta ukaezina. Aitak Argifonte txit argia, mezulari azkarra, Epimeteorengana igorri zuen jainkoen opariarekin. Eta Epimeteok ez zuen gogoratu Prometeok ohartarazi ziona, Zeus Olinpikoaren eskutik inoiz ez zezala oparirik har, besterik gabe itzul zezala gizonak zorigaitzarik paira ez zezaten. Baina oparia onartu zuena geroago, zoritxarreko bilakatu zenean, ohartu zen horretaz.

Izan ere, lurraren gainean lehen zorigaitzetik libre eta zeregin neketsutik eta gizonei heriotza sortzen dieten gaixotasun mingarrietatik salbuetsirik zeuden tribuak ziren (...).Baina emakume hark, bere eskuekin pitxar baten estalki ikaragarria kentzerakoan, sakabanatzen utzi zituen eta gizonei kezka deitoragarriak ekarri zizkien.

Soilik Itxaropenak jarraitu zuen han, pitxarraren ertzen azpian murre gaindiezinetan espetxeraturik, eta ezin izan zuen aterantz hegan egin, lehenago pitxarraren estalkia erori baitzen, ezkutuaeren eramaile eta hodeien biltzaile den Zeusen borondatearengatik.

Mila tankerako samintasuna dabil gizonen artean: zoritxarrez gainezka daude lurrak eta itsasoak. Nola egunez hala gauetz gaixotasunek beren nahiera joan-etorria egiten dute gizonen artean, isiltasunean zorigaitza erakarritz, zeren Zeus zuhurrak hitza ukatu baitzien. Eta horrela ezinezkoa da Zeusen borondateari ihes egitea “.

- Hesiodo -

## **BIBLIOGRAFIA**

B. POMEROY AKAL, S.; *Diosas, rameras, esposas y esclavas*. Madril, 1987.

DUBY PENGES, P. M.; *Historia de las mujeres*, Taurus, Madril. 1991.

GARCIA GUAL, C.; *Audacias Femeninas*. Nerea, Madril, 1991.

GRAVES, R.; *El vellocino de oro*. Edhasa, Bartzelona 1988.

HESIODO; *Obras y fragmentos*, Gredos, S.A. Madril,1990.

IRIARTE, A.; *Las redes del Enigma*. Taurus. Madril. 1990.

MOSSE, C.; *La mujer en la Grecia Clásica*, Nerea, Madril, 1990.

RUSELLE, A.; *Porneia*. Peninsula, Bartzelona 1989.

VANOYEKE V.; *La prostitución en Grecia y Roma*. Edaf, Madril. 1991.

# SEXISMOA SINBOLO ETA ARKETIPOETAN

**Anuntxi Arana**

## I. ASKATASUN BIDEKO OZTOPOAK

Emakumeen kontrako diskriminazioa eguneroko errealitatea da oraindik ere gure artean. Feministen borrokei esker eskuratu ahal izan ditugun lorpenak ez dira makalak, baina ez orokorrak inondik ere, eta menpekotasunak bizi-bizirik dirau, gure Mendebaldeko jendarte aurreratuetan. Agresio sexualak ez dira bukatu, eta horren fropa dira emakumeei egiten dizkieten bortxaketak eta jipoiak: Frantzia bikoteen %10ean tratu txarrak jasaten dituzte emazteek (*Egunkaria*, 1992-7-3). Legearen aurrean berdinak gara, lana egiteko eskubidea badugu, baina pratikan gure lana gizonena baino gaizkiago pagatua izaten da. Politikan ugari dira emakume militanteak, bakar batzuk postu garrantzitsuak betetzen dituztenak: proportzioa kalkulatzeko aski da agintzen gaituzten Jaurlaritzari eta Gobernuari begiratzea. Frantziako Biltzar Nazionalak onartu zuen emakume hautagaien kuota minimoa alderdien hauteskunde-zerrendetan, baina Konstituzio-kontseiluak (Konstituzio-Auzitegiak) erabaki hori hautsi zuen, sexu-diskriminazioa izan litekeelakoan. Legearen aurreko berdintasuna ez da inondik ere bizian gauzaten, baina aitzinamendua da.

Arazoa da aitzinamenduak ez direla itzulezinak. Orain arte erdietsi ditugunak, oso handiak izanik ere, beti galtzeko arriskuan daude, haien aldeko presio soziala arintzen bada. Egutero sentitzen dugu zein egoera ahuletan dauden irabazitako horiek, zein erraz atzera gaitzkeen antzinako abiapunturaino. Leku askotan hala gertatu baita.

Afrikako eta Hegoamerikako mugimendu iraultzaileek zerbait erdietsi zutela bazirudien. Baina delako iraultzaileek agintea eskuratu bezain laster, borrokaren denboran emakumeek lortu estatusa desegiten saiatu dira eta, maizetan, lortu ere. Gisèle Halimi idazle tunisiarrak dioenez, independentziaren aldeko borrokan parte oso aktiboa ukaiteagatik torturatuak eta hiltzera kondenatuak izan ziren hainbat emakume, arrunt baztertu zituzten gero erresuma horretako bizitza publikotik; bat ere ez zuten hautatu Legebiltzarrerako, are gutxiago Gobernurako; liberazioa heldu eta, gizonak emakumeen estatusa bozkatu zuten, lege islamikoaren arabera: poligamia, aitarengandik heredatzeko ezina eta senarraren baimenarik gabe lan egiteko ezintasuna ezarri zizkieten; eta guzti horien kontra joatea Mendebaldearen menpeko egotea dela diote islamistek. Afganistango gerrilariak Kabul sartu eta, zein izan da han ikusi izan den berehalako ondorioa? Emakumeek txadorra jantzi dutela, bildurrez lehenik, legeak behartuta geroxeago. 40 graduko tenperatura dago txadorpean, emeki arnastu eta emekiago ibili behar da, barrenean ez itotzeko. Diotenez, sobietarren kontrako altxamenduaren arrazoiatarik bat, eta ez den mendreana, emakume musulmanei eskola emateko saioa izan zen (French, 468).

Komunismoaren gainberakada dela eta Ekialdeko Europako krisi ekonomikoaren ondorioz, milaka dira etxera itzuli behar izan duten emakumeak, enplegua galdurik. Edozein jendartetan zerbait gaizki dabilenean emakumeak dira lehen petzeroak, gehien pakatzen dutenak. Atzera egiteko mehatxua ez da bakarrik Ekialdeko edo Hirugarren Munduko gauza. Amerikako Estatu Batuetan gero eta indartsuagoa da abortoarekin kontrako oldarra. Gugandik hurbilago, Frantzia ere horrelako zerbait hasia da, nahiz eta maila txikiagoan.

Errealitate guzti horiek emakumearen menpekotasun nabaria erakusten dute. Eta bitartean, gure inguruko zientzia eta filosofia gero eta gehiago onartzen dute bi sexuak baliokideak direla. Kasik inork ez du ukatzen, ofizialki eta publikoki behintzat, gizon eta emakumeen adimen eta gaitasun intelektualak hein berekoak direnik, nahiz zenbaitek esaten duten gaitasun horiek ez direla berdindatzen. Frantziako eskoletan egindako estatistikak argi mintzo dira: neskak mutilak bezain argiak dira eta, orohar, ondorio hobek erdiesten dituzte bigarren maila bukatu arte, gero gutiago jarraiki badira ere goi-mailako ikasketetan. Nonahi entzuten da berdintasuna gauza zuzena eta egokia dela eta justizia zor zaigula emakumeoi.

Horiek horrela, erreka handia dago ageriko errealitateen eta jende askoren barne-iritzien artean. Eta maizetan aurriritziak nagusitzen dira. Edozein emakumek badaki, esperientziaz, erabakiak hartzeko orduan gizonaren hitzak bereak baino pisu handiagoa duela, gizonarena delako, besterik gabe. Tradiziotik datorrigun ideologia hain da atxikia, frogatuari eta egiaztatuari garaitzen baitzaie. Mentalitateen inertziak tradizioaren zama astuna iraunarazten du; haren eraginpean dira ez bakarrik zaharrak, baizik eta gazteak ere, berdindatzen eskolan edo komunikabideetan gauzak egiazki nolakoak diren ikasteko parada ukan dutenak

ere: harritzekoa da noraino misoginoak izan daitezkeen teorikoki sexuen berdintasunaren alde diren alderdi politikoetako hainbat militante ospetsu...

Horrelako azalpenak pellokeria dira, beharbada. Baina haietatik abiatzen dira gure azterketa egiteko arrazoiak. Nondik dator ideologia sexistaren iraunkortasuna? Zergatik da hain errotua gure artean? Eta non elikatzen dira haren erro sakon eta zabalak? Izan ere, bi sexueta jendekiak berdin adimentsuak izatea ez baita atzo goizean sortutako fenomeno; gaur horrela bada, lehen ere hala zen. Hots, galdegin dezakegu, biologikoki kidekoak izanik, noiz eta nondik hasi zen emakumearen menpekotasuna, zergatik sortu zen patriarkadoa. Galdera horrentzat erantzunik ez bide da gaur egunean. Beraz, zergatia jakin gabe konformatuta, orain ezagutzen eta bizi dugun sistema nolakoa den asmatzen saiatuko gara bakarrik.

## II. ERREALITEA ETA IRUDIMENEZKO KATEGORIAK

Oztopoak handiak izanagatik, aldaketa positiboak jazo dira: emakumeen promozio sozialak aurrera egin du, emeki bada ere, eta lan asalarlatu mailan, politika mailan etabar, egoera mende hasierakoa baino askoz hobea da. Baina kasik aldatu ez dena emakumearen irudi eta errepresentazioak dira. Modelo zaharrak hor daude beti, osasuntsu eta bizkor; horien arabera, emakumea ama, emaztea, maitalea, ohekidea edo neskamea da. Irudi sinbolikoak dira horiek, ez beti kontzienteak; baina gure kulturaren bideragailuek ondo baino hobeto finkatzen eta azkartzen dituzte, hasi erlijio, filosofia, literaturatik, eta berriagoak diren zinema eta bihotz-aldizkarietaraino. Horrela, emakumeek bere burua banatuta daukate egiazko biziaren eta tradiziozko arketipoen artean, eta benetako urradura jasan behar dute, txirripaz baizik ez delarik gertatzen errealitatea eta arketipoen arteko kointzidentzia: lehenari jarraituz gero, gehiengoaren gaitzespena jasotzeko arriskutan dira, bigarrenari jarraitzekotan, berriz, bere buruaren kontra ari direla somatuko dute. Eta horrelako dilemaren aurrean, zoritxarrez, irudi sozialarekin konformatzea hautatzen dute, usu.

Eragin handia daukate, beraz, irudimenezko modeloak, eta nere ustez haiek dituzte oztopatzen osterantzean senez-senezkoak diratekeen aldakuntzak. Garrantzitsuak diralakoan aztertu behar dugu zehazki zein diren delako irudiak.

Marilyn French-i jarraituz esan dezagun, patriarkadoaren pentsakeran, jendeen esperientziak eta jokaerak bi modelotan bereizten direla sexuen, edo hobeto esanda, generoen arabera: mutur batean esperientzia eta jokaera "maskulinoak" ditugu, bestean "femeninoak". Jokaera maskulinoak boterean oinarritzen dira eta hiltzeko ahalean dautza; esperientzia femeninoek bizia emateko ahalean dute bere funtsa. Ondorioz, kalitate maskulinoak eta femeninoak arrunt desberdinak eta kontrajarriak izaten dira: emakumeengan ontzat hartzen diren



joerak txartzat har daitezke gizonengan. Dikotomia honekin ados izan gabe ere, behar-beharrezkoa da hurbiletik ikertzea, ekartzen dituen asoziazio eta ondorioek mendebaldeko kultura kutsatu baitute milaka urtetan. Denbora berean, berriz azpimarratu behar dugu kategoria horiek sinboloak direla, irudimenaren mailakoak, ez dutela oinarririk jendeen egiazko jokaeretan; eta halere irudiek errealitatea garaitzen dutela maizetan.

Alta, egunero gezurtatzen ohi ditu esperientziak irudimenezko kategoriak. Seguraski denok ezagutzen ditugu kualitate "maskulinoak" dauzkaten emakumeak; eta orduan gure lehenbiziko oharra izango da emakume horiek "jokaera edo pentsakera maskulinoak dauzkatela", geure buruari galdegin gabe zergatik ote "maskulino" deitu behar diegun aztura horiei. Ageri-agerian denari begiak hersten dizkiogu, haren kontra ihardokitzen gara eta ez dugu onartu nahi; edota interpretazio manipulatuaren bidez aldarazten eta akomeatzen dugu esperientzia, gure aurriritzien moldeetan nahitaez koka dadin; orduan, Prokustoren ohe horretan sartzen ez den guztia arbuatzen dugu, nahiz eta egia nabaria izan. Izan ere, errealitatea higikorra eta lainotsua baita. Haren aldean, kategoriak argi, borobil eta distiratsu agertzen zaizkigu, arbasoek utzitako ondare bat bezala, mendeetan eta mendeetan zehar azkartuta, kulturak, erlijioak, politikak eta arteak bideratuta eta bermatuta. Eta, ekartzen dituzten menpekotasunaz eta zapalkuntzaz oharturik, kategoria horiek egotzen edo zalantzatan ezartzen ausartzen direnak, zentzunbakotzat edo histerikotzat hartzen ditugu. Generoetan finkatutako dikotomiak gure ikusmena eta gure ezagumena egituratzen ditu eta itsukeria bihurria eragiten du: uste ukaten duguna bakarrik ikustera eramaten baikaitu.

Eta, paradoxa badirudi ere, fenomeno hori gehiago ematen da hiriko jendarte alfabetatuetan, herri tradizioa azkar dagoen eremuetan eta baserrietan baino, erlijioak, ideologiak eta instituzio ofizialek indar gutxiago baitute azken hauetan. Azpimarratzeko da, bestalde, emakumeen zapalkuntza ez dela soilki gertatzen indar fisikoa bizitzeko ezinbesteko baldintza duten zibilizazioetan; alderantziz, "goien" omen diren zibilizazioetan aurkitzen dira, prezeski, gizonek emakumeen gainean daukaten nagusigoaren adibide maizenak eta sotilenak.

### **III. KOALITATE GENERODUNAK**

Zehatz dezagun zein diren koalitate "masculino" eta "femenino" horiek, French-en sailkapenaren arabera.

Kontrola, transzendentzia, beheko mundu honen gaitzespena adierazten dituztenak oro "maskulinoak" dira. Naturaren bilakaera aldakorrean egitura finko eta iraunkorrak ezartzen dituen printzipioa "maskulino" da (legea, prestigioa, ohitura), bai eta jabegoa, zilegitasuna eta urkoaren gaineko botereari doakiona ere.

Eta berdin ausardia, agresibitatea, indarra eta hiltzeko ahalaria lotzen zaion guztia. Iraupena eta ekturktura "maskulinoak" dira, esperientziaren jariotasuna eta aldakortasuna, kontrolatzen dituztelako. Kualitate horiek eta gizatasunaren arteko asoziazioa oso zaharra da seguraski; antzinako zibilizazioetan, laster hondatzen diren gauzak bakarrik ekoizten baitzituzketen emakumeek: saskiak, landatzeko makilak, zakuak, sareak, hariak, sokak. Gizonek, aldiz, harrizko tresnak –berez iraunkorrak– edota erritoetan erabiltzeko gauzak –artoski iraunaraztekoak– egiten bide zituzten.

Iraunkortasuna bilatzearen ondorioa da, dudarik gabe, hilezkortasunaren guraria. "Maskulinoak" izan behar du, beraz, ondoko belaunaldiek miretsiko duten zerbait egiteak: adibidez, liburuak, zubiak edota deituraren jarraipena segurtatuko duen dinastia bat sortzeko. Gizonek, nahiz eta haurrik ezin egin, beren aitatasuna finkatzeko kezka ukan dute aspalditik eta, horretarako bizia sortarazteko monopolioa eskuratzen saiatu izan dira. Jadanik Aristotelek esan zuen gizonak ezartzen duela hazia, haren gordelekua baizik ez delarik emakumea, lur nagia bezalako zerbait. Hirutasunaren misterioak bikain erakusten du ikuspegi hori: Aitak, bere hitzaz, Semea sortzen du eta, bien arteko amodioaz, Izpiritu Saindua ere sortzen da; ugalketa guzti hori arren artean gertatzen da, Ama Birjina jainkotasunik gabe eta sistematik kanpo utzita delarik, "ogi-labearen funtziora mugatuta", Frenc-en hitzetan. Geroago ikusiko dugun bezala, suaren sinbologiak ere biziki ongi adierazten du gizonek ernaile bakarra izateko egiten duten ametsa.

Irauteko xedetik hilezko izateko nahikundera eramaten du kristautasunak, baina hilezkortasuna beste munduko betikoeran kokatzen du. Hots, zeruko betikoerara iristeko obratu behar diren bertuteak –saindutasuna, aszetismoa, sexualitatea eragozte, gorputza mortifikatzea, hitz batez, natura gainditzea– "maskulinoak" dira, nahiz emakumeek ere praktikatzen dituzten. Animaliatasuna gainditzeko eta jendetasuna erdiesteko, kontrola ukan behar da, eta kontrolak naturaren aurka ihardutea esan nahi du. Jende izatera heltzeko baldintzak eta parametroak "maskulinoak" dira; horregatik ez dugu harritu behar gure espeziea izendatzeko "gizon" eta "giza-" hitzak erabiltzen direnean, eta jendetasuna adierazten duten kualitateak ere maskulinoak direnean: Paulin olerkariak dioen bezala, "Askatasuna.. da *anaia* hartze *giza* erara" (BBKren egutegia, 1992ko uztailaren 2ko orria).

Badirudi euskararen eremuan lerratze sexista diskriminatzailea egiten ari dela; gero eta gehiago entzun eta irakurtzen ditugu "seme" ("haur" adierazteko), "anaitasun" ("senidetasun" ordez, hitzaren zentzu propioan), "denok anaiak gara", "anaien arteko gerla" eta antzekoak; antzinako apezek "haurride (edo senide) maiteak" esaten zuten beren predikuak hastean" hizkuntza bederen ondo zekiten haiek. Orain, generoaz neutro diren hitz egoki horiek ez dira kasik erabiltzen, maskulinoek beren lekua hartu dietela. Eta horrelako gauzeekin, printzipioz

matxista ez zen hizkuntza, egunean-egunean emakumeen kontrako diskriminazio tresna bilakatzen ari zaigu.

Kontrolaren bidez, beraz, heltzen da jendeki edo pertsona izatera, banako izatera: abereak ez dira inoiz banakoak, espeziekideak baizik. Eta kontrola maskulinoa izanik, indibiduazioko printzipioa ere "maskulinoa" da, bai eta hark dakarren zeingehiagoko mentalitatea" ere: bizia borroka, lehiaketa eta helburua lortzeko lasterketa baizik ez dela baieztatzen du pentsakera "maskulinoak"; xede duin bakarra garaipena izanik, bidean gertatzen direnek ez dute balio handirik, helburuak soilki balio du. Lehiaketa horretan sarturik, gizabanakoak ez ditzake denborako garaiak dasta eta bizia goza: izena badu eta izana ere bai; aski zaio: gainerako guztia alferrikako huskeria da.

Indibiduazioko elementu garrantzitsua da izena. Berezkoa da emakumeei ukatzea. Erromatarren garaian emakumeek ez zeukaten izenik: jaio eta, aitarena eramaten zuten, genitibo posesiboan deklinatua; gero senarrarena, modu berean; horrela beti norbaiten gauza ziren. Gaur egun ere emakume asko pozik da "Señora de..." esaten diotenean. Frantzia aldean okerrago da: legearen arabera edonoren deitura, gizon zein emakumearena, patronimikoa da; baina, ohituraz, emazteak berea galtzen du ezkontzean senarrarena hartzeko, eta senarraren deiturarekin azalduko da nortasun-agirian ere; legalki, emazteak bere sortze-deitura ("non de jeune fille", esaten diote) atxikitzeko eskubide teorikoa badu, baina, eskubide hori gauzatzeko, esplizituki eskatu behar du bere paperak egiterakoan, eta askotan funtzionarioek oztopo guztiak ezartzen dituzte, harik eta etsiarazi arte. Frantziakoa baino okerragoa ere bada: Alemanian, oraintsu arte bederen, emaztearen deitura legala, posible bakarra beraz, senarrarena da, eta kitto. Argi da, izena eta hark dakarren identitatea, indibiduazioa, "maskulinoak" dira.

Baina zehatz ditzagun laburki ezaugarri "maskulino" guzti horiek dakartzaten ondorio nagusiak: jendekia izateko markak indibidualitatea, transzendentzia eta kontrola direnez gero, gizakiak bakarrik dira jende, horiek bakarrik betetzen baitituzte beharrezko baldintzak. Eta edozein kontrol-falta gaitzestekoa da, gizonezkoa ez delako. Egia da hierarkiak behartzen duela batzuetan gizon bat beste baten kontrolpean egotera, eta hori onartzen dute. Baina onartzen ez dutena emakume baten pean egotea da, kontra-natura edo delakoan. Kontrola ezinbestekotzat jotzen dute gizonek emakumeekiko harremanetan bereziki. Ez da harrigarria, orduan, sexualitatea, kode maskulinoaren arabera, kontrol-modu bilakatua izatea: bortxaketa, jabegoa ("Sra. de...") edo erosketa (prostituzioa).

Koalitate "maskulino"ekikoaren kontrarioa gertatzen da "femenino"ak deitzen direnekin; lehenak jendetasunaren marka baldin badira, bigarrenak, naturari lotuak direlako, ezin omen dute maila hori lortu. Jariotasuna,

iragankortasuna, malgutasuna adierazten dituzte eta, patriarkadoaren testuinguruan ahuleziazat hartzen dira askotan. Ugaltasunarekin, sexuarekin eta haragiarekin lotuta agertzen dira alde batetik; eta horren bitartez plazerrari, sentsibilitateai, urrikariari, elkartasunari, haurridetasunari, bere buruaren emateari ere egokitzen zaizkie. Maitasuna, tristura, etsipena "femeninoak" dira. Bai eta, noski, ez-kontrola suposatzen dutenak ere, hala nola neurrigabeko haserreak, sumindurak eta umore aldakorrak. Sen-falta hori dela eta, emakumeok moralaren zentzurik ez omen dugu; Freud-ek oso ongi esplikatzen du zergatia: emakumeek, amarenganako amodio aurreedipotarrari atxikiak direnez gero, ez dute kastrazioaren ikara bizitzen, ez dute beren Edipo konplexua behar bezala trenkatzen, ez daukate behar bezalako super-egoa lortzen eta, ondorioz, ez dituzte justizia eta legeak behar bezala barneratzen. Mutilek bai. Mutilak jolasten direnean, jokoaren legeak onartzen dituzte, haien pean ibiltzen dira, Piaget-en ustez. Neskatilek, aldiz, gustoko ez dituzten araudiak bazter uzten dituzte eta jostaketa aberasteko ontzat dauzkatenak baizik ez dituzte obratzen; nagusi egindakoan ere, ez dute behar bezala legalitatea errespetatzen, eta hortik omen datorkie moral-zentzuaren falta. Nabari da iritzi hauetan legalitatea eta etika nahastekatuak direla, eta hartatik ateratako argudioa lotsarik gabe emakumeen kalterako erabiltzen dela.

Labur biltzeko, esperientzia "femeninoak", zaluak eta malguak dira: jolasmena, irudimena, berezkotasuna adierazten dituzte. Printzipio "femeninoak" biziaren aldekoak dira, "maskulinoak" zibilizazioen aldekoak.

Adimenaren aldetik ere badira generoen araberako modelo kontrajarriak. Gizonak razionalak, logikoak, arrazoinamendu zuzenezkoak, selektiboak dira. Emakumeek sekulako intuizioa daukate (zenbat aldiz ez dugun horrelakorik entzun!), eta hori jaiotzetiko koalitate da, lantzen ez direnetakoa; gure pentsakera zirkularra da, asoziatiboa. Mundua ulertzeko ez omen dugu buru argiak izateko beharrik ere, aski zaigu bihotza... Guzti horregatik, menturaz, artista zenbaiti biziki laket zaio emakumeak bururik gabe irudikatzea (Giacometti, Brassai...).

Pentsa liteke dikotomia hori gauza ona dela, haren bi terminoak elkarren osagarri izanik bakoitzak bere moduko ontasuna duela, eta ondo dela horrela, denetarik behar baita mundua eratzeko. Baina zoritxarrez ez da hala, pentsamolde patriarkalaren ustez printzipio femeninoak gaitzaz ernalduak baitira bere barruan: bikoitzak dira, bi atal dituzte, bata onetsia eta gaitzetsia bestea. Emakume onetsiak interes gabeko maitasunez eta sakrifizioz gidatzen dira; gaitzetsiak aberekerian eta txarkerian erortzen dira, gizonen kontrola mehatxatzen eta iraultzen dute, gainbeheratzen. Emakumeak, onak direnean jendez gaidikoak dira, txarrak direnean jendez azpikoak. Horregatik, kontrola eta boterea dauzkaten gizonak bereziki goraiptatzen baditu historiak (aberatsak, konkistatzaileak, ideologo ospetsuak), emakume idealak gizonaren lagun apal eta fidelak izaten dira (Ester, Maria), beren seme heroikoen sustengu sakrifikatuak (Kornelia), edo bortxaketaren

desohorea (bere ala senarrarena?) jasan baino lehenago bere burua hiltzea hautatzen dutenak (Lukrezia). Osterantzean, politikan sarturik efikazak direnean, irrazionaltasunaren bizkar ematen da haien arrakasta (Pasionaria deitzen zaie). Askoz maizagotan jendaki guztien galtzaile izaten dira (Eba, Pandora); non ez diren emagaldurik berekoiak eta sorgin beldurgarriak, Eneidako Dido edo furiak bezala.

Zibilizazio kristauek arartekoa da emakumea, gizona eta naturaren artean, edota gizonaren eta jainkozkoaren artean du bere lekua: esan nahi baita, deabruaren pertsonifikazio eta gizonaren galtzailea ez denean, etxeko aingeru eta gizonaren salbazioa dela. Baina beti jendetasunetik kanpokoa.

#### **IV. EMAKUMEA BETI AZPIAN**

Funtsean hori da arazoa, balore-sistema dikotomiko honetan termino bat goretsia dela eta bestea gutietsia. Geroago saiatuko gara horren zergatia aztertzen, orain bakarrik zehaztu nola gauzatzen den emakumeek jasaten dugun gaitzespena.

Elizaren ikuspegi tradizionaletik, emakumea beti gizona baino gutxiago izan da. Jon Done Paulok dio (Korintoarrei, I, 11) gizona Jainkoaren irudi eta loria dela, emakumea bakarrik gizonaren irudia eta loria delarik; gizona ez da emakumearentzat, baina bai emakumea gizonarentzat, horregatik emakumeak bere burua estali behar du, menpekotasunaren seinale gisa: Paulo ez zen ausartu guri burua kentzen, bakarrik izkututzen; horregatik dateke Pierre bezain saindu.

San Agustinen iritziz gizonaren gorputza emaztearena baino goragokoa da, arima gorpua baino goragokoa den bezala (Contra Mendacium, 7, 10). Konparazio honetan lehenago aipatu transzendentzia goresten du Eliz aitag; berdenborak, goitasunaren eta arimaren balioa azaltzen digu, behekotasuna eta gorputza hobeto gutiesteko; baina parametro horiek geroago aztertuko ditugu. Emakumea naturari, ugaltzeari eta sexuari lotua delako, sexualitatea zerbait lohia eta bekatuzkoa da.

Izan ere ez da oso argia zein den pekatuaren sorburua, sexua ala emaztea. Axularrek aipatzen dituen bi kasuren arabera, badirudi gaitza emakumetik heldu dela eta handik sexualitatera zabaldu: "Ziro enperadore handi hura, hain itsutu eta ergeldu zuen Apama bere amoranteak, non hartaz nahi zuen guztia egiten baitzuen. Alde batetik, eta bertzetik belarriondoka ari zitzaion, batean bizarra, bertzean belarriak tiratzen zizkion: haur batekin bezala, harekin jostatzen zen". Egoera hori katastrofe itzela zen, hona zergatik: "Amorantea zen nagusi, no zen tho, emaztea gizon, oilloa oillar. Gizona delarik ordenatua, emaztearen iaun eta nabusi izaiteko, guztiarekin ere, amorioitsuak, haragiaren aphetitu desordenatuak, hausten du ordenantza hau: gizona egiten du emaztearen muthil eta azpiko. Ezta gauza

preziatuagorik libertatea eta nabusitasuna (gizonarena, bistan da) den baino", dio gure klasiko nazionalak, zeharo nahigabeturik. Eta hori bakarrik balitz!. Asiriarren erregea Semiramis erreginaren amodio bero itsuaz galdu zen: emakume horrek, maliziaz, agintea lortu zuen bost eguneko erregearen eskutik eta horretaz baliaturik lepoa moztarazi zion; eta horrela bera geratu zen Semiramis errege eta erregina. "Ikusazu zer egiten duen emazteak eta emaztetako amorio desordenatuak" (Gero, XXXI, 1-2). Irudiz, emakumeak edozein aginte ukaitea kontraturakoa da, beti baitarabil buruan gizona nola gal. Horretarako duen arma hauta sexualitatea da, eta gogotik erabiltzen du, zeren eta emakume guztiak beti haragizko bekatua egiteko prest baitira, "illa est casta, quam nemo regavit (Ovid.): Nehork orhoitu, eta othoiztu eztena, da casta, garbi eta prestu" (ibid. XXXII). Errealitate ikaragarri horren aurrean, zer egin lezakete gizon sainduak emakumearen sareetan erori eta? Axularrek bi perla paregabe aukeratu ditu, onbidea erakusteko: "Frai Ioan Guerin, hain saindu handiaren fama zegoan hark ere, Guifrapelos Barzelonako Kondearen alaba... gorputzez izan zuenean hil arazi zuen. Hola gerthatu zeikan Iondone Iakue penitentzialesa deitzen zuten hari ere... hainbat penitentzia eginez geroz, azkenean hain itsuski erori zen, non sendatzeko ekharri zeraukaten neskato bati bere ona galarazi bait zeraukan, eta gero azkenean bere bekatua estaltzeagatik, ura behera egotzi bait zuen" (ibid. XXXIII). Zilegi da galdegitea zergatik saindu horiek, beren bekatua garbitzeko, pekataria (bere burua) garbitu ordez, bere kidea hil zuten. Erantzuna erraza da: hobenduna emakumea da beti, bera baita bekatuaren pertsonifikazioa; eta pekatua akabatzea ez da bekatu.

Sexualitatean ere mailak baitira: egiazko sexualitate zikina emakumearena da. Gizonarena baliostatua, edo behintzat justifikatua da, boterearen adierazpena eta kontrol-tresna den neurrian. Txantxetako esakerek adierazten dute ederto kontrolak konnotazio falikoa duela: beti zentsuratzen ibiltzen diren gizonen, pitilinen lekuan boligrafo gorria daukatela esaten zaie.

Ez dugu harritu behar bi sexualitateei ez bazaie berdin begiratzen eta berdinean epaitzen. Bi neurritako printzipio hori kontzientzia lasai eta gorritu gabe gauzatzen du hainbat gizonen: sexualitate maskulinoa, kriminala delarik ere, inozentea eta baikorra da. Ilustrazio gisa, hona zer entzun nion 1968 inguruan, euskal gudari bati; mutiko hark esplikatzen zuen herria ez zela beti prest iraultza egiteko, eta orduan iraultzailearen eginkizuna bortzatzailearena bezalakoa zela, hau da, antzu nahi izan duen emakume bat bortxaz ernalaraztea. Bistan da, lan hori oso txalogarria zen haren ustez. Eta nola uler daiteke astakeria hori justifikatu izana? Seguraski bi arrazoirengatik: bortxaketa sinboliko hark gizonaren ahalmen ernatzailea erakusten zuen alde batetik eta, bigarrenik, boterea eta kontrola gauzatzen zituen. Gizonen edozein eginkizun sexual zurrizko joera bada oraindik gure zibilizazioan: askotan, bortxaketetako auzietan epaileek ez dute inongo lotsarik emakumearen erantzunkizuna azpimarratzeko, probokatzaileak direla esanez.

Emakumeak sortzen duen mesfidantza horren mamian odol menstrualak –odol sexualak– aurkitzen dugu maiz. Odol hori oso langerosa da, gizonentzat bereziki. Gure artean haren malefizioa doi bat ahuldu da: hilekoarekin dagoen emakumeak maionesa bihurtaraz dezake, besterik gabe gehienetan. Baina oraindiok leku zenbaitetan, Aiarako Luxaondon adibidez, txerria hiltzeko eguna azken momentuan aldatzen dute, lukainkak egin behar dituen emakumea erreglekin baldin bada. Eta Verdier-ek inkestatu duen eskualdean, Bourgogne-n, odol horren botereak izugarriagoak ziren: etxeko gatzategian sartzea galarazten zieten horrelako emakumeei, ustelaraziko zutelakoan hango txerriki guztia, urte osoko janaria. Jendarte arkaiko zenbaitetan gizonak ikaratuta daude hileko odolek duen indarraren aurrean, eta emakumeek beren menpekotasunaren mendekatzeko erabiliko ote duten beldur ibiltzen dira usu; egun horietan. Menstruazioari buruzko horrelako sineskerak unibertsalak direla esan daiteke: Frazer-ek (1984: 50-62), hamabi orrialdetan deskribitzen ditu mundu osoan zehar aurkitu dituenak: Australian, Ginea Berrian, Hego Afrikan, Erdialdeko Afrikan, Mendebaldeko Afrikan, Ekialdeko Afrikan, Mesopotamian, Israelen, Sirian, Amazonian, Ertamerikan, Iparramerikan, Kanadan eta European.

Gure herrian gaur egun ere entzuten da hileko odola gorputzeko zikina dela, kanporatu beharrekoa, osterantzean kaltegarria dela barnean. Islamdarrentzat odol menstrualak egoera likits eta inpurua eragiten du; gudarien odola, alderantziz, purifikatzailea da, eta horregatik gerlan eroritakoen gorpuak ez dira garbitu behar ehortzi antzin, besteekin egiten den bezala. Haur ukaiteak ere likistasuna dakar, juduen ustez. Kristaudentzat berdin: Andra Marik bezala, ama berriak elizan otoitz egin behar du purifikatua izateko. Errito horri "elizan sartzea" deitzen zaio, eta erdaraz "la salida". Lekunberrik dioen bezala, badirudi Elizaren aurrean emakumea dela bekatu originalaren erantzule bakarra, haren lohitasuna karreatzen duena. Iparraldeko bertsolari baten amatxiri apaizak azken sakramentuak ukatu zizkion "elizan sartze" hori behin egin ez zuelako.

Emakumearen gaitzestea eta, batez ere, emakume-askapenaren beldurra, gure inguruan egunero egiaztatzen ahal dugun sentimendua da. Itxuraz, gure burujabetasunak familia osoaren etorkizuna mehatxatzen du, jendarteko eta elkarbizitzako zutabeen gainbeherakada ekar lezakeelarik. Iaz, *Argia* astekariko eskutitzean (1991-4-28), irakurle batek halako beldurra azaltzen zuen, "emakumeak hainbeste ateratzeak zer ekarri behar digun ... suarekin jolasten ari gara"; eta, bere kezka justifikatzeko, emakumeak gutiesteko maizetan egin ohi diren asoziazio sinbolikoak erabili zituen: "Inora begiratuta ere sistema berdintsua ikusten dugu: gizona gainean, emakumea azpian". San Agustinek aipatzen zituen goratasun eta beheratasunaren kontu berak.

Gehienetan, sotilagoak izaten dira alderaketak. *Euskaldunon Egunkarian* (1992-4-30), hizkuntzaren sexismoari buruzko polemikako partaide batek, gizona

egunari eta emakumea gauari konparatu dizkie. Orain arte azaldu dugun hainbat lotura sinboliko bezala, hau ere ez da berria, ez eta inozentea ere, eta bai oso esankorra. Gaua biziki gauza ona izan daiteke baina, gure kulturaren bederen, eguna hobe da, omen, eta esakera zaharrak horrela dio, esan ere: "Batziek diote: "Zer gau ederra!" Baina ez da gaurik eguna bezain ederrik". Gauarekin alderatzea, beraz, ez da gauza neutrala, sententzia jaurtitzea baino: "Ez da emakumerik gizona bezain ederrik". Eta edertasun hori morala dateke, gainera...

Euskal Herrian, ama bide da pertsonaia goraipatuena: bertsolariak hitzetik hortzera erabiltzen dute gai hori, laudorioz. Ohore guztiak merezi izaten ditu amak –nahiz eta denbora berean purifikatzeko beharra duen– bizi-emailea delako. Baina merezimendu hori ere kentzen diote hainbatetan. Europa guztian bezala, gurean ere Greziako pentsaerak eragin handia du kultura mailan. Hots, Eskiloren ustez, haurraren egiazko gurasoa aita da, eta ama bakarrik fetoaren ontzia; eta Aristotele iritzi berekoa zen.

Idea horrek luzez irau du, besteak beste suaren inguruan sortzen diren irudien bitartez. Jakina da suak printzipio maskulinoaren esanahia duela maiz. Horrelakoa da Izpiritu Sainduak hartzen duen gar-itxura. Romulo eta Remoren aita ere suaren izpiritua izan zen, Frazer-ek azaldu legenda batean. Eta Donibaneko suen errautsak soroetan emanda, lurraren emankortasuna eragiten badu, suaren ernal-ahalmenari esker da, Bachelard-en ustez. Epistemologo horren analisiaren arabera, sua gizonaren sexualitate eta haziari lotua ohi da eta, orduan, balio baikor handia eta eztabaida ezina hartzen du: XVII eta XVIII. mendeetako idazle zientziazaleek "su seminal" aipatzen zuten. Su hori ez da materia, baina *printzipio arra* (zerbait espiritualagoa, dudarik gabe), *materia emearen* eratzaila. Dituen kualitateak indarra, ausardia, garra eta gizontasuna dira. Haren aldean materia femeninoa den ura, hotza, bustia, koipeztoa, likitsua eta iluna da. XVII. mendeko idazle batek esplikatzen du zergatik sortzen diren arrak eta emeak: giza hazia arra da berez, baina ernalketa unean matrizen ezkerrean joaten bada, alderdi hori hotza delako, eme bilakatzen da; alderantziz, eskuinera joaten den haziak ar bat sortarazten du (ez dugu gogorarazi behar gure kulturaren eskuinak duen konnotazio baikorra). Beste idazle baten arabera (beti Bachelard-ek aipatua) emakumearen obarioa kandela itzalia edo ardagaia bezalakoa da, suaren izpirituaren zain dagoena, piztu ahal izateko. Gizona da baitezpadako eta benetako bizi-emailea.

Orain ahanzita gaudela halako ideiekin dio Bachelard-ek bereziki bere formulazio erridikuluenekin, azpikontzientean bakarrik dirautela bizirik, sinbolo gisa. Baina, hain zuzen, inkontzienteak izanagatik ez dira gutxiago eraginkorrak. Gure herrian hasteko: "El poder creativo reside, en la cultura popular, en el semen del hombre, lo cual lo hace invulnerable. En el caso de que ése falle, no puede ser debido más que al mal funcionamiento del organismo femenino, que aparece como una mala tierra que no ha podido fecundar la semilla creadora. El hombre, como



agente principal de la creación de la vida, vé reforzado su poder cuando el nuevo ser que ha nacido puede ser a su vez representante y regenerador de fuerza y de futuro. Así, el poder del semen generador se refuerza en el caso de que la criatura que ha nacido sea varón. Según esto, la maternidad aparece como una expresión del poder mediador que desaparece en el caso de que no consiga que su mediación produzca los efectos positivos esperados." (Valle, 1985: 187). Honetan ere, txisteetan agertarazten dute belarri-puntu horrelako sineskerak. Iparraldean azken honetan egiten ziren irri-gauetan, hauxe kontatzen zuten: Gizon bat maternidadean. Medikua zorionak ematera etorri zaio, emazteak bizkiak ukan baititu. "Hauxe da tximinia ona nerea, hauxe da, bai! harri batez bi txori!" eta hola jo-ta-ke gizona, bere tximinia gorai patzen. Azkenean medikuak esan dio: "Bai, oso ona zure tximinia, baina noizbeinka garbitu behar zenuke, haurrak beltz-beltzak atera dira eta!". Ez da bakarrik tximiniaren sinboloa, beltzaren gutiester ere aurkitzen dugu istorio honetan, zikinari parekatua, doinu arrazista doi batekin.

Giza errial-endarraz gain, araztasuna ere sinbolizatzen du suak, eta eginkizun horretan biltzen duen balioztapenak gizontasunari ematen dio, haren baikortasuna azkartuz.

Suaren aurrean paratzen denean, ezinbestekoa da uraren emakumetasuna. Sinbologia hori ez omen da batere aldatu gaur egunean, eta oraingo bikoteek etxeko lanak banatzen dituztenean ere, emakumeak omen dauka beti arropa ikuzteko ardura (Kaufmann). Eta urak Heraklitok eman zion esanahiaren zama daroa: itzuli ezinezko iragatea, heriotzera daraman ibilbidea, hain zuzen. Berriz ere, sinbolo maskulinoen aldean, femeninoak galtzaile.

Beren generoen arabera onetsiak edo gutiatsiak diren sinboloen zerrenda ez da hemen agortzen, inondik ere, baina nonbait amaitu behar da. Bakarrik ilargiarena gaineratuko dugu, hura ere ez baita beti gure alde: Caro Baroja, sorginei buruzko azterketan, emakume, gau, eta ilargiaren arteko kideetasunaz mintzo da; mendeetan iraun duen irudi-multzoa da hori. Eta ez dugu gure burua engainatu behar: orain sorginak modan badira ere, euskal ahozko tradizioan gaiztoak izaten dira.

## V. SINBOLOEN JOKAERA

Ikusiak ikusi, ez da dudarik gizonei lotzen zaizkion koalitateak emakumeenak baino balietsiagoak direla gure inguruko jendarteetan. Horri buruz zalantzarik gelditzen bazaigu, egin dezagun froga bat: ea zer den irain handiagoa, emakume bati gizamoldeak dituela esatea, ala gizon bati emakume-moldeak dituela. Erantzunaren aurrean beste bi galdera egin dezakegu:

bat, zergatik koalitate-multzo bat besteari nagusitzen zaion; bi, zergatik koalitate-multzo nagusi horri "maskulino" adjektiboa ematen zaion eta besteari "femenino" a.

Bi galderei ihardesteko ez diogu arazoari bere alderdi soziologikotik begiratu, orain arte egin bezala, eta beste muturretik eutsiko diogu, sinboloen iharduera aldetik. Mutur hori ez da kronologikoki lehena asuntu honetan arraultza eta oiloa berdin garrantzitsuak dira, baina metodologikoki nonbait bilatu behar ditugu erroak. Sinboloen azterketa egingo dugu, beraz, haien loturetan eta haien motibazioetan, zergatik diren hain efikazak eta hain atxikiak.

Abiapuntu axiomatiko gisa, sistema dikotomikoaren existentzia onartuko dugu, jadanik soziologikoki aipaturiko koalitateetan bezala, sinboloen sailkapenean ere. Horretarako Gilbert Durand-en lana erabiliko dugu gehienbat. Haren ikerketek abantaila handia dute guretzat, sinboloak multzoka aztertzen dituelako, elkarrekin osatzen duten konstelazioen barnean. Sinbolo baliokideen multzoak dira delako konstelazioak, eta kontestu sinboliko horiexek ematen diote sinbolo bakoitzari bere baikortasuna ala bere ezkortasuna. Arestian aipatu dugun urak, adibidez, balio ezkorra ukanen du heriotza irudikatzen duen konstelazioan (edo testuinguruan) kokatua denean, beste konstelazio batean. Alderantziz, konstelazio-kide diren sinboloek oso balio antzekoa ukanen dute, nahiz eta gauza oso desberdinek irudikatuak izan, hala nola harpea eta sabela. Sinboloen multzoak, eta oro har itxurapen guztiak, bi sail handitan banatzen ditu Durand-ek, eta hori irudimenak erabiltzeko dituen bi manera edo "erregimen" en arabera: "eguneko erregimena" eta "gaueko erregimena". Esan daiteke, orokorki, egunekoak koalitate "maskulinoak" baliesten dituela, gauekoak "femeninoak". Bistan da, erregimenak kontrajarriak dira nolabait, batek gaitzesten duena besteak ones baitezake, eta alderantziz. Baina esan behar da, egoera normal eta orekatuan, bietan iharduten duela irudimenak, banakoak zein kolektiboak. Halere, sistema jakin batean bi erregimenetarik batek hartzen ohi du nagusigoa bestearen gainean.

Sinbolizatze beharra, heriotzaren kontzientziatik heldu omen zaigu; edo zehazkiago, baitezpada heriotzara eramaten gaituen denboraren iragatearen kontzientziatik. Animalien artean jendeek bakarrik dugu kontzientzia hori, gure ezaugarri espezifikoa da sinbolizatzea, funtzio antropologikoa. Izua uxatzeko, edo behintzat kontrolatzeko eta hezteko balio du sinboloak: formulatua denak bere misterio zerbait galtzen du, ezagunago egiten zaigu eta, ondorioz, lasaiago begiratzen diogu.

Heriotzaren ikaratik abiatzen dela eta funtzio hori, lehen-lehenik denboraren beldurra irudikatzen duten sinboloetatik hasiko dugu haien analisia.

## V.1. Irudimenaren eguneko erregimena.

V.1.A. *Ikus dezagun lehenik nolakoak diren denboraren aurpegi beldurgarria adierazten duten sinboloak.*

Haurrak jasaten dituen lehen sofrikarioak, sortzea bera eta titia kentzea, aldakuntzak dira. Dirudienez, denboraren lehen esperientzia aldakuntza da, batik bat espazioan egiten dena, hau da: mugimendua. Aldakuntza arritmiko eta kaotikoek, higidurek eta inurridurek sortarazten dituzten grina eta durduza horrela uler daitezke. Kaosaren eta infernuaren irudiak ez dira sekula estatikoak, higikorrak baino. Mugimendu kezagarri horiek izaki animatuekin, abereekin zehazkiago, lotzen ditu haurrak. Ondorioz, abere itxurazkoak (**teriomorfoak**) izango dira denbora iragatearen angustiatik sortutako sinboloak; aberea da, irudimenarentzat, berez higitzen eta ibiltzen dena, ihesi doana eta harrapaezina dena: infernuko zaldi beltza, adibidez. Horrez gain, abereek beste ezaugarri batzuk ere badituzte: karrazkatu, horzkatu eta irentsi egiten dute, eta orduan haien itxura mugikorra agresibitate bilakaten da, denboraren ausikia sinbolizatzeko. Eta denbora bezala, otsoaren eta tartaroaren tripazorro eta ahutz zabalak ez dira inoiz asetzen, beti gehiago irensteko gertu dira. Labur esateko, Kronos irudikatzen dutelako heldu dira abereak Tanatos-en sinbolo izatera.

Gauak eta ilunak abereen eginkizun irudikatzaile bera betetzen dute. Sinbolo *niktomorfo* horiek ere oso balio ezkorra dutela ez da demostratu beharra, haur guztiek –eta nagusi askok– egiten duen esperientzia unibersala baita ilunaren beldurra. Izan ere, beste ikuspide batetik gauak badu zerikusi handia denboraren joatearekin: egutegi zaharrenek gauak dituzte zenbatzen eta ez egunak; urrun joan gabe, guk geuk "gaur" esaten dugu, gauden eguna adierazteko; eta hogeitamar eguneko epeari "hila" deitzen diogu, nabariki agertuz denboraren kontaktak zein harreman zuzena duen ilargiarekin, gauarekin eta heriotzarekin.

Gauarekin estuki lotua da uraren sinbologia ezkorra. Itsasoa ilargiaren joan-etorriei jarraitzen zaie, eta horrela gauaren konstelazioan sartzen da ura, denboraren kontaktarekin batera. Eta hori aski ez balitz, ibaietako uraren joateak heriotzaren ezinbestekoa gogorarazten du.

Ilargia eta uraren bidez seguraski, emakumea ere sartzen zaigu sinbolo-multzo zabal horretan; haren ikuspuntutik, beraz, ilargia, ura, emakumea, odola, sexualitatea, padura, lohia etabar elkarren lagunak dira irudimenarentzat. Herensugearen arketipoak ur ilun, zingira eta abere ireslearen ikara biltzen ditu bere baitan. Bere adats luzearen uhainek lotzen dute emakumea urarekin, eta hileko odol jarioak gauarekin, ilargiaren bitartez dudarik gabe: izan ere, egutegien oinarria den ilargi-zikloak eta hilekoak parekoak baitira: emakumea eta sexualitatea ilargiari eta denborari asoziatuak izatetik heldu da irudimenaren

misoginia, Durand-en ustez. Testuinguru horretan oso bide laburra da odolezko mantxatik hoben moralera doana, eta irudimenak laster egingo du, erorketaraino eramanez.

Sinboloen hirugarren kategoria handia erorketa irudikatzen dutenak osatzen dute (**katamorfoak** deitzen zaie). Ibiltzen ikasten duenean, grabitatearen kontzientzia hartzen du umeak, bere helburua tratatzen diola. Erorketa, mugimendu lasterra izanik, aldakuntza bortitzaren esperientziaren barrenean kokatzen da. Hots erorketak beherantz eta lurrerantz egiten dira halabeharrez eta, maizetan zulo batera buruz; horrek badu zerikusi handia leize beltzarekin, iluntasunarekin. Leizearen itxuraren gainean abere irense eta monstrooen ahutz ilunaren ikara txertatzen da; eta haien zorro digestiboak sabelera eroaten gaitu, eme-sabelera, noski: horrela emakumea eta erorketa betirako identifikatuta geratu dira.

Harreman estu hori tradizio judutarrean agertzen zaigu du ezin argikiago. Aingeru gaiztoak, gizonen alabek liluraturik jainkoaren aurka jazarri ziren, baizik eta lurrera jaitsi behar zutelako: infernuko leizera egotzi zituen Mikael goianingeruak. Adan eta Ebaren erorketan badakigu zein den emakumearen eginkizuna eta horretaz egin den interpretazio sexuala. Bibliako kulturetan, sexua, hilkortasuna eta infernua hertsiki elkartuak dira. Baina heriotzaren sexualizazioko bidean heriotza eufemizatze saioa aurkitzen da jadanik; horixe da irudimenaren gaueko erregimenak sakondu eta bururaino erabiliko duen baliabidea, hil-beldurra hezteko, geroxeago ikusiko dugun legez: hiltzeak eta denboraren iragateak sortarazten duten kezka larria, arazo sexual bilakatzearekin batera, arindu egiten da nolabait. Hartarantz abiatu aitzin, ikus dezagun zein diren egunaren erregimenak proposatzen duen defentsa-sistema.

V.1.B. *Denboraren monstren kontrako borroka*. Denboraren ikara sinboloen bidez itxuratzea nolabait haren kontrako erremedioa ekoiztea da. Irudimena, monstroak eratzearekin batera, haien kontrako armak zorrotzen hasi da; arma sinbolikoak, bistan da, eta arerio bakoitzari moldatuak, edo hobe esanda, haien kontrako egokituak.

Lehen arma-motak **gorantzako** eskemaren inguruan eraikiak dira, sinbolo bertikalek osatua. Bachelard-en arabera, bertikalitateak baliostapena darama beti aldean, ezin dira bata bestetik bereiztu, bien areko loturak "metafora axiomatikoak" baitira. Nondik heldu zaie baitezpadako lotura hori? Beharbada jendekiak daukan ezaugarri zenbaitetik: zutik egotea gure espeziearen marka da eta, maila fisiologikoan ere, egoera ortogonalak erreflexu garrantzitsuenak manatzen dituelako. Delako metafora axiomatikoaren artean sartu behar ditugu zerurantz joaten diren irudiak: mendi gailurrak, dorreak, geziak, zutarriak, buruak eta irudi falikoak alde batetik; eta bestetik, izaki zerutarrak, hala nola hegaztiak eta

hegaldunak oro, bereziki haien arketipoa den aingerua. Izaki eta gauza guzti horien kualitate morala araztasuna da, zikina erorketarena den bezala. Sail honetako sinboloetan konnotazio militarra agertzen da usu, horrela gertatzen da ezpataren sinboloetan, adibidez; eta ezpatak botere, subiranotasunera, erregetzara eta antzekoetara eramaten gaitu; handik, berriz, bidea markatua da jainkoarenganaino eta harek lurrean dituen ordezkarietaraino: partriarkatu, erregetza, falokrazia eta gizonaren botereraino.

Sinbolo bakoitzetik beste batera joan gaitezke. Ezpatatik abiatuz justiziarantz jo dezakegu, edo haren agresibitatea kodifikatzen duen legetarantz. Burutik abiatzen bagara, aldiz, buruzagitzara eta berriz ere botere militarra iritsiko gara; baina buru beretik beste bide bat hartuz geroz, gorputz-atal hartan kokatzen den adimen razionalera, pentsakera zuzenera joango gara.

Jende adimentsua "argia" dela esaten da. **Argia** da, hain zuzen beste sinbolo-multzo baten ardatza. Eguzkia da konstelazio horretako erregea eta haren inguruan araztasuna aurkitzen dugu berriro, bai zuritasuna eta jainkotza ere. Maizetan ikusmenaren eta begiaren itxura hartzen du jainkoak: orduan guztiz jakintsua da, dena du ikusten, dena kontrolatzen eta, bidebatez, moralaren zaintzaile eta lege-emaile bilakatzen da jainko hori. Hitzak ere badu parte ikusmenaren ahaltasunean, eta horretaz horniturik agertzen zaigu Jon Donibaneren ebanjelioan argiarekin parekatua baita. Formula magiko-sakratuetan ere berdin nabari dira elearen indarra eta botere exorzitzailea, eta haietan prezeski datza haren efikazia.

Sinbolo **diaretikoek** (bereizleek) osatzen dute hirugarren multzoa. Goratasuna eta argia erorketa eta ilunaren antitesiak direla ikusi dugu; arma haiek duten asmo polemikoa oraindik markatuagoa da sinbolo diaretikoetan. Horietan, argia ihurtzuri suntsitzaile bilakatuko da, eta goian dagoen buruzagiak behekoen zanpatzailearen eginkizuna beteko du. Eguzki heroia, bere aingerutasuna galdu gabe, gperlari bihurtuko da, hala nola Jondone arma distiratsuetan, bertikalitatea eta birilitatea atzematen ahal ditugu; baina haien lehen eginkizuna bereizketa egitea da, ona txarretik banatzea: esan nahi baita ebakitzea eta epaitzea, ere, nahiz eta ez beti tresna zorrotzak erabili eta beste hainbat lanabes baliatu: ilemozte, bipilte, zirkuntzizio, bataio edo yogaren xedea garbitzea da, animaletasunetik aldentzea, naturatik urruntzea; haizto, ur garbi, su edo airearen bitartez egiten dira, eguneko erregimenak hain begiko dituen tresna sinbolikoen bidez.

Ohartu behar dugu multzo bereko sinbolo hauek, desberdinak izanik ere, nahikoa isomorfoak direla, oso baliokideak direla: goratasunak, argiak, bereizketak esanahi oso antzekoa daukate, eta elkarren ondoan edo lotuta agertzen direnean are azkarragoa eta markatuagoa egiten da balio hori. Halaber ikusi dugu elementu zenbait ez direla bakarrik azpimultzo batean aurkitzen, bitan edo hirutan baizik,

polisemikoak direlako (araztasuna, esate baterako, bertikaltasunaren, argiaren eta diairesiaren multzoetan koka daiteke). Dena den, azpimarratu behar da eguneko erregimen guztiaren funtsa antitesia eta diairesia direla, asmo orokor horien izakera zehatzak hauexek diratekelarik: hobeto ikustea, kontrolatzea eta nagusitzea, hots analizatzearen eta goratzearen helburuak. Bereiztearen obsesioa, razionalismo analitikoa edo espiritualismoa, sinbolo-konstelazio bereko elementuak dirateke.

Ikuspide horretatik, zientzilarien jarrera objektibatzailea ere irudimenaren erregimen baten ondorioa da. Baina haiek ez dute onartuko...

## V.2. Irudimenaren gaueko erregimena.

Erregimen honen ibilmoldea egunekoaren estrategiatik oso desberdina da. Denboraren ikarari aurre egiteko ordez, haren indar bizigarriak hartu, heztu, alderdi hiltzaileak exorzizatu, eta haietaz kuttun onegileak ateratzen saiatzen da. Denbora ezkorren antidotoa denbora beraren substantziako intimitate epelean bilatuko du; edota denborazko fenomenoaren erritmo konstantearen segurtamenean, haien errepikapenak sortzen duen konfidantzan. Irtenbide horretan eufemismoak hartuko du antitesia lekuak: heriotza eta denbora ezpataren bidez garaitu beharrean, emekitasunez hezten eta etxerakotzen ahaleginduko da, harik eta beren izutasuna eta aberekeria galarazi arte.

V.2.A. *Inbertsio- eta intimitate-sinboloak.* Gorantzako transzendentzia eta bereiztasunaren ordez, jaitsieraren, bikoiztasunaren eta inbertsioaren sinboloak aurkituko ditugu gauaren erregimenean. Jaitsiera ez lasterra, baina ezti-eztia bada-  
-ezpada-ere, ez dadin erorketa bilaka: izan ere erorketaren arriskua benetakoa baita, haren beldurra ez baita desagertu eta ezbeharrak ekiditeko neurri guztiak hartzea komeni da. Alabaina, inbertsioko bidetik ondo gidatuz gero, barneko erdigune goxoa kausitzen da, eta hara non leize izugarria harpe babesle bilakatu den. Alde honetatik begiratuta, jaisteak, lurpeak, ilunak, emakumeak eta intimitate guztiek balio baikorra daukate. Sabelera itzultzea denboraren bidea berriz iragatea da, heriotzaren ikara ukatzea, ezkorra ezezteak. Ezeztatze bikun horretan birritasunaren eskema atzematen dugu jadanik: ispiluaren irudi bikoitzak sinbolizatzen duena, edota, Errusiako panpinetan bezala, **kutxakatzeak** adierazten duena. Kutxa, eskola, harpea, hilobia, etxea edo gorputza, altxor bat gordetzen duten ontzi bitxi eta preziatuak dira, eta zulo ikaragarriak; haien ilunpea geriza babeslea eta ez mehatxu goibela. Ez da harritzeko, testuinguru horretan, irensteak berak esanahi izugarria galtzen baldin badu, hura ere sabelaren gerizera itzultzea delako, eta ez gehiago monstruaren ahutzean karrazkatua izatea. Jonasek ez du inongo kalterik jasan balearen barruan, ez eta Kukubiltxok (Barbantxo) ere

behiaren sabelean ("donde no nieva ni llueve" esaten zuen ipuinaren erdal irratiko bertsioak); Gargantua bezalako ogroen ahotik pasatzea jolasa da, nahiz eta umeen ezinegonezko dardarek eta zirrarek gogorarazten diguten tripazorro hori monstro umejalea dela: izan ere, gaueko erregimenean ez da inoiz arrunt ahanzten irudien jatorrizko ikaragarritasuna. Halere, heriotzaren eufemizazioko bidean urrun joan daiteke, hilobi barneko bakea fetoaren doatsutasunari parekatzeraino iristen ahal da.

Berdin gertatzen da urarekin, ez baita gehiago isurkari galgarria izango; ez eta odola jario hilgarria ere: biok biziemaile bilakatu dira, eta esnea, ezitia eta horrelako elikagai guztiak legez, guztiz baliostatuak izango dira.

Kukubiltxoren ipuinean edo gure folkloreko Prakagorrietan ikus dezakegu kutzaren barnekatzeak dakarren gulliverizazioa: txikitasun horietan eguneko erregimenak goستن dituen ahalmen falikoa eta erraldoitasuna inbertituak dira, beti ere falo ipotxak izaten jarraituz, atzamarraren eta orraztontziren itxurak eta sinbologiak egiaztatzen duten bezala.

V.2.B. Gauaren erregimenaren barnean bigarren multzo bat aipatu behar dugu oraino, hau da **sinbolo sintetikoak**. **Zikloa** eta **progresoa** adierazten dituzte, eta haien asmoa ez da intimitatera itzultzea eta bertako gelditasunean goztatzea, baina denboraren iragateari lotzea eta zikloaren agintzari atxikitzea, haren erritmo setatsuak ekartzen duen segurtamena baliatuz. Horrela denbora bera zerbait on bilakatuko da. Ziklo kosmikoa biraka dabilen gorpila bezala errepikatzen da behin eta berriro: jendeak etengabeki jaio eta hiltzen dira, landareak urteko ernatzen dira eta urtero itzaltzen, udaberriko pizteari udazkeneko usteltzea jarraikitzen zaiola; egutegiak gertakari garrantzitsu guzti horiek azpimarratzen eta ospatzen ditu; ilargiak, bitartean, bere joan-etorrien bidez, bukagabeko biribilketa hori neurtzen eta bermatzen du; eta jainko handiak jendeen ugalketa, naturaren emankortasuna eta laborantzako lanak zaintzen eta agintzen ditu. Emakumea eta haren hileroko zikloak, sugea (lurpekoa eta larru aldatzearekin urteko gaztetzen dena), musika (hura ere ziklikoa) horrelako eskemaren inguruan mugitzen dira, eta balio baikorra daukate orduan.

Zalantzagabeko baikortasun hori oraindik areagotzen eta azkartzen da sinbolo ziklikoak eta intimitatezkoak elkarren gainean txertaturik agertzen direnean. Adibide klasikoa hazi-alearena da: urte guztiz berriro etortzen den udaberrian ernamintzen eta berpizten ahal izateko, lurpeko hilobian hil eta usteldu egin behar du aleak. Horren egiaztatzea izaten omen zen Eleusiko Misterioen mamia, zikloak eta lurrak agintzen duten salbazioa. Ebanjelioak ere ideia bereganatu du. Naturaren emesabelak biziaren berriztatzea eta iraupena segurtatzen ditu.

### V.3. Manikeismoa ala bikoiztasuna?

Bi erregimenen bidez, bi sinbolo-mota baliesten ahal ditu irudimenak, beraz. Egunekoak maskulinitatearekin lotzen diren koaliteteak gorai patzen ditu eta estrategia agresiboa aukeratzen du. Gauekoak, aldiz, emetasuna, gozotasuna eta trebetasuna erabiltzen ditu antitesi-egoera uzkailetzeko eta horretan irabazle izateko. Horiek horrela baldin badira, ez da azaleko fenomeno berria sinboloak generoen arabera sailkatzea, oso sakonki errotutako estruktura baino. Eta, guretzat kezkarria, bi generoei dagozkien irudiak baikorrak izaten ahal badira ere, gehien bat femeninoarekin lotzen direnek –gaueko erregimenekoek– beti atxikitzen dute berekin denboraren aurpegi ikaragarrien kutsu zerbait, izua eragiten duen hondakina: onak bilaka daitezke, bai, baina jatorriz gaiztoak diren iruditik abiaturik beti. Ez da horrela gertatzen eguneko erregimenak gozosten dituen sinboloekin: hauek beti gaiztoaren kontrakoak izanik, ez omen daukate gaitzak utzitako aztarnik.

Irudimenaren funtsa misoginoa ote da? Beharrezkoa zaio eufemismoa misofilo bihurtzeko? Beharbada horregatik maskulinitatea on absolutua izatera hel daiteke, feminitateak bikoitza baino hobea izatera iritsi duelarik? Jainko ar zenbaitek (kristianismokoa, islamekoa) onak baizik ez dira, haien baitan gaitz-izpirik ez omen da. Orain arte ez dut ezagutu horrelako jainkosarik. Ama Birjina guztiz ona da baina, ortodoxiaren arabera, meneko neskatxa soila, inondik ere unibertsoaren sortzaile edo Andre absolutua. Antzinako Ekialde Hurbileko eta Mediterranioko jainkosak (Istar-en tipokoak), onegile bezain kaltegile dira. Eta gure mendietako Anderea (Anbotokoa) ezin bikoitzagoa bere ezagugarri guztietan. Ipun miresgarrietan emakumeak eman dezakeen arketipo baikorrenaren atzean ere, ama onaren atzean, beti bada amordearen itzala; amama samurrena ere otso bilaka daiteke.

Emakumearen egoera sinbolikoak beti hain zalantzakoa izan behar badu, egoera soziologikoa ere berdina izango bide da, behintzat irudimenak eragina baldin badu jendarte jakin baten balore sisteman. Sexuen berdintasunaren aldeko borroka ez litzateke, orduan, sekula bukatua izango, borroka sinbolikoa delakoan.

Ukaezina da patriarkadoa pizten eta sendotzen duen sinbologia oso azkarra eta errotua dela. Galdegin behar genuke ea sinbolo-sistema hori antropologikoa eta unibertsalakenez (Durand-ek dioen bezala) ala bakarrik kulturala, zibilizazio bakoitzaren arabera. Levi-Strauss-en ustez (1961: 85), testuinguru kulturalak bakarrik ematen ahal die beren balioa elementu sinbolikoei eta arketipoak ez dira inondik ere unibertsalak, Jung-ek pentsatu zuen bezala; halere, Levi-Strauss-ek berak (1958: 56-57) ez du batere oztoporik beste unibertsalismo bat aldarrikatzeko, alegia, gizonek beren artean egiten dituzten trukeetako txanpona direla emakumeak.



Dena den ez dugu hemen arazoa trenkatuko. Horretarako, beharbada, sexuen arteko berdintasun handia daukaten jendarteen sistema sinbolikoak sakonki aztertu beharko lirateke. Alabaina, ez da esana sinboloek praktika soziala erabat determinatzen dutenik ere, nolabaiteko zerikusirik badutela gauza segurua izan arren.

Beti ere, ez da dudarik mendeetan zehar oso atxikiak izan direla gauaren erregimeneko irudiak, bikoitzak izanagatik. Funtsean, bikoitzak izanagatik ala bikoitzak direlako? Irudiz, jende-pentsamoldea binakako eragiketetan egituratua da (Levi-Strauss, 1971:500). Agian, jatorrizko dikotomia horri irtenbidea emateko modu betegarriena, hartatik bikoiztasun biltzailera joatea izan liteke, eta ez manikeismo urragarrira. Sintesia antitesia baino atsedenoago dateke. Arrazoi horregatik menturaz, erlijioen historia jainkosa handiz bete-betea da. Kristautasunaren barruan ere giza monoteismoa (eme-monoteismorik ez daiteke izan) kolokan izan da behin baino gehiagotan, Andra Mariaren kultoa dela eta. Eztabaida biziak izan ziren IV. eta V. mendeetan, erabakitzeke ea Maria Jainkoaren ama zenez, herriak nahi zuen bezala; ala bakarrik Kristorena, ordurarte Eliz-aitek uste zuten bezala; eta azkenean, herria garaile gertatu zen: Ama Birjina Jainkoaren ama zela aldarrikatu zuen Efesoko kontzilioak, 431ean, ostearen txaloen artean. Gaur egunean Ama Birjinaren debozioa eta agerpenak ikaragarri ugaltu dira mundu kristau guztian; Aita Sainduak pizte hori bultzatu du, baina badirudi ondorioa ez duela arras gustokoa: harek Jainkoaren neskamea (*ancilla Domini*) promozionatu nahi zuen, eta herriak jainkosa handia egin du, haren semeari baino gurtze gartsuagoa emanez.

Baina soziologiatik hasi gara eta hartara itzuliko gara berriz. Esan beharra dago sistema patriarkala ez dela unibertsala, ez eta baitezpadakoa ere, historikoki eta etnologikoki mintzatuz bederen. Patriarkadoa ezinbestekoa dela esatea horren alde jokatzeko da. Egia da zibilizazio gehienetan gizonen nagusitasuna ikusten dela eta, patriarkadoan gizonak emakumeak zanpatzen dituzten bezala, emakumeek gizonak zapaltzen dituzten matriarkadorik ez dela ezagutzen, eta seguraski ez dela inoiz izan ere. Amazonena mitoa da, oinarri soziologikorik gabekoa. Halere patriarkadoak baino sexu-berdintasun handiagokoa duten jendarteak badira eta haien berri eman digute historigile, geografo eta etnografoek. Hor dugu, denboran urrun baina espazioan hurbil, Strabonek kantabroei buruz dioena, Caro Barojak aipatzen duena: alabak ohi ziren oinordekoak eta emakumeek lantzen zuten lurra. Hor da tuareg-en artean emakumeak daukaten askatasuna eta ospea; hor zenbait amerindiar leinuren kasua, antzinako irokesena, bereziki; edota, Zaireko mbuti deitu taldearena, orohar berdintasuna pratikatzen dutenok. Hor dira patriarkadoaren barruan eta haren kontra egiten diren borroak eta lorpenak: azken mendeko mugimendu feministak ez dira aluzinazioak, errealitateak baizik, historikoki zibilizazio exotikoarenak bezain garrantzitsuak, eta guretzak oraindik areago.

Emakumeen askatasuna lortzeko, Marilyn French-ek proposatzen du gizatasuna (kualitate maskulinoen multzoa) ez dadila izan jendetasuna (espezie osoaren kualitateen multzoa) neurtzeko parametro eta irizpidea; horrek esan nahi du printzipio femeninoak balioztatzea alde batetik, eta bestetik printzipioak orokorki ez gehiago banatzea genero batekin ala bestearekin identifikatzeko gisa: nork bere temperamentuaren arabera jokatzeko eta bizitzeko askatasuna ukan dezan, generoak inposatzen dituen moldeek loturik egon barik. Ameriketako egindako ikerketa zenbaiten arabera, neskatilek jolasten ari direnean liskarra sortzen bada, jolasari utzi egingo diote; mutikoek ez. Mbutien artean, berriz, neskatilek zein mutikoek liskarrak ekiditen ikasten dute beren jolasetan, eta enfrontamentua baino abandonatzea nahiago dute; nagusiek ere herritik joatea hautatzen dute besteekin gatazka larriak ukanez gero. Badirudi, beraz, Ameriketako emakumeen jokabideen antza dutela berdintasunezko jendarteek hobesten dituztenekin. Haien moralak oso baliagarria liteke sexuen menpekotasunean oinarritua izango ez den sistema sendotzeko.

Azken finean askatasun orokorra ez da lortuko balore-sisteman eta sinboloen eremuan ere patriarkadoaren oinarriak uzkaile gabe. Bitartean, borroka politiko-sozialak ekartzen dituen fruituak eta aurkitzen dituen oztupoak ulertzeko eta gainditzeko, beharrezkoa da irudimenezko edukinaren garrantzia ez ahanzte.

**BIBLIOGRAFIA**

BACHELARD, G.; *L'eau et les rêves. Essai sur l'imagination symbolique*, Librairie José Corti, Paris, (1941ean idatzia), 1942.

BACHELARD, G.; *La psychanalyse du feu*, NRF, Gallimard, Paris, (1937an idatzia) 1949.

BETTTELHEIM, B.; *La psychanalyse des contes de fées (The uses of enchantement)* Laffont, Paris, 1976.

CARO BAROJA, J.; *Los pueblos del Norte*, Txertoa, Donostia. 1973.

CARO BAROJA, J.; *Las brujas y su mundo*, Rev. de Occidente y Baroja, Madril, 1961.

DURAND, G.; *Les structures anthropologiques de l'imaginaire*, Bordas, Paris, 1969.

FRAZER, J. G.; *Balder le Magnifique in Le rameau d'or* IV tomoa, Robert Laffont, Paris (The Golden Bough, 1911-1915), 1984.

KAUFMANN, J.-C.; *La trame conjugale, analyse du couple par son linge*, Nathan, Paris, 1992.

ELIADE, M.; *Traité d'histoire des religions*, Payot, Paris, 1964.

FRENCH, M.; *La fascination du pouvoir*, (Beyond Power), Ed. Acropole, Paris, 1986.

LEKUNBERRI, T.; *Femmes et Société Contemporaine*, Thèse pour Doctorat, Université de Bordeaux II.

LEVI-STRAUSS, C.; *Anthropologie structurale*, Plon, Paris, 1958.

LEVI-STRAUSS, C.; *La pensée sauvage*, Plon, Paris, 1962.

LEVI-STRAUSS, C.; *L'homme nu*, Plon, Paris, 1971.

OLIVIER, C.; *Les enfants de Jocaste*, Denoël/Gonthier, Paris, 1980.

SATRUSTEGI, J. M.; *Comportamiento sexual de los vascos*, Txertoa, Donostia, 1981.

VALLE, T. del y otros; *La mujer vasca, imagen y realidad*, Anthropos, Bartzelona, 1985.

VERDIER, Y.; *Façons de dire, façons de faire*, Gallimard, Paris, 1979.

# GENERO ETA ZIENTZIA

Arantza Urkaregi - I. Gomez

## SARRERA

Hitzaldi honen helburua, generoaren ideologia eta zientziaren arteko erlazioak aztertzea da. Hau da, alde batetik, gizonezko/emakumezko dikotomiaren eraketa sozialak ekoizpen zientifikoan izan duen eraginaz arituko gara, eta bestetik, kultura zientifikoak duen dikotomia hau sostengatzeko jokaera legitimatzaileaz.

gizartea → genero-ideologiaren proiektzioa → zientzia  
↓  
bi sexuei elkartutako ohizko balore eta betebeharren  
legitimazioa

Ez dugu emakumeak ezagupen zientifikoaren **objektu** gisa edota zientziaren **ekoizle eta erabiltzaile** gisa soilik aztertu nahi. Gure ustez, eztabaida hau orokorragoa den generoari buruzko eztabaidan kokatu behar dugu, zeren eta emakumeari egokitutako betebeharrak, balore eta interes espezifikoen multzoaren existentziak, hauekiko betebeharrak, balore eta interes dualak gizonari egokitzea halabehartzen baitu. Emakumeari arlo pribatua dagokio, gizonari arlo publikoa dagokiolako. Gizonak arrazoiaren monopolio hutsa ahal izango du **baldin eta soilik baldin** emakumeak hunkipen eta sentimenduen monopolio badu. Emakumea eta natura berdinduko ditugu, **baldin eta soilik baldin** gizona eta kultura berdintzen baditugu.

Aurrera jarraitu baino lehen, ohar bat egin nahi dugu. Gure abiapuntua hau da: Ideologia meneratzaileak, **subjektibitate, sentimendu, pribatu,**

**konkretu eta pasiboko** baloreak egokiarazten dizkio emakumeari, gizonari, **objektibitate, arrazoi, publiko, abstraktu eta aktiboko** balore antagonikoak egokiarazten dizkion bitartean. Baina egokitzapen bi hauek ez dira naturalak, baizik eta eraketa sozialak dira, eta baliagarriak dira kontrajarriak direlako. Balore-banaketa hau ere ez da neutroa: Gizonezkoen baloreak hobek direla eta emakumezkoenak txarragoak direla baieztatu dituen banaketa hierarkikoa dago. Sexu bateko eta besteko gizakiak era desberdinean sozializatzen dira, sexu biologikoan oinarrituriko expektatiben arabera, bai, baina, alde batetik, proiektu hau eratu egiten da, ez da naturala, eta bestetik, ez du arrakasta osoa lortu, gehienetan, emakume eta gizonek ez baitituzte feminitate- ala maskulinitate-eredu idealak betetzen. Zorionez, identitate pertsonalaren eraketa oso prozesu konplexua da eta jende arruntak gure kulturaren ideologiaren saio murriztaile honetatik (giza baloreen kopuru erdia hartzea debekatu nahi digute) ihes egiten dugu, maila handiago ala txikiagoan.

Harira bueltatuz, hauxe azpimarratu nahi dugu: Hitzaldi honen helburua ez dela emakumea soilik, baizik eta emakumea eta gizona, eta batez ere, zientziaren eraketan gizonezko/emakumezko eskemak izan duen eragina. Zientziaren barruan nagusia den ideologia eta gizarteak duen zientziaren irudia, maskulinitatearen idealarekin bat datozela egiaztatzen saiatuko gara. Era honetan, zientzia **objektiboa**, inpersonala eta neutrala, **arrazoian** oinarritutakoa –informazioa ateratzeko metodo logikoak erabiltzen dituelako–, **abstraktua** –datu konkretuen aurka doalako– eta **aktiboa** –natura menperatu nahi duelako– izango da.

## 1. Baina, ZIENTZIA ZER DA ?

Gure gizartean, zientziak eta metodo zientifikoak duten prestigioa hain handia da ezen konklusio batean “zientifiko” adjektiboa sartzen badugu, nahikoa baita konklusio hori baliagarri edo egiazkotzat hartzeko (zientziaz baliatzea potestate-argudio bihurtu da). Jende arruntaren ustez, zientzia jakintza, ezagupen eta **ziurtasunen metatzea** da. Normalean, ezagupen zientifikoa, eratzen ari den edifizio zoragarritzat hartzen da, zeinak eragin sozial, politiko, ekonomiko eta pertsonaletatik kanpo, ahaleginez eta desinteresatuki lan egiten duten pertsonen –gizonezkoen– etekina baitu. Edifizioa, beharbada, ez da inoiz amaituko, baina eraiketa-erritmoa gero eta azkarragoa da. Zientziaren helburua, natura kontrolatu eta menperatzea da.

Zientziaren gorputz gabeko irudi mitifikatu eta faltsu honen aurrean, azter dezagun Zientziaren Filosofiari buruzko zenbait azterketak azaltzen diguna.

Vienako Elkartearen Positibismo Logikoa (bere ordezkari nagusia Carnap delarik) eta Popper-en faltsazionismoa, Zientziaren Filosofian buruturiko lehenengo ikerketak direla kontsideratzen da. Biek, zientzia, esperientzian eta

arrazonamendu logikoan oinarrituriko metodo zientifikoaren erabilpenak definituta dagoela baiezten dute. Bi korrante hauek oso kritika gogorak jaso zituzten, hala nola,

- Vienako Elkarateak metodo zientifikoaren muintzat hartzen zuen Indukzio-Printzipioa justifikaezina zela.

- Behaturiko edozein datu, aldez aurreko teoriaren barruan soilik zela adierazgarria. Honen arabera, induktibismoak uste zuenez, ezagupena ondorioztatzeko, eta baita ere, faltsazionismoak uste zuenez, teoriak faltsutzeko behaketa oinarri segurua zela baztertu egiten da.

Naturaren ezagupen objektibo eta benetazkoa emango ligukeen metodo zientifikoaren existentzia kili-koloan jartzea izan da kritika hauen ondorio bat. Jarrera erradikal eta probokatzailleena, Paul Feyeraben-ena (*Metodoaren aurka*, 1975) izan da, zeinak zientziaren metodologia guztiek ezin izan dutela zientzilarien iharduerak gidatzeko arau egokiak formulatzea baiezten duen. Egile honen arabera, metodoa, zientzilariak zein teoria aukeratu edo nola ikertu behar duen erabakitzeke arau-multzotzat hartzen badugu, ez dago metodo zientifikorik. Iritzi honek, jarrera anarkista eta erlatibista hartzera eraman du, zientziak ez duela aintzinako mito edota “vudu” bezalako ezagupenaren adarrak baino hobea izateko inolako ezaugarri berezirik baieztatzen duelarik.

Zientziaren soziologoa den Thomas Kuhn-en (*Iraultza Zientifikoen Egitura*, 1962) jarrera konstruktiboagoa da. Berak, zientziaren eraiketan, logika eta esperimendazioa gaingaitzen dituzten faktoreek eragina dutela baiezten du, zeintzuak komunitate zientifikoen ezaugarri soziologikoei lotuta dauden. Era honetan, zientziak jasaten dituen kanpoko eraginez arduratzerakoan, zientziaren azalpenak kontestualizatzen dira (bai espazioan zein denboran). Ezagupen zientifikoa aurrera doa disziplina baten paradigma aldatu egiten duten iraultza zientifikoei esker, non munduaren ikuspegi berria eta aurreko teoriak baino ahalmen azaltzaile eta auresale handiagoa duten teoria berriak sortzen diren. Hala ere, Kuhn-ek berak ez zituen ikerketa eta garapen zientifikoa baldintzatzen dituzten kanpoko zergatiak (ekonomiko, politiko eta ideologikoak) aztertu.

Ondorio gisa, zientziaren filosofia, historia eta soziologian buruturiko azterketek, zientziari buruz eta zientzia eta gizartearen arteko harremanei buruz geneuzkan kontzeptzioak aldatzen lagundu digutela baieztatu dezakegu. Zientzia, kultura eta garai konkretu batean kokatuta dagoela frogatu dute. Zientziak, errealitatearen interpretazio eta eredu gero eta konplexuagoak eraikitzen dituela, baina ziurtasunaren antzinako ideala baztertu egin dugula, beraren orde, sakontasun-ideala bilaturik baieztatu dute. Naturari buruzko edozein datu, erabilitako teoriak eta lengoaiak baldintzatuta eta mugatuta dagoela frogatu dute, eta beraz, ezin dela **objektibotasunaz** mintzatu.

Hala ere, azterketa hauek eta beste batzuk (adibidez, ikuspuntu marxistatik zientziari egindako kritika erradikalak –Giovanni Cicotti, Marcello Cini, Michelangelo de Maria, e.a.) lorpen eta argipenak izan arren, ezin ditugu beraien hutsuneak ahaztu, batez ere, zientzia maskulinitate-idealetik garatua (eta goi-mailako klaseko gizon zurien eliteak eratua) izan denik, zientzia zer den ulertzeko, generoaren ideologia eta zientziaren arteko elkarrekintzaren azterketa sakona beharrezkoa dugularik.

## 2. TEORIA FEMINISTA ETA ZIENTZIA

Zientziari buruzko ikerketen beste talde bat, teoria feministatik abiatu da. Mendebaldeko feminismoaren bigarren uhinaren sorrerarekin batera, 60.eko hamarkadan agertzen hasi ziren ikerketa hauek, **emakumeak, zientziaren ekoizle gisa ez zirela agertzen** azpimarratu zuten.

(1) Alde batetik, disziplina desberdinetako testu- edota dibulgazio-liburuetan agertzen ez ziren (“kasualitatez” ahantziak ote?) emakume zientzilariak errekuperatzen saiatu ziren. Honela, bilketa eta biografiak idatzi ziren, hala nola, Irene Joliot-Curie (Kimikako Nobel Saria jaso zuena 1935.ean, Curie andrearen alaba), Rosalind Franklin (ADN-ren egitura helikoidalaren aurkikuntzan parte hartu zuena), Barbara McClintock (aldakorrak ziren gen-elementuen aurkikuntzaren aitziandaria, Nobel Saria jaso zuen 1983.ean), eta abarren izenak ezagunak izaten hasi ziren.

(2) Bestetik, emakume zientzilarien egonezaren zergatia azaldu zen, patriarkadoaren teorian oinarrituz. Bi sexuertzako desberdina den sozializazio-prozesuan, emakumeoi menpekotasun, subjektibitate, sentikortasun, eta abar bezalako baloreak, **zaintzaileen** betebeharrekin batera egokitzen dizkigutenez, kontrako baloreek karakterizatuta dagoen lan-motara, iharduera zientifikora, ailegatzea oso zaila da emakumeontzat. Emakumeoi sentimendu eta hunkipenen mundua egokiarazten digutenean, Hylari Rose-k dioenez, beste lan-banaketa sortzen da: lan intelektual eta lan sentikorraren artekoa.

70.eko hamarkadan, gizarte-zientzien (Antropologia, Psikologia, Filosofia, Soziologia, Historia, e.a.en) edukinaren kritika feminista garatzen hasi zen, Biologia eta Medikuntzaren edukinen kritikekin batera. Ikerketa hauek, arlo akademikoaren barruan burutu ziren, komunitate zientifikoak onartuak izateko zenbait oztopo desberdin aurkitu zituztelarik. Hala nola,

(1) emakume-mugimenduei eta beren erribindikazio politiko feministei lotuta egoteagatik sorturiko oztopoak. Lotura honek, diskurtso feminista eta berak duen munduaren kontzeptualizazioa deskalifikatuko lituzke, “ideologiaz kutsatuta”



baitaude. Hala ere, teoria zientifikoak, batez ere, gizarte-zientziei dagozkienak, baina ez soilik, zenbait interes eta munduaren ikuspegi konkretu baten menpe daudela badakigu.

Disziplina batek “egokitzen” hartzen dituen galdera, erantzun eta metodoak, interes horiek eta munduaren ikuspen horrek emanda datozela ezaguna dugu. Zentzu honetan, Evelyn Fox Keller-ek dioenez, “... **zientziaren barruan, ekintza-multzo desberdinak, interes zientifikoaren puntu desberdinak ezezik, ezagupenaren antolaketa desberdinak, munduaren interpretazio desberdin bateragarriak ere dira.** “

Aurretik ikusi dugunez, disziplina bat zientifikoa den ala ez erabakitzeke irizpideak ez daude zehaztuta, baina, dudarik gabe, ezin da ukatu gizarte eta ideologiari lotuta daudenik. Zientzia baten oinarritzat ondokoak hartzen ohi dira: abiapuntutzat hartzen dituen auresuposamenduak (axiomak) azaldu behar ditu; haren teoriak formalki ondo eratuta egon behar da; eta datu kontrastagarriak erabili behar ditu. Eta, orokorrean, ikerketa feministek zientifikoa izateko hiru irizpide hauek betetzen dituztela egiazta dezakegu. (Nahiz eta, praktikan, ezagupenaren zientifikotasuna instituzionalizazioari lotuta egon. Ezagupen-multzo bat Unibertsitate barruan baldin badago, Akademia, Elkarte eta Ikerketa-Sariak baldin baditu, ... zientifikotzat hartua izango da).

(2) Ikuspuntu feministatik egindako garapen teorikoek aurkitzen duten beste oztopo bat, behe-mailako ikerketak direlako iritzia da, zeren eta, alde batetik, ikerketaren objektua, askotan, disziplinen interesen arabera, garrantzi gutxi duten emakumea edota berari elkartutako gaiak baitira, eta, bestetik, zientziaren paradigma nagusiak egiazaturiko teoriak kritikatu eta baztertzen baitituzte.

(3) Azkenik, ikerlari feministek beren ikerketa-lanak **argitaratzeko edo zabaltzeko oztopoak** daude. Halaber, beren disziplinen barruan ez dira ia aipatuak izaten, ikustezinak dira.

70.eko hamarkadaren ikerketa feministek, gizarte-zientzien, biologia eta medikuntzaren ezagupenak osotzen dituzten teoria gehienek sexismo ideologikoa -batzuetan, nabaria, beste batzuetan, izkutua- azpimarratu egin zuen. Sexismoa ondoko bi eratan agertzen da:

(1) **emakumea, kasu gehienetan, ez da ezagupen zientifikoaren helburua.** Medikuntza, Psikologia, Antropologia, eta abarreko ikerketa asko, gizonezkoengan soilik burutzen dira. Hau da, gizona espeziaren ordezkari gisa hartzen da eta beraiengan lortutako emaitzak espezie osora hedatzen dira. Adibide gisa, Antropologiako bat hartu dugu: Giza bilakaeraren azalpena, **gizon ehiztariaren** hipotesitik abiatuz. Denbora luzean zehar “baliagarritzat” hartu den eredu honen arabera, ehiza, janari-kantitate handiak biltzea baimentzen zuen

teknika zenez, aurre-hominidoengandik lehengo gizakiengana pasatzeko berrikuntza erabakior eta funtsezkoa izango zen. Hala ere, Adrienne L. Zihlman-ek ondokoa adierazten du: “Bilakaera azaltzeko baztertuak izan diren emeek, oso jokaera garrantzitsua izan zuten. Ondorengoaren biziraupena lortzeko denbora eta indarra eman zituzten eta bikotekidetzat babestaileak eta janaria konpartitzeko prest zeuden arrak hartu zituzten, espezien bilakaeran eragina zutelarik. (...) Hominido arrak, pubertaroan, emeekin batera, amaren talde familiarrean sartzen ziren, oso menpekoak ziren gazteagoen biziraupenari laguntza emanik. Elkarkoiagoak ziren ar hauek, seguraski, alboko taldeen emeek aukeraturiko bikote sexualak izango ziren, eta, zentzu honetan, bilakaera-prozesua selekzio sexualean oinarritu zuten”. (*Signs. Journal of Women in Culture and Society*, 1978, 4 bol., 1 alea, 4 orr.)

Sare sozialen egituraketan izan zuten eraginaz gain, emeek pizti txikien ehizarako tresnak asmatu zituzten, fruituen bilketaz arduratu ziren, nekazaritzaren oinarriak ezarri, e.a.

Ezin dugu puntu honetan luzatu, baina beste puntura pasatu baino lehen, ikerketa feministaren metodoari buruz ere zerbait esan nahi dugu. Hilary Rose-k, ikerketa feministetan, mundua ezagutzeko era subjektibo eta objektiboa batu nahi direla baieztatzen du. Kate Millett-en esaldia den “*gauza pertsonala politikoa da*”, mundua ezagutzeko era honen laburpena dugu. Arlo publiko eta pribatuaren arteko banaketa ezabatu eta beti pribatutzat hartuak izan diren **emakumearen** esperientziak arlo publikora eramateko interesa adierazten ditu. Horrela, sentikortasuna eta hunkipenen mundua, sexualitatea eta arlo **pertsonala**, maskulinitateari eta zientziari elkartuta dauden arrazoia eta gauza ezpertsonekin batera agertuko ziren. **Objektibotasun eta inpersonalitatearen asmoak eta ezagupen zientifikorako beharrezkoa den subjektibitatearen ukapenak, generoak zientziaren ideologia nola kutsatzen duen adierazten digute.**

### 3. ZIENTZIAREN GENERIZAZIOA

#### 3.1. Gaurko zientziaren kritika

Nahiz eta “zientziaren neutralitatea”-ren aurka jo, Zientziaren azterketa sozialek egindako zientziaren kritika, publiko eta pribatu, inpersonal eta pertsonal, gizonezko eta emakumezkoen arteko banaketak tazitoki sostengatzen dituzten terminoetan oinarritu da, banaketa hauek zientziaren autonomia, neutralitatearen alde agertzen direlarik.

Ikuspuntu feministaren arabera, beste era batera jokatu behar dugu. Banaketa hauek, zientziaren oinarritzko egitura eta gizarte modernoaren elementu funtsezkotzat hartu behar ditugu. Gure mundua, elkar onesten, laguntzen eta definitzen duten dikotomia kontzeptual eta sozial anitzek zeharkatuta dago: publikoa ala pribatua, gizonezkoa ala emakumezkoa, objektua ala subjektua. Honela, ekintza objektibo eta sentimendu subjektiboaren arteko banaketa, objektibitate, botere eta maskulinitatearen arteko loturak sostengatzen du, emakumezkoen mundutik kanpo geratzen delarik. Halaber, gizonezko eta emakumezkoen arteko banaketa, maskulinitate, botere eta objektibitatearen arteko loturak sostengatzen du, subjektibitate kanpo geratzen delarik.

Ikuspuntu feministatik egindako zientziaren kritikak, **“genero-zientzia sistema”** osotzen duten lotura eta banaketa hauen sare interaktiboaren dinamika eta ondorioak aztertzea eramaten gaitu. Generoaren ideologiak eta zientziarenak elkari nola eragiten dioten beren eraketan, gure gizartean nola funtzionatzen duen eraketa honek eta nolako eragina duen gizon eta emakumeengan, zientzia eta naturan, geure buruari galdetza eramaten gaitu.

Zeintzu diren azertu behar ditugun fenomenoak, zein motatako datuak diren adierazgarriak, fenomeno hauen deskribapenen (edo teorien) arteko zeintzuk diren egoki, betegarri, baliagarri eta fidagarrienak aztertzeke irizpideak, irizpide hauek egiten dituzten praktika sozial, linguistiko eta zientifikoaren menpe dago.

Anonimatua, desinteresa eta inbertsonalitatea aldarrikatzen dituen eta subjektua bereizten dituen ideologia objektibistak unibertsalitatearen bilakera bere gainean ixtera eramaten du, xede-estutasuna bultzaturik. Honela, **objektibotasun zientifikoaren ideologiak bere asmoen kontra jotzen du**, ikerkuntza objektiboaren esan nahi eta ahalmena iraulirik.

Xede unibertsaltzat ezagupen zientifikoaren bilaketa hartu nahi bada, bilaketa honen zenbait ezaugarri konstante eta ezinbestekoak direla onartu behar dugu. Baina beste batzuek, zeintzuak zientzilarien komunitateen garapenean zehar onartuak izan diren, pentsamoldearen estutasuna halabehartzen dute. Edozein disziplinatako zientzilariet aldazintzat hartzen dituen auresuposamenduekin egiten dute lan (“honela da zientzia ona”), baina, izatez aldakorrek dira eta aldaketaren menpe daude. Beste edozein praktika arruntetan bezala, pentsamolde-estutasun hauek, komunitatetik kanpo egonik, diferentziaren lenteen bidez ohar daitezke. Beraien bidez, zientziaren lengoaia berezian agertzen den genero-loturen sarea ez dela naturala ezta bistakoa ere, baizik eta eratua behatzen dugu. Ez dira erretorika zientifikoaren azalean kokaturiko apaindura-irudiak, baizik eta ideologia zientifikoaren egituran guztiz erroturik daudela, praktikan ondorio nabariak dituztelarik.

Gaurko zientzia, ondoko bi dogmetan oinarritzen da: Natura **objektibagarria** da eta natura **ezagugarria** da. Lehenengo dogmaren arabera, errealtate objektiboaren existentzia suposatzen da, zeina behatzaileengandik aldentuta dagoen, guztiz existentzia independentea duelarik. Honetaz gain, **objektibo** kontzeptua, **subjektiboaren** aurka eratzen da, dikotomia honen polo positiboa delarik, hau da, kontzeptu nagusia, subjektiboaren ideia era negatiboan eratzen den bitartean: objektiboa ez dena, bestea, gaineratikoa. Dualen eraketa honek, alde onari ematen dio baliogarritasuna, hau da, gauza objektiboari.

Subjektuak diren pertsonen eta objektua den errealtatearen arteko bereizketa osoa planteiatzen duen munduaren ikuspegiak, ez du inolako interesik zientziarako, ezagupenik baimentzen ez baitu.

Beraz, zientzia bigarren dogmatik sortu da: ezagutu behar den errealtatearen eta ezagutzen duenaren arteko erlazioa izateaz gain, erlazio hau berezia da: gure mentalitate zientifikoaren eta mundu naturalaren arteko kongruentzia dago, zeinek errealtatearen legeak distortsio, akats eta hutsunerik gabe irakurtzea baimentzen diguten. Naturaren ezaugarritasuna sinesteak, **teoria eta errealtatearen arteko korrespondentzia unibokoa** dagoela sinestea halabehartzen du.

Ezagupen zientifikoa objektibo bihurtzen da, lehenengoz, hunkimenduek kutsatuta dauden beste ezagupen-motetatik bereiztuta dagoelako eta, bigarrenez, naturaren objektuei lotuta ez dagoelako.

Historikoki presente egon den **gizonezko eta objektiboaren arteko lotura**, eta are gehiago, gizonezko eta zientifikoaren artekoa ez da kritika akademikoak seriozki hartua izan. Maskulinitate eta pentsamendu zientifikoaren arteko loturak, seriozki aztergarria ez den edo aztertu behar ez den mitoaren statusa du. Dirudienez, “bistakoa” da, eta halaber, “ez du zentzurik”. Lehenengoa, ezagupen arruntaren arloan kokatzen delako, eta bigarrena, ezagupen **formaletik** kanpo dagoelako eta zientzia sentimental eta sexualki neutroa delako irudiaren aurka jotzen duelako.

Lotura hau ez da eratzen, edo behintzat ez soilik, emakume zientzilarien egonez erlatiboaren gainean. Nahiz eta zientzilari gehienak gizonezkoak izan, populazio zientifikoaren konposaketak ezin du bere kabuz azaldu zergatik elkartzen zaion maskulinitatea zientziari. Nahitaez, kulturalki baliagarriak diren ahalegin intelektual eta sortzaile gehienak (hala nola, literatura, zinea, e.a.) gizonezkoen eskuetan egon dira historikoki. Hala ere, iharduera hauetariko gutxik dute maskulinitatea hain era nabarian elkartuta. Bai zientzilariarentzat zein bere publikoarentzat, **pentsamendu zientifikoa, pentsamendu maskulinoa da.**

Objetibitatea bera, historikoki, maskulinitateari elkartuta egon den eta dagoen ideala da. Are gehiago, gaur egungo zientzilari gehienak gizonetzkoak izatea, pentsamendu zientifikoari maskulinitatea elkartzearen kausa baino, ondorioa da.

Lehen, emakumeok ezin genuela zientzilari izan, ezta ere zientzilari izan behar, gizonetzkoegi dagokien eginkizunerako beharrezkoak diren indar, zehaztasun eta argitasunik ez baitugu, askotan entzun diegu zientzilari, maisu eta gurasoei. Gaur egun, mugimendu feministak baieztapen gordin hauek irain bihurtu dituzten, zutik dirauen pentsamendu zientifikoaren funtsezko maskulinitatearen sinesmena ez dago modan. Hala ere, **zientzia deskribatzeko erabiltzen ditugun lengoaiari eta metaforetan presente dago**. “Bigunagoak” (hots, subjektiboagoak) diren ezagupenaren beste adarren aurka, zientzia objektiboak “gogorak” deitzen diegunean, erabiltzen dugun metafora sexualean, “gogorra” gizonetzkoena da eta “biguna”, emakumezkoena. Orokorrean, ekintzak “gogorak” dira, eta sentimenduak “bigunak”. “Feminizazioa”, sentimentaltasunaren sinonimo bihurtzen da. Era zientifiko edo objektiboan pentsatzen duen emakumea, “gizon bezala” pentsatzen ari da; alderantziz, arrazonamendu ez-zientifiko, ez-arrazionala duen gizona, “emakume bezala” argudiatzen ari da.

Orain dela gutxi, zientzia modernoaren **gehiegikeria teknologikoez** ohartu gara, eta eztabaida askotan, programa zientifikoaren distortsioen errua teknologiarik, zientzia aplikatuari, egotzen zaio, zeina zientzia hutsetik guztiz aparte dagoela suposatzen den. Zientzia hutsaren xedea, kontrolaren fantasiarik gabeko ezagupen hutsa dela suposatzen da. Seguraski, naturaren menarapena teknologiarik ezaugarri nagusiagoa dela egiazkoa da, baina **zientzia huts eta aplikatua banatzen dituen lerro zehatza marraztea ezinezkoa da**. Historiak adierazten digunez, bien arteko erlazioa askoz konplexuagoa da. **Maskulinitate eta konkistaren konnotazioek, zientziaren erabilpenetan soilik dutela eragina eta bere egitura ukigabe uzten dutela suposatzea sinplezia izango litzateke**.

**Zientziak**, erabiltzen den era desberdinetan ezezik, **eskaintzen duen errealitatearen deskribapenean eta zientzilariak deskribapen honekin duten erlazioan ere eramatzen du bere generizazioaren marka**. Hauxe ikusteko, pentsamendu zientifikoaren izaerari maskulinitatea egokitzeak dituen ondorioak aztertu behar ditugu zehatz-mehatz.

Mundua, bi zatitan –ezagutzen duena (gogo) eta ezagutu behar dena (natura)– banatu ondoren, ideologia zientifikoak bien arteko erlazio berezia agintzen du. **Gogo eta naturari generoa egokitzeaz gain, pentsamendu zientifiko eta objektiboa maskulinitate hartzerakoan, ezagutzaileak ezagupenaz jabetzen deneko iharduerak berak ere generoa du**. Ezagutzailearen eta ezagutu denaren arteko **erlazio-mota, distantzia eta bereizketarena** da. Erlazio honetan, subjektua eta objektua guztiz bereiztuta

daude. Natura objektu bihurtzen da. Elkartruke-erak definitzerakoan, subjektuaren ukiezintasun hunkior eta fisikoa ziurtatzen da. Honen arabera, mundua subjektu eta objektuan banatzen den bezala, ezagupen-erak “objektibo” eta “subjektibo”-tan banatzen dira. Gogo zientifikoa, ezagutu behar den naturatik kanpo geratzen da, eta, bere ezagupen-era dikotomia mehatxatzen duten besteetatik aldentzerakoan, bere **autonomia** garantizatuta dago (edo behintzat, honela kontsideratu da tradizionalki). Prozesu honetan, bai gogo zientifikoa zein ezagupena hartzeko era maskulinoak izateak garrantzia du, dudarik gabe. Hemen, askotan bezala, **maskulinoak, autonomia, banaketa eta distantzia halabehartzen ditu**. Maskulinoztat eta femeninoztat hartu diren subjektu eta objektuaren arteko edozein nahasketa-mota errefusatu egiten du.

Objektibitatea, zein puntutaraino da menerapen maskulinoaren ezaugarri nagusia? Nola gertatu zen? Bestela gerta al daiteke?

Objektibismoek, berez, neutralitate hunkiorra halabehartzen omen du, eta dudarik gabe, hauxe da zientziak nahi duena.

Bereizketan oinarrituriko gogoaren eta naturaren arteko erlazioak naturaren erabilpena (eta esplotazioa) baimendu arren, ez luke naturaren osotasuna errespetatzearekiko bateraezina izan behar, printzipioz, behintzat, eta bereizketa honek ez luke natura bortxatzeraz, ezta ere meneratzeraz eraman behar.

Diskurtso zientifikoa, objektibitateak zergatik ondorioztatzen ditu kontrola eta menerapena?

Autonomia, objektibitate, maskulinitate eta menerapenak esanahi desberdinak onartzen dituzte. Mutur batean, **autonomiak** besteekiko independentzia osoa ondorioztatzen du, subjektu eta objektuaren arteko bereizketa ondorioztatzen duen **objektibitateari** lotuta dagoelarik. Objektibitate-mota hau, feminitatearen inolako markarik ez duen maskulinitatearekin erlazionatuta dago. Eta autonomiaren esanahi hau ere, **boterearen** esanahi bati dagokio: besteen gaineko botereari, **menerapenari**.

Natura meneratzeko ahaleginak egiterakoan, zientzilari batzuek, aztertzen den objektuarekiko **gorroto**-erlazioa adierazten duen lengoia erasokorra erabiltzen dute. Adibidez, S. Painter biologoaren ustez, “ikerketa, ehizaren antzekoa da. Piztia ikusteko toki egokian egon behar duzu, eskopeta kargatuta eraman, eta erabiltzen jakin behar duzu, noski !”.

Zientziak, **bataila-frontea** dirudi. Batzuetan, irudi hau oso gordina izan daiteke, gudari edo ehiztariaren irudi konbentzionalak gainditurik. Zientzilari askoren ustez, arazoak “erasotu”, “konkistatu” edo “azotatu” egin behar dira. Bigunagoak diren diskurtsoetan ere, arazoak “ebatzi” behar dira soilik, baina,

funtsean, ebazterakoan desagertu egingo direla pentsatzen da: prozesuak, oztopoak zelaitik kentzea dirudi. Beharbada, arazoak ebaztearen xedean arazo berriak, perspektiba berriak agerian jartzea delako nozio osagarria egongo da, baina izkutuan.

Zientifikoa eta objektiboa, maskulinitateari elkartuta egoteak, **bigarren mailako ondorioak** ere sortarazten ditu. Zientzia sexismoaz kutsatuta izateaz gain, zientziaren prestigioak maskulino eta femeninoaren balorazioa eragiten du. Elkar indartzearen prozesu zirkularra sortzen da: zientifikoa denak, maskulinoaren aldeko preferentzia kulturalak sortutako balio estra jasotzen du; eta alderantziz, femeninoa dena (ezagupen-adarra, ezagutzeko-era, edo emakumea bera) debaluatua izango da, zientziari dagokion balio intelektual eta sozialetik kanpo geratzen baita.

Atal hau bukatzeko, ikerketa zientifikoaren xede nagusia omen dena aztertu nahi dugu laburki: **naturaren legeak bilatzea**.

Naturaren legeak, materia meneratzen duten aginduak dira. Behaturiko erregulartasuna lege bihurtzeko asmo gordinena, gaineratiko legeak batzen dituen lege “bateratu”-aren bilaketa dugu, zeina edozein berrikustapenekiko aldaezina izango den.

Legearen kontzeptu batzuk beste batzuk baino murrizkorragoak dira. Murriztapena nabaria da batez ere, lege hitza egitura kausal, deterministeki dagokienean, hots, orain arte lege zientifiko nagusiak izan direnetan. Lege hauek, printzipio egituratzailearen eta egitaraturiko materiaren arteko alde zurretiko hierarkia halabehartzen dute. Newton-en legeak, adibidez, sekuentzia kausal hutsean garatzen den unibertsoa deskribatzen du: indarrak zehaztu ondoren, geroan izango duen egoera, hasierako momentuan zituen baldintzek zehaztuta dago.

Legearen kontzeptua aldakorra da eta lege guztiek ez dute koertzioa halabehartzen. Halaber, lege zientifiko guztiek ez dituzte kausalak edo deterministak izan behar; lege estatistikoak, fenomenologikoak edo “jokoaren arauak” ere badaude. Baina disziplina zientifiko askotan, beharbada gehienetan, teoria baten xedea kausalak eta deterministak diren fisikaren lege klasikoekiko antzekotasunaren arabera neurtzen da.

Legearen esanahi bigunagoaren kasuan (deskribatzailean) ere, legeak sor ditzakeen naturaren ordena-mota desberdinak, naturaren legeak kodifikatuta dauden lengoaien (orokorki, matematikoen) bidez azal daitezkeenetara mugatuta daude. Lengoaia guztiek, erregulartasuna deskribatzeko gai dira; baina, behaturiko eta deskribagarriak diren erregulartasun guztiak ezin dira gaur egungo zientziaren lengoaien bidez azaldu.

### 3.2. Aldaketarako proposamena

Zientziari buruz ditugun ideiak, maskulinitatearen nozioetik bereizteak, biak mugatzen dituzten estutasunak desagertzea ondoriozta lezake. Zientzia, emakumeontzako eskurakoiagoa izateaz gain, “objektibo”-aren kontzeptua bera murriztapen desegokietatik askatua izango litzateke.

Askapen hau aurrera eramateko, objektibitate, autonomia, menaperapen eta boterearen kontzeptuen esanahia aldarazteari dagokion garapenaren aldaketa bultzatu behar dugu.

Subjektu eta objektuaren arteko erabateko bereizketan oinarrituriko **objektibitate**aren ohizko kontzeptuaren aurrean (**objektibitate estatikoa** deiturikoa), subjektu eta objektuaren arteko erlazioak kontutan hartuko litzuzkeen **objektibitate dinamiko**aren ideia bultzatu beharko genuke, zeinak, munduarekin dugun loturaz kontziente izanik, munduaren osotasun independentea bermatuko lukeen naturaren ezagupen-motarantz jotzen duen.

Beste aldetik, **boterea**, gatazka- eta eraso-terminoetan definitu ordez, elkarrekiko interes eta ongitasuneko terminoen bidez berdefini dezakegu.

Gure kulturaren, **autonomia** hitza aurreiritziz beteta dago. Autonomia eta besteekiko bereizketa eta independentzia nahastu egiten dira. **Autonomia dinamiko**a era honetara defini dezakegu: gure borondatearen arabera jokatzeko gaitasuna, baina honek ez du esan nahi gure ekintzak besteek eragiten ez dituztenik, ezta inoren betebeharrak kontutan hartzen ez ditugunik ere. Zentzu honetan, **munduaren gainean** jokatu baino, **munduan** jokatu beharko genuke.

Feministok somatu dugun **objektibitate eta menaperapenaren arteko lotura**, berez, ez dagokie zientziaren asmoei, ezta ezagupen eta boterearen arteko ekuazioari, baizik eta botere eta objektibitateari elkarturiko esanahi partikularrei.

**Autonomia, kontrol eta menaperapen kontzeptuek, ez dituzte maskulino eta femeninoa bereizten.** Bi sexuetako pertsonak beren autonomia lortu nahi dute, baina mendebaldeko kultura honetan, gizona gizonak dira, hain zuzen, beren autonomiaren ardura hartzen dutenak. Gizarteak eratutako elementu kontrajarri gisako maskulino/femenino dikotomiak, bi sexuen autonomia dinamikoaren garatzearen kontra jotzen du.

Beste aldetik, **lege**aren kontzeptuaren aurrean, **ordena** izango litzateke kontzeptu alternatiboa, zeina legea baino zabalagoa den. Ordenak ez ditu legearen inplikazio murriztaile, hierarkiko eta zentralizatuak, zientziaren kontzeptzioa zabaltzeko ahalmena duelarik. Ordenak berezkoak, autosortuak edo kanpotik inposatuak izan daitezkeen antolaketa-ereduak sartzen ditu bere barnean; legearena



baino kategoria zabalagoa da, legeak kanpoko murrizketa halabehartzen baitu. Alderantziz, legeak sortzen duen edo sor dezakeen ordena-motak, erregulartasun, erritmo eta eredu somagarrien azpimultzo bat soilik adierazten du.

Legeaz baino, ordenaz arduratzeak, aldaketa handiak sor litzake zientziari buruz dugun kontzepzioan. Ikerketa zientifikoaren gorakada ondorioztatuko luke, naturaren lege bateratuak bilatzea baino, naturan agertzen diren ordena-mota anizkoitzez arduratzea, ikerketaren xedea izango bailitzateke. Legeak bilatzea xedetzat duen zientzia nagusia Fisika izan da. Ordenaz arduratzen bagara, Fisika baino, Biologia izango da eredu. Eta bai Fisika zein Biologiaren lehentasunak, erlatiboki estatikoak diren sistema sinpleetako eredu hierarkikoetatik, sistema dinamiko konplexuetako eredu globalago eta interaktiboetara pasatuko dira.

Natura, legeek menperatutzat soilik hartu baino, gauza ordenatutzat hartzen badugu, natura bera sortzailea, konplexuagoa eta anizkoitza izango da. Kontzeptu alternatibo honetan, natura, ahalguztidun ez den behatzaile aktiboarekiko elkar-erlazioa duen lagun aktibo bihurtzen da. Gogo eta naturaren arteko erlazio honek, ikerketa-mota desberdina eskatzen du, zeina “materiarri entzutea” baimentzen duen aditasun zabala izateko gaitasunean oinarrituko den.

Legean baino, ordenean oinarritzeak bai natura zein zientziari buruz ditugun ikuspegiak zabaltzen ditu. Pentsamolde honen arabera, natura ez dago legearen menpe, baina ez da kaotikoa edo araurik gabekoa ere, eta Zientzia ez da menerapenean oinarrituko, baizik eta naturarekiko errespetuan.

### **3.3. Zientzia egiteko beste era bat: Barbara McClintock**

Barbara McClintock, 1902.ean jaioa, hogeitau urte zituela, genetika klasiko eta zitologiaren arloetan hasi zen ikertzen. 1944.ean, transposizio genetikoari buruzko ikerketak hasi zituen. ADN-ren zatiak, genomaren zati batetik beste batera pasa daitezkeela behatu zuen McClintock-ek. Garai hartako zientzilari gehienen ardura, genen egitura molekular, ADN-ren egitura eta abarretan zetzan. Korrante honetatik kanpo kokatuta zegoen Barbara McClintock-en lanak, ADN --- ARN --- Proteina informazio genetikoaren ibilbidea azaltzen zuen “dogma nagusi”-arekiko kontrajarriak omen zirenez, lan hauek baztertuak izan ziren eta Barbara bera isolatuta geratu zen komunitate zientifikoan. Monod eta Jacob-ek egindako genen erregulazioari buruzko lanak argitaratu ziren 1960. urte arte, ez zen gai hau berriro aztertu. Transposizioak beste organismoetan ere agertu zirenean, 70.eko hamarkadan, baloratzen hasi ziren haren lanak, 1983.ean Nobel Saria jaso zuelarik.

McClintock-en ustez, naturak, giza imaginazioa gainditzen duen konplexutasuna du. Bere hitzetan, “*gauza guztiak, ezarritako dogmen arabera funtzionatzea ez da posible. Dena azaltzen duen dogma nagusirik ez dago*”.

Naturaren konplexutasunak gainditzen gaituenez, “*esperimentuak berak zer egin behar dugun esan dezan*” ezinbestekoa dugu. Konplexutasun honek, natura behatzen dutenei kasu berezietz arduratzea eskatzen die.

Diferentzia indibidualaren onarpena dago Barbara McClintock-en grina zientifikoaren funtsean. “*Garrantzitsuena hauxe da: desberdina den arto-garaua ikusteko ahalmena garatzea eta zergatik den desberdina ulertaraztea*”. McClintock-en ustez, zientzilaria taldeen eta zenbakietan oinarritzerakoan, diferentzia ahaztu egingo du, “*salbuespena, aberrazioa, kutsagarria*” dela esango du.

Diferentzia ulerterazteak ez du diferentzia desagertaraztea ondorioztatzen. McClintock-entzat, naturaren ulerkuntza diferentzian oinarri daiteke. “*Salbuespenen xedea ez da araua bermatzea; berezko esanahia dute*”. Zentzu honetan, diferentzian oinarrituriko munduaren ordenazio-printzipioa eta dikotomia desberdinetan (subjektu/objektu, gogo/natura, sentimendu/arrazoi, desordena/lege) oinarrituriko banaketa-printzipioa guztiz desberdinak dira. Dikotomien helburua, bikotekide bat desagertaraztea den bitartean, diferentziaren onarpenak anizkoitasuna hartzen du xedetzat.

## **4. ALDAKETARANTZ**

### **4.1. Aldaketa posible da**

Lengoaia zientifikoaren iragazkaiztasuna eta kanpoko eraginen aurrean dituen erresistentziak direla eta, aldaketa ez dela posible ondoriozta genezake. Baina, zientzia barruan, aldaketa (eredu, teoria edo helburuena) egunero gertatzen da. Mende honetan soilik, Fisikak, legearen menpe dagoen zientzia nagusiak eraldaketa gordinak jaso ditu. Erlatibitateak eta Mekanika Kuantikoak sortutako iraultzak ezezik, fisikariek gero eta fenomeno konplexuagoak aztertzen hasi zirenean ere, Newton-en paradigaren deuseztapen sotila hasi zen.

Biologia ere aldatu egin da mende honetan zehar. Biologia molekularrak antzinako tradizio “naturalista” gainditu zuen. Gaur egun, zelulen ADNan kokaturiko markagailu meneratzaileak emandako deskribapen hutsa deuseztatzen ari da, konplexutasunarekiko interesa birsorturik. Bere konplexutasunean ordenatuta dagoen eta natura azaltzeko egokiak diren deskribapen dinamikoago, sistematiko eta interaktiboak bilatu nahi dira.

Diskurtso zientifikoak berak aldaketa onartzen du, are gehiago, batzuetan, eskatu egiten du, eredu berrien garapenetik eta teorien birformulazioetatik sortutako emaitzekin gertatzen den moduan. Eta aldaketa erradikalenak

(diskurtsoarenak) ere posibleak dira zientzia, izatez, sistema itxia ez delako. Naturak legeak gainditzen dituen legez, zientziaren praktikak bere aginduak gainditzen ditu. Nahiz eta adostasuna lortzeko presioak izan, komunitate zientifiko barruan, arlo berebean, dialekto desberdinak erabiltzen dira. Beti, arauetik kanpoko naturarekiko erlazioa eta perspektibak dituen zientzilariren bat aurki dezakegu.

Hala ere, guztiz desberdina den zientzia lortzea ezinezkoa da. Zientzia “desberdin” bat, zientziazat hartua izateko hedapen-prozesutik sortu behar da, eta ez etenetik. Beste aldetik, aldaketa posiblea denez, eta izatez, aldaketa gertatzen ari denez, zientzia berria, zertan izango zen desberdina edo zeintzuk diren gertatu behar diren aldaketez hitz egiteak merezi du, aldaketaren aldeko bide berriak urratuz.

## 4.2. Aldaketarako perspektibak.

Zientzia feminista lortzeko **beharrezko baldintza** bat, emakumeok zientziaren subjektu izatea da. Zentzu honetan, baikorrak izan gaitzke. Emakumeok, baimenik gabe, unibertsitatera sartzeko debekua deuseztatu zen 1910. urtetik hona, emakumeok pixkanaka-pixkanaka sartu gara unibertsitatean, 89/90 ikasturtean, UPV/EHUko ikasleen %48 emakumezkoak izanik.

Hala ere, portzentaia berdintsu hau ez da zentru guztietan mantentzen. Parekotasuna, Zientzia, Medikuntza, Filosofia, Geografia eta Historia, Kazetaritza, Politika eta Gizarte-Zientzia, Ekonomi Zientzia, Enpresa-Zientzia edo Gizarte-graduatueta lortu da. Hauen arteko gehienak (Filosofia edo Historia kenduta), karrera “maskulinoak” ziren.

Karrera teknikoek (Injinerutza, Injinerutza Tekniko eta Mehatze-Injinerutza Teknikoek), emakumeontzako esparru itxia izaten diraute, non ikasleen %10 gutxi gora behera emakumezkoak diren. Arkitekturan, aldiz, %32 gara, eta Informatikan, % 36,1.

Beste puntan, Erizaintza da karrera femenino nagusia, ikasleen %89 emakumezkoek osotzen dutelarik. Ondoren, Pedagogia (%78,1), Farmazia (%75,9), Psikologia (%72,2), Filologia (%71,4) eta Majisteritza (%69,7) ditugu.

Dudarik gabe, karrera bat ala beste bat aukeratzea, bakoitzaren irtenbide profesionalen menpe dago. Eta, seguraski, honetan datza karrera teknikoen emakumeon presentzia eskasaren zergatia. Ostera, datu hauek, emakumeok ez dugula “abstraktu”-rako gaitasunik, edo errazenak omen diren karreretara (letrazkoetara) jotzen dugula e.a. bezalako iritziak deuseztatzen dituzte.

UPV/EHU-ko irakasleen artean, emakumeon presentzia ere, txikiagoa izan arren, errealitatea da. Orokorrean, UPV/EHUko irakaslegoaren %31 gara emakumeok. Fakultateetan, %27,8 eta Eskoletan %40.

Proporzio hau, karreraren eta kategorien arabera ere aldatzen da.

Arkitekturan, emakume irakasleak %5,5 besterik ez dira; Medikuntzaren Gurutze eta Basurtoko zentruetan, emakumeon proportzia %8-13 tartean dago eta Mehatze-Injinerutza Teknikoan, %9,3. Injinerutza, Gizarte-Zientzia eta Informatikan, irakasleen %20 emakumeez osaturik dago.

Berriro, portzentaiarik handiena Erizaintzan dago %65 eta ondoren, Majisteritza %55; baino gaineratikoen proportzioa %30aren ingurukoa da.

Kategorien araberrako aldaketarik handiena Fakultateetan agertzen da, baina ez eskoletan: Fakultateetako kontratatuen artean, emakumezkoak %40,35 gara; Titularren artean, %34,06 eta katedradunen artean, %15. (Datuak, 89/90 ikasturteari dagozkio).

Ikusten denez, diferentzia handia titular eta katedradunen artean dago, baina ez titular eta kontratatuen artean. Beste aldetik, emakume katedradunak honela banatzen dira: 7, Zientzietan; 5 Ekonomi Zientzietan; 3 Filologia, Geografia eta Historian; 1 Filosofia eta Hezkuntz Zientzietan; 3, Kimika-Fakultatean, 1 Informazio eta Gizarte-Zientzietan eta 1 Injinerutzan. Hots, 21etik 16 zientzietakoak dira.

Zientzian emakumeon presentzia beharrezkoa izan arren, **ez** dugu uste zientziaren generazioa ezabatzeko **nahikoa** denik.

Lehenengoz, komunitate zientifikoaren barne egoteak, komunitate honek definituriko kodigo eta lengoia onartzea halabehartzen du. Emakume eta gizon zientzilarien arteko diferentzia handiak daudela pentsatzea ez da arrazonagarria. Emakume zientzilariek beraiek diferentziak errefusatzeko dituzte. Barbara McClintock-ek, adibidez, bere lana emakumeen lana zenik edo bere iritziek emakumeon ikuspuntua adierazten zutenik errefusatzeko zituen. Berarentzat, zientzia ez dago generoaren menpe, zientzian “*generoa desagertu egiten da*”.

Bigarrenez, zientziaren subjektuak aldatuz gain, zientziaren oinarriak aldatu behar ditugu. Zientzia eta objektibitate, zientzia eta maskulinitatearen arteko loturak deuseztatu behar ditugu, zientziak ez du natura menperatu behar, e.a.

Objektua (Natura) izendatzeko maskulinitatearen ezaugarriak erabiltzen dituen zientzian sartzen den emakumea kontraesan batean murgilduko da: alde batetik, ezagutzeko ahalmena ematen ez zaion sexu femeninoaren partaidea izatea,

eta bestetik, ezagupena helburutzat duen komunitate zientifikoaren partaidea izatea. Identitate-konfliktoa sortuko da.

Kontraesan honetatik ateratzeko bidea, terminoak birdefinitzea da. Natura, ez-femenino gisa berrizendatu behar dugu, alienatua ez dagoen objektu bezala. Halaber, emakume zientzilariak gaitasun hori ahal izateko, gogoak ez duela maskulinoa izan behar azpimarratu behar dugu. Honek ez du esan behar gizon zientzilariak antzeko birdefinizioa nahi ez duenik, baina, emakume zientzilariari gertatzen zaionaren kontra, bere identitateak ez dio birdefinizio hori eskatzen.

Emakumeok zientzian benetako presentzia lortzen dugunean, zer gertatuko den eztabaidagarria da.

Evelyn Fox Keller-en ustez, *“ez da soilik emakumeon ikuspuntua, maskulinoa den ikuspuntu sortzaileari erantsiko, baizik eta ikuspuntu sortzailearen ahalmenen eraldaketa osoa sortaraziko da. Aldaketa ez da zuzena eta nabaria, baizik eta zeharkako eta lurpekoa”*.

Hirugarrenez, zientzia giza emaitza denetik abiatzen bagara, ezin dugu zientziaren aldaketaz hitzik egin, gizartearen aldaketa aipatu gabe. Maskulino/femenino dikotomia eta bi sexuei egokitutako baloreen hierarkia deuseztatzea ezinbestekoa izango dugu zientziaren benetako aldaketa lortzeko.

#### **4.3. Emakumeok, ikuspuntu kritikotik, zientzian sartzearen alde**

Feminismoaren barruko korrante batek, zientzia errefusatzeko du, proiektu maskulinoa delako. Aldaketa lortzeko oztopo ugari daude, zalantzarik gabe. Hala ere, gure apostua, zientzia, proiektu maskulinoa izan baino, giza proiektu bihurtzearen aldekoa da. Horretarako, emakumeok, ikuspuntu kritikoa izanik, zientzian sartu behar dugu. Jarrera hau hartzeko zenbait arrazoi hauexek dira:

(1) Zientzia, gure kulturaren atal bat delako. Esparru honetatik kanpo egoteak, ezagupen-galera ondorioztatzen du, eta beraz, mundua, gizartea eta geu ere ulertzeko ahalmenen murrizketa.

(2) Gizarte zientifiko-teknologiko batean bizi garelako, kontzeptu eta teoria zientifikoen inguratuta gaudelarik. Kolektibo gisa, mundu zientifikotik kanpo geratzeak, gutxiagotasun, jakinez eta burugabekeriaren sentimentuak lantzea ondoriozta lezake.

(3) Beste aldetik, formazio zientifikoaren faltak, egiten ari den zientzia eta teknologiaren erabilpena eta berak dituen inplikazio sozialak, hala nola, kutsadura, baliabide mugatuen deuseztapena, birsorkuntzaren teknologia, energia

nuklearraren arriskua, landare eta fruituen hazkuntzan erabilitako intsektiziden erabilpen masiboa, elikadura-gehigarriak, e.a. bezalako gaiak ulertzea eragozten du.

(4) Zientzian sartzeak, tradizionaliki baztertuak izan gareneko lanpostuak eskuratu ahal izatea ondorioztatzen du.

(5) Zientziarako emakumeon **sarrera kritikoak**, jadanik, gaur egungo zientziaren **balore, metodo eta kontzeptualizazioen berrikustapena**, zientziaren produkzioaren antolaketa sozialaren eta ezagupen eta teknikaren erabilpenenarekin batera sortarazi du eta sortarazten iraungo du. Halaber, emakumeari egokituriko balore-sistema eta esperientzi mota egokiago islada litzaketen balore, **teoria eta metodo berriak sortzen lagun** lezake.

Gerta litekeen arloan jarraituz, egungo egoeran, zientziaren aldaketa erradikala ez dela posible uste dugu. Hala ere, zientzia ez da monolitikoa ezta itxia ere. Pixkanaka-pixkanaka, korrontearen aurka joz, produkzio zientifikoko edozein mailatan aurrera eraman nahi diren modifikazioen oso atal txiki batek arrakasta lortu du. Nahiz eta oso baikorrak ez izan, historikoki baztertuak izan diren beste kolektiboekin batera, emakumeok, kolektibo gisa, zientzian sartzeak, beharbada, arau gutxi eta dikotomia asimetrikoak erabiliz, sinplekeria bilatzen duen zientziaren ordeztu, anizkoitasuna onartzen duen zientzia berria, lege bakar bat bilatzearen ordeztu, naturan agertzen diren ordena desberdinak aztertzen dituen zientzia, naturarekin dituen harremanak menarapenekoak baino, harmoniakoak bultzatzen dituen zientzia berria eratzen lagun lezake.

Ohar hauen zehazgabetasun eta eraginkortasun txikiak jabetzen gara, baina ikerketak dauden egoeraren islada da (hasi berriak, besterik ez dira). Halaber, Evelyn Fox Keller-ek dioenez, "*generoaren ideologiak ez duela teoria zientifikoen eraiketan esplizituki eragiten*" hartu behar dugu kontutan. Haren eragina (edozein ideologiarena bezala) zeharkakoa da beti: hobesten diren helburu, balore, metodologia eta azalpenak aukera eta eraterakoan.

**BIBLIOGRAFIA**

- BLEIER, R., *Science and Gender: a Critique of Biology and its Theories on Women*. New York, Pergamon Press, 1984.
- BLEIER, R., (argit.). *Feminist Approaches to Science*. New York, Pergamon Press, 1986.
- CARATI, R., In *Ipazia Autorita scientifica, autorita femminile*. Editori Riuniti, Roma, 1992.
- COLE, J. R., *Fair Science. Women in the Scientific community*. New York: Columbia University Press, 1979.
- DURAN, M. Angeles (argit), *Liberacion y utopia*. Akal editores, Madril, 1982.
- EHRENREICH, B. eta ENGLISH D., *Brujas, comadronas y enfermeras. Dolencias y trastornos*. La Sal Editions de les Dones. Bartzelona, 1988.
- FEYERABEND, P., *Against Method: outline of an Anarchistic Theory of Knowledge*. Londres: New Left Books. (Contra el metodo. Madril: Tecnos, 1986), 1975.
- HARDING, S. eta HINTIKKA, M.,(argit), *Feminist perspectives in Epistemology Metaphysics, Methodology and Philosophy of Science*. Dordrecht Reidel, 1983.
- JIMENEZ ALEIXANDRE, M. P., *Y no dejeis que las niñas se acerquen a la ciencia*. "A favor de las niñas" I-ngo Ihardunaldiaren aktak. Oviedo 1988.
- KAHLE, J.B., (argit), *Women in Science: a report from the field*. Falmer Press, Filadelfia, 1985.
- KELLER, E. F., *The Anomaly of a Woman in Physics*. In working it out. Argit.
- RUDDICK, S. and DANIELS, P. 77-91. New York: Pantheon Books, 1977.
- Seducida por lo vivo: La vida y obra de Barbara McClintock*. Fontalba, Bartzelona, 1985

*Reflections on Gender and Science*. Yale Univ. Press. (***Reflexiones sobre genero y ciencia***, 1989. Valenzia: Alfonso el Magnanimo.), 1985.

KUHN, T., *The Structure of Scientific Revolutions*. Chicago: Univ. of Chicago Press. (*La estructura de las revoluciones científicas*, 1975. Fondo de cultura económica. Mexiko.), 1962.

LEVI MONTALCINI, R., *Elogio de la imperfeccion*. Ediciones B. Bartzelona, 1989.

MARTI, S. eta PESTANA, A., *La sociobiología contra la mujer*. El viejo topo, 38, 1979.

MILL, J. S., *The subjection of women*. In J.S.Mill and Harriet Taylor Mill: *Essays on sex equality*. Argit. A.S.Rossi. Chicago: University of Chicago Press, 1970.

MORIN, E., *La methode: la connaissance de la connaissance*. Paris: Seuil, 1986.

OGILVIE, M.B., *Women in science: A biographical dictionary*. The MIT Press, Cambridge, Ma, 1986.

PLANT, J., *Healing the wounds: the promise of ecofeminism*. New Society Publishers, 1989.

---

BRIGHTON WOMEN SCIENCE GROUP, *Alice Through the Microscope*. London: Virago, 1980.

*CIENCIA Y MUJER, Dossier*. El viejo topo, 38.

CIENCIAS. Asesoría de coeducación de Bizkaia-k egindako bilketa. Junio 1991.



# EMAKUMEA ETA EUSKARA

**Miren Azkarate**

1992ko ikastaroetan emakumea gai zuelarik UEUk antolaturiko mintegi honetan parte hartzeko eskatu zidatenean, dudan lanbidea kontuan izanik, hizkuntzaren inguruko zerbait egin beharko nuela pentsatu nuen. Gainera aukera paregabea iruditu zitzaidan 1991ko udazkenean Emakundek euskararen erabilera sexista izan zitezkeenak aztertzeko antolatu zuen lan-taldearen eta honen ibilbidearen berri emateko. Bukatu berria zuen talde honek bere lana, eta esperientzia horretaz aritu nahi nuen. Izan ere, niri, urrundik ezagutzen nuen mundu batean murgildu eta gizarte aurreratu deitzen ditugun horietan egin diren hamaika ikerketaren berri izateko aukera eman zidan hor jarduteak. Horrenbestez, bi helburu izan nituen hitzaldia prestatzean: informazioa ematea batetik, eta ikerbideak zabaltzea bestetik. Hau da, inguruko hizkuntzetan nolako ikerketa eta azterketak egin dituzten ikusirik, euskararen kasuan zertan garen adierazi, eta, ondorioz, gai honetaz kezkatua dagoenari eginkizun zer dugun argitu.

Aurrera egin aurretik, dena den, beste puntu bat argitu nahi diet irakurleei. UEUko hitzaldiaren ondoren, IPES-ekoek "Hezkidetza Hezkuntz Sisteman" izenburuaz irailerako antolatzen ari ziren ikastaroan parte hartzeko eskatu zidaten; funtsean hitzaldi bera eman nuen, beraz, hilabete pare bat beranduago. Bigarren hitzaldi hau, ordea, argitaratua dago dagoeneko<sup>1</sup>. Hala ere, hitzaldia lehenik UEUko ikastarorako prestatu nuenez, eta IPES-eko argitarapenak eta UEUkoak zabalkunde desberdina izan dezaketenez, artikulu bera da, sarrera txiki hau gorabehera, batean eta bestean agertuko dena.

Emakumea eta hizkuntzaren gaiari berriro helduz, ordura arte ezezaguna zen auzia harrotu dute inguruko hizkuntzetan azken hamabost urte hauetan: nolako harremana dago emakumearen eta hizkuntzaren artean? Hari horretatik sortu da hizkuntzaren "sexismoa"ren kontua. Gomendio bereziak eman dira ingelesez,

frantsesez edo espainolez hizkuntzaren "sexismo" hori ekiditeko, hau da, gizonezkoak eta emakumezkoak berdin ager daitezen gure solasean<sup>2</sup>.

Euskarari dagokionez, atzeratu samartuta gabiltza. Azken bi urteetan hasi gara, Emakunderen eskutik, halako gaiak planteatzen eta aztertzen. Argitaratu, berriz, nik dakidala oraingoz Agurtzane Juanena-ren "Hizkuntz sexismoa eta euskara" *Jakin* 65 (1991) eta Begoña Muruaga-ren "Hizkuntza, kultura eta diskriminazioa" *Diario Vasco (Zabalik)* 1990.3.7. baino ez<sup>3</sup>. Hala ere, lan hauek eta oraindik argitaratu gabeko pare bat nahikoa izan dira euskaraz ere "sexismoa" badela argi ikusteko eta, horrenbestez, "en el caso del vasco (...) no se provoca ocultación de la mujer ni se produce sexismo (...) En consecuencia, el vasco es una lengua poco sexista" bezalako baieztapenak<sup>4</sup> zalantzan jartzeko edo behintzat eztabaidagai bihurtzeko.

Non edo zertan ibili behar dugu, bada, argi euskara hizkuntza sexista bilaka ez dadin? Gai honetaz kezkatutik, lan-talde berezia osatu zuen iaz Emakundek, administrazio-munduan, irakas-munduan zebilen jendeari eta Euskaltzaindiari dei eginik. Lan-talde honen helburua: gaur euskaraz sexistatzen har daitezkeen erabilerak detektatu eta halakoak ekiditeko proposamenak egitea. Hiruzpalau hilabetez lanean jardun ondoren aurkitu dugunaren berri eman gura nuke hitzaldi honetan.

Nahikoa gauza jakina da sexismoaren arazoari bi muturretatik behintzat ora dakiokela: hiztunen ikuspuntutik eta hizkuntzaren ikuspuntutik. Hau da, azter daiteke batetik nola hitz egiten duten emakumeek, zein berezitasun duen emakumeen hizkerak gizonenekin alderatuz; bestetik, Begoña Muruagaren hitzetan esateko "nola isladatzen duten hizkuntzek eta, era berean, nola jasotzen duten hiztunek emakumeen errealitatea" ("Euskara eta Sexismoa" argitaratzekoa).

Emakunderen inguruan sortutako lan-taldearen helburuak kontuan harturik, bistakoa da bigarren alderdiaz bakarrik arduratu garela. Horixe izan da, hain zuzen beste hizkuntza batzuetan egin dutena, ingelesak, frantsesak edo espainolak, emakume eta gizonezkoak berdin har ditzan (ez emakumeak isilpean utziaz, esaterako) orientabide eta gomendioak eman dituztenean. Nolabait esateko, erakundeen ardura hau izan da batipat.

Hala ere, beste bide horretaz zerbait esan nahi nuke, zer dugun eginkizun argitzeko besterik ez bada. Hogei urte pasatxo da inguruko hizkuntzetan gizonezko eta emakumezkoen, hizkera aztertzen hasi zirenetik (ikus bibliografian aipatzen direnak; besteak beste Aebischer (1985), Buxó (1978), García Meseguer (1988), Key (1975), Kramarae (1981), Lakoff (1975) etab.). Inoiz, itxuraz kontu hauekin inolako loturarik ez duten azterketak izan dira hari-muturra, hizkuntza edo dialekto bateko atlas linguistikorako burututako lanak adibidez<sup>5</sup>. Alde honetatik hainbestetan aipatu izan dena, emakumeak hizkera kontserbatzaileagoa duela,

hobeto gordetzen dituela tradiziozko erabilerak, beste argi baten pean azter daiteke: mugikortasun txikiagoa izan duenez, aukerak ere gutxiago izan ditu erabilera berriagoetara irekitzeko, adibidez.

Emakumezkoen hizkera-moduarekin jarraituz, azter daiteke (eta guk egiteke daukagu) nolako adjektibazioa erabiltzen duten beren artean hitz egitean, edo gure artean ere gertatzen ote den beste hizkuntza batzuetan gertatzen omen dena: emakumeak, gizonari zuzentzen zaionean batipat, erabiltzen dituen molde eta egiturak ziurtasun handiegia erakusten ez dutenak izatea (*nahiko zenuke?* edo *zer irudituko litzaizuke...?* edo forma hipotetikoaren erabilera *axolako litzaizuke/ekarriko zenidake...?* etab.). Honek guztiak, emakumeak gizarte-mailan "beheko" sentitzen direla adierazten omen du. Horrexegatik, emakumea gizarteratu eta erantzukizuneko lanpostuak hartzen dituen neurrian, erabilera horiek aldatu egiten omen dira aditz-forma hipotetikoetatik ziurtasun handiagoa erakusten duten formetara pasatuaz, etab. Mundu oso bat dugu hor, beraz. Nolako hizkera erabiltzen du euskal emakumeak? Ez hori bakarrik, emakume izatearen ondoan (agian gainera) gizarte-ingurunea ere badagoelako. Nola hitz egiten du adin bateko emakumeak / gazteak? Nola baserri edo herri txikietako girokoak / hirietakoak? Nola emakume eskolatuak / eskola handirik gabeak? Gainera bi alderdi izango lituzkete galdera hauek: nola hitz egiten dute beren artean, eta, nola hitz egiten diete gizonezkoei? Eta, azkenik, erabilera horiek aldatzen al dira (eta gizonezkoen pareko egiten) gizonezkoek bezala ardura handiagoko lanpostuetara iristean, adibidez? Badugu, beraz, zer aztertu.

Baina, hasieran esan legez, halako ikerketak gure lan-taldearen ahalmenen guztiz gainera daude. Beste alderdiari heldu genion! beraz: nola isladatzen dituen emakumeak hizkuntzak, alegia. Eta hemen ere badira beste bi azterbide: lexikoari dagokiona bata, morfologi edo sintaxi mailakoa bestea.

Lexikoa dela eta, inguruko hizkuntzetan azpimarratu dute nolako desberdintasunak, nolako definizio diferenteak ematen dituzten batzuetan hiztegiek hitz berarentzat maskulinoa edo femeninoa izan, edo zer ulertzen duen hiztunak hitz baten forma maskulinoa edo femeninoa izan: *secretario* (beti ere kargu inportantea) *secretaria* (makina idatzi baino egiten ez duena); *interino* / *interina*, *asistente* / *asistenta*, *hombre público* / *mujer pública* (emagaldua), *gobernante* / *gubernanta* (etxe edo erakunde bateko administrazioaz, edo langileez, arduratzen dena), etab. Alderdi hau ere ez dugu ukitu. Agurtzane Juanena-ren artikuluan ukitzen dira euskaraz gizonezkoei eta emakumezkoei dagozkien arketipoak eta begirada bat ematen zaie gaurko hiztegi-tako definizioei. Bistan da hor azaltzen diren definizioak (*ematasun*= dulzura, suavidad; 2. femineidad/*gizontasun* = hombría, etab.) ez direla hiztegi-gileak asmatuak. Honek, gizarteak emakume eta gizonezkoei buruz dituzten iritzi, ideia eta ikusmoldeak isladatu baino ez ditu egiten. Alde honetatik ere hiztegien azterketa sistematikoa eginkizun dugu, ez baitu lan-taldeak lexikoa helburu hartu.

Helburua, goian "morfologi edo sintaxi mailako" bezala definitu dudana izan da. Hau da, hitz egiten dugunean euskal esaldietan emakumezkoak "ikustezin" bihurtzen dituzten erabilerak aurkitu eta horien ordezkioak eskaintzea. Hau da izan ere inguruko hizkuntzetan erakunde-mailan egin duten lana. Frantsezez adibidez, bi arazo-klase nagusi aurkitu dituzte, bakoitzaren barruan kasu desberdinak bereiziaz (espainolez ere kasu berberak izango genituzke):

1. Bi sexuetakoez - gizonaekoez eta emakumezkoak- ari direla:
  - a. emakumeak izkututan geratzen dira, maskulino pluraleko formak erabiltzen direlako ("les hommes politiques")
  - b. gizonaekoez bazterrean uzten dituzten terminoak ("les infirmières")
  - c. gizonaekoen eta emakumezkoen rola estereotipo gisa adierazten dituzten terminoak ("les délégués et leurs épouses")
  - d. bi sexuetakoei dagokien terminoa izanik ere, emakumeak ez direla kontuan hartzen diruditenak ("le candidat")
2. Emakumezkoen ari garenean:
  - a. maskulinoko formak erabiltzen dira emakumezkoek betetzen dituzten lanbideak izendatzeko ("Madame le Directeur de Cabinet")
  - b. deitura desberdina ematen zaio emakumeari, ezkondua edo ezkongai den. Horrela, berezko nortasuna ukaturik, beste sexuarekin duen harremanaren araberrako deitura hartzen du ("Madame", "Mademoiselle").

Hizkuntza erromantzeetako erabilera sexista horiek erreferentziaz harturik, berehala ohartzen gara euskararen egiturak sexu-berdintasunerako askoz aukera hobea ematen dituela. Hasteko, genero gramatikarik ez duenez (hitanoa salbu), aipatu berri ditugun 2a edo 1b eta 1d puntuetan ageri diren kasuak ez dute aparteko arazorik sortzen; ez, behintzat, orainsu arte.

Bestalde, sexu bateko eta bestekoen multzoa, edo bikotea, izendatzeko betikoa izan du euskarak horretarako berezia duen hitz elkartu motara jotzea: *senar-emazteak*, *seme-alabak* edo *neska-mutilak*...

Gauzak horrela ikusiaz, García Meseguer-ek arrazoia duela dirudi: hizkuntza ez da hizkuntza sexista (edo baldin bada, oso neurri txikian da). Eta

egiaz hala izan liteke. Baina azken urteotan euskararen sexismoa ugaltzen lagundu duten bi egitura-mota ikusten ditugu egunetik egunera indar handiagoz:

1. **-sa atzizkia**, femeninoa adierazteko zubereraz bakarrik erabili izan den atzizkia, euskara estandarera neurri gabe zabaltzen ari dena. Horrela, zubereraz (eta euskalki horretan bakarrik) literaturan aurkitzen ditugun *artzaintsa*, *errientsa*, *laborarisa*, *jainkosa*, *ostalersa*, *alarguntsa*, etabarren ondoan, *doktoresea*, *idazlesa*, *bertsolarisa*, *dantzarisa*, *errektoresea*, *idazkarisa*, *iragarlesa*, *koblakarisa*, *koplarisa*, *laguntsa* eta beste hainbat eta hainbat entzun eta irakur ditzakegu.

Euskalki bateko berezitasunak hizkuntza estandarerako jasotzea aberasgarri izan daiteke, egia da. Baina kasu honetan inoiz generorik izan ez duten *-ari* edo *-le* erator-atzizkiei maskulino balioa ematen zaie, eta ondorioz dagokien "femeninoa" sortu. Halaber sexu bateko eta bestekoentzat balio izan duten lanbide eta kargu-izenetarako. Alde honetatik, gerta daiteke 1d puntuan aipatu den kasuan gaudela uste izatea; berez bi sexuetakoz gizakiak izendatuko lituzkeen terminoak gizonezkoak bakarrik izendatzen dituela iruditzea, alegia. *Euskaltzain* edo *zuzendari* esatean gizonezkoek ari garela pentsa dezake norbaitek. Baina hori ez da euskararen kontua; hizkuntzak ez baitu hor inolako genero-markarik; gizartearen ikuspegia da lanbide horiek gizonezkoenak bezala identifikatzen dituenak. Eta honi aurre egin nahi bazaio betidanik izan du euskarak *jaun/gizon euskaltzain*, *andre euskaltzain*, *gizon/jaun zuzendari*, *andre zuzendari* hitz elkartu mota.

Gainera, horrela euskarak jarrai lezake maileguzko hitzetan maskulinoko forma hartzen: *dekano* edo *errektore*, euskal sistemak irentsirik, ez lirateke maskulinoko formak izango, lanbide hori duen edozein gizon edo emakume izendatzeko bidea baino.

2. Ondoko hizkuntzen eraginez, betiko bikote-izenak (dvandvak") alde batera utziaz, pluralerako gizonezkoa izendatzen duena hartzen dugu, horri erantsiz plural-marka: *\*aitak* entzuten dugu *gurasoak* edo *aita-amak* forma jatorren orde; era berean *\*erregeak/errege-erreginak*, *\*semeak/seme-alabak*, etab. Gainerakoetan *ikasleak*, *idazleak*, *dantzariak*... lanbide hori dutenak, sexu bateko nahiz besteko izan daitezkeenak, izendatzen dituzte.

Ildo beretik, edo oso antzekotik, hitanoaren erabilera okerraz emakumea isilpean uzten da gaur egun zenbaitetan. Alde honetatik, hitanoak solaskide bakarra eskatzen duela gogoan izan beharko genuke; horrenbestez, bilera batean hango lagunei zuzentzen gataizkienean ezin da hitanoa erabili, esaterako. Modu berean, publizitate-kanpaina batean, ez da egokia hitanozko forma erabiltzea, batez

ere *-k*, *-n* pertsona-markak ageri badira (errazago gerta daiteke *hadi* forma dugunean): *erretzeari utzi iezaiook/iezaion* jarri nahi ez bada, hobe *utzi iezaiozu* jartzea.

Bada beste egitura bat euskaraz emakumeak ikustezin bihurtzeko arriskua duena, zuzen erabiltzen ez bada: "izena + *gizon*" hitz elkartu mota. Literaturako *armagizon*, *elizgizon*, *gerragizon/gudagizon*, *itsasgizon* edo *plazagizon*, "gizonak" direla dirudi; sexu horretako gizakiak izendatzen dituztela. Ingelesaren eraginez edo, *legegizon*, *industri gizon* bezalakoak hasi zaizkigu sortzen. Horietarako askotan oso egokiak dira *-ari* atzizkiaren bidez sorturikoak (*gerrari*, *gudari*, *legelari*, *industri(l)ari*...), nahiz mugak ere badituen (*elizlari*???). Kasuan-kasuan aurkitu beharko genituzke ordain egokiak: *gizon/emakume* bigarren osagaitarako erabiliaz, orokorragoa izan daitekeen *jende* edo antzekoren bat bilatuaz, etab.

Azkenik, urte honetan zehar egunkarietan halako polemika sortu duen *gizon*, *gizaki*, *gizarte*... izenen kasua genuke; hau da, *gizon*, *giza*- izenetatik sortu direnena. Eztabaida nahikoa ezaguna izan zenez (zehaztasun gehiago nahi dituenak jo bezala 1992ko martxoan-apiriletako *Euskaldunon Egunkaria* ikustatzera), nire ustez arazoari nondik heldu beharko litzaiokeen azaltzen ahaleginduko naiz, zenbait puntutan bilduaz nire iritzia:

1. *Giza*- oinarria, *gizon* izenetik datorren arren, *gizaki* edo *gizarte* izenak nola erabiltzen ditugun hartu beharko kontuan. Hau da, jatorriak jatorri, gizonezkoen "arte" bakarrik izendatzen duen *gizarte*-k ala bai gizonezko eta bai emakumezkoek osatzen dutena. Beste horrenbeste *gizaldi*, *giza harreman* eta horrelakoetan. Nondik datozen alde batera utzirik (*humanidad* bera ere *homo*-tik dator), beti bi sexuak izendatzen dituzten neurrian, –eta ez batzuetan gizonezkoen "arte", "aldia", "harremanak" eta bestetan *gizon* eta emakumeen artekoak—, ez nuke hor sexismorik ikusiko. Azken batean emakumea ez litzateke emakumea izkutuan, isilpean utziko, gizonezkoak bakarrik adierazteko modurik ez dagoelako.
2. Auzi larriagoak sortzen ditu gizonezko eta emakumezkoarentzat termino orokorraren beharrak, *ser humano*, *être humain*, edo *human being* izenen kide nahi genukeenak. Egia da horretarako euskarak *gizon* erabili izan duela balio orokor batekin: *gizona gizon deino*, *gizon hilkorra da*... Eta hori izan daiteke hizkuntzalararen (zenbait hizkuntzalariren) ikuspegia: *gizon* termino neutroa da halakoetan. Baina erabilera horrek badu bere arriskua, García Meseguer-ek "salto semántico" deitu zuena: lerro batean (edo orrialde batean) *gizon* balio orokorrean erabil dezake idazleak edo hizlariak, eta handik zenbait lerro beherago, edo beste orrialde batean, adiera estuan "gizonezkoa" bakarrik izendatzeko. Ikus ditzagun literaturako adibide batzuk:

«zeru, lur, egurats, gizon, nigana ditut epaile-sur, oro begi»  
(Orixe)

«zuhaitzak egiten du gizonak hain beharrekoa duen oxigenoa»  
(Munita) (balio orokorra)

«halakotz utziren ditu gizonak aita eta ama, eta junktaturen zaio bere emazteari» (Leizarraga) (balio zehatza, "gizonezkoa" bakarrik izendatzen duena)

Alde honetatik *gizakume*, *gizaseme* edo *gizonezko sexu* bakarra izendatzeko erabili dira: "gizonezkoak".

3. Arrisku hori oso argi ageri da euskaraz *gizonak* pluralaren erabilera aztertzen badugu. Batzuetan *gizonezkoak* eta *emakumezkoak* dira; bestetan *gizonezkoak* bakarrik (eta hori zehaztu egiten da). Beste batzuetan, aldiz, zalantza sortzen zaigu nori buruz ari ote den idazlea:

«gizon, abere eta beste bizidun guziak» (Lardizabal) (balio orokorra)

«lau mila gizon, kopuru honetan emakume eta haurrak sartu gabe»  
(autore berak, balio zehatzean)

«sei mila gizon, emakume eta haur» (Lardizabal)

«Judako tribu bakarrean bortz ehun mila gizon» (Larregi) (zer dira "gizonezkoak" ala gizon eta emakumeak?)

«lerrokatzen dira hamar edo hamabi gizon, auzokoak, bere aitzur xorrotzekin» (Zubiri) (badirudi "gizonezkoak" direla)

4. Azken urteotan *gizaki* hedatu zaigu termino neutro bezala. Eta egiaz hegoaldeko euskaldunak hala sentitzen duela dirudi. Iparraldean, oster, (eta Hegoaldeko autore batek baino gehiagok ere hala erabili izan du) tradiziozko erabilera gure *gizakume/emakume*, *gizonezko/emakumezko* bikoteen parekoa du, *gizaki/emazteki* oposizioan:

«gizaki ta emazteki arteko» (Mendiburu)

«gizaki ta emazteki egin baituzu gizadia» (Orixe)

«ta emaztekiarendako gizakia»» (Mendiburu)

«**gizona** egin zuenak, **gizakia** ta emakumea egin zituela» (Iraizoz)  
(azpimarratzekoa *gizon*-en erabilera orokorra eta *gizaki*-ren erabilera zehatza)

«Josef izena zuen gizakiari ezkontze-hitza emanik zegoen birjinarengana»

5. Egoera honen aurrean ez da erraza euskaraz *ser humano* edo *être humain* izenen pareko termino "neutro" a proposatzea, *gizon* hala erabiltzeari utzi nahi badiogu, behintzat. Bide bat, Iparraldeko tradizioko erabilera ahaztuz, *gizaki*-ren gaurko euskara batuko balioa bultzatzea genuke. *Jendaki* ere proposatu izan da, baina bi arazo ditu: ez du bat ere biderik egin eta Iparraldeko hitza izanik, Lhandek bere hiztegian beste balio bat ematen dio (lehen adieratzen "race, espèce d'hommes" ematen du, eta bigarrenik "parenté, famille"). Antzekoa gertatzen zaio beste batzuetan batek edo bestek proposatu duen *jende*-ri ere: euskaldun askorentzat balio kolektiboa du, ez pertsona bakarrarena; eta Lhandek hirugarren adieratzen ematen dio "homme, créature humaine, individu". Dena dela, gizartean gai honetan eragina izan dezaketen sektoreak bildu, akordio batera iritsi eta erabilera hori bultzatetik etorriko litzateke nire iritziz konponbidea. Baina beti ere jakinik nonbaiten bortxatu beharko dela tradiziozko erabilera.

Izango dira beste erabilera sexista batzuk ere (ez dugu, adibidez, "les délégués et leurs épouses" bezalako ezker aurkitu, bidenabar *ezkontide* bezalako ordain egokiak aurkitzea ez dirudi oso zaila denik), baina lehen fase honetan behintzat ez gara horietaz ohartu.

Ikus dezakezuen oraindik hasten ari gara eta bide luzea dugu aurrean. Gaur zer dugun erdi-egina, zer erabat eginkizun azaldu nahi nizuen, etorkizunerako iker-lerroak markatu. Hemendik aurrera guztion ahaleginak bilduaz bideak urratzen hastea eta urratzen hasitakoei jarraitzea dagokigu. Eta alde honetatik gizarteak, komunikabideetako langileak, irakasleak, administrazioko langile eta arduradunek... guztiok azken batean gai honen aurrean dugun "sentiberatasunak" zerikusi handia izango du. Izan ere, inguruko hizkuntzetan egin diren proposamenak eta artikulu honetan euskararako irtenbide posibletzat aipatzen direnek honakoa eskatzen dute: emakumeak gizartean eman dituen aurrerapauso horiek hizkuntzan ere islada daitezela. Honek ezinbestean zenbait hizkuntz ohituraren aldaketa dakar berekin. Kontua da gramatikak, zuzentasunak eskatzen ez dituen aldaketak diren heinean, zenbaterainoko borondatea eta sentiberatasuna izango duen gizarteak emakumeentzat (zenbaitentzat bederen) mingarri gerta daitezkeen usadio eta erabilerak baztertuz bide berriei ekiteko.



## OHARRAK

- 1.- Miren Azkarate: «Hizkuntzaren Azterketa», *Hezkidetza Hezkuntz Sistematan*, I.P.E.S. Ikastaroak, Formazio Koadernoak 16. zbkia, 59-66 or.
- 2.- Ikus «Guidelines on non-sexist Language» eta «Pour une langage non sexiste», texte établi par l'Office des conférences, des langues et des documents (COL), Unesco. Eta «Propuestas para evitar el sexismo en el lenguaje» Instituto de la Mujer, Madril, 1989. Minister of Supply and Services: *On the Treatment of the Seces in Research*. Social Sciences and Humanities Research Council of Canada, 1985.
- 3.- Badira horretaz gain Begoña Muruagaren beraren «Euskara eta Sexismoa» laster azalduko dena eta Miren Azkarateren «Euskara Estandarra eta Hizkuntza-sexismoa» *Ele* aldizkarian argitaratzekoa.
- 4.- A. García Meseguer (1984): *Lenguaje y discriminación sexual*, Montesinos, Bartzelona.
- 5.- Espainolaren kasuan hor ditugu Alvar (1969), «Hombres y mujeres en las hablas andaluzas», *Variiedad y unidad del español*, Prensa Española, Madril, 129-146 edo Villena (2975), «La palatalización de la -a en andaluz», Lizentziatura-tesia, Granada.

## BIBLIOGRAFIA

AEBISCHER, V.; *Les femmes et la langue*, PUF, Paris, (1985)

BUXO, M.J.; «Comportamiento lingüístico de la mujer en situaciones de aculturación y de cambio social» *Bilingüismo y biculturalismo*, Cl. Esteva et alii (eds.), ICE, Universidad de Barcelona, 172-192, 1978.

GARCIA MESEGUER, A.; *Lenguaje y discriminación sexual*, Montesinos, Bartzelona, 1977.

IRIGARAY (ed); *Le sexe linguistique*, Langages, Larousse, Paris, 1985.

JUANENA, A.; «Hizkuntz sexismoa eta euskara» *Jakin* 65, 1991.

KEY, M.R.; *Male/Female Language*, Scarecrow Press, Metuchen, New Jersey, 1975.

KRAMARAE, Ch.; *Women and Men Speaking*, Newbury House, Rowley, Massachussets, 1981.

LAKOFF, R.; *Language and Woman`s place*, Harper and Row, New York, 1975.

*La mujer en el mundo contemporáneo. Realidad y perspectiva*, Servicio de Publicaciones de la Diputación Provincial de Málaga.

MILLER C. eta SWIFT K.; *Words and Women. New language in new times*, Doubleday, New York, 1977.

RYSEEL, D.; «Diferencias entre el habla femenina y la masculina en español» *Thesaurus* 36, 305-318, 1981.

SMITH, Ph. M.; *Language, the sexes and society*, Blackwell, Oxford, 1985.

THORNE B. eta HENLEY N. (eds); *Language and sex*, Newbury House, Rowley, Mass, 1975.

THORNE, B., KRAMARAE, Ch. eta HENLEY, N.; *Language, Gender and Society*, Newbury House, Rowley, Mass, 1983.

YAGÜELLO, M., *Les mots et les femmes*, PUF, Paris (2), 1982.

# EMETASUNA LURRALDE DESBERDINETAN

**Itziar Arruti**

Kultura eta garai guztietan, jokabideak neurtzeko sistemak eraiki dira arlo guztietan; lanean, harreman sozialetan eta batez ere familian. Familia gizarterako integrazio-tresna da, sozietateko instituzio garrantzitsuenetarikoa. Instituzio honetan, kultura desberdinetan K.a.tik emakumearen papera sexualitateari dagokionez nola bilakatu den azaltzen saiatuko naiz.

Kultura desberdinetan emakumeak bizi izan duen egoera, kanpotik begira desberdina dirudi, baina oinarriari so eginez ez dela diferentzia handirik ematen ikusten da, nahiz ohiturak berdinak ez izan badirudi balore eta jokabideak antzekoak direla.

Emakumearen rol sozial eta sexuala elkarren menpekoak dira eta batak bestea mugatzen du. Biologia aldatzea ezinezkoa da baina bai rol soziala; hala ere, historiak erakutsi digun bezala badirudi hau oso zaila dela.

Gaiari buruz datu historiko gutxi daude. Sexuari buruz izan den tabua dela medio, oso datu urriak azaltzen dira emakumearen sexualitate-eremua nolakoa izan den azaltzen dutenak.

Ekialde eta mendebaldeko emakumearen bizitza sexuala K.a.tik nola ematen den familiaren barnean ikusiko dugu. Honetarako ekialdean Txina eta Japonia azaldu ditut, Grezia eta Erroma mendebaldean.

Herri hauetako gizarteak historiaren existentzian fundamendu desberdinak ditu, kokapen desberdina, klima desberdina, ohitura... Horrenbestez, bi kultura diferente hauetan ematen den emakumearekiko infrabalarazioa berdintsua da.

**MENDEBALDEA:****GREZIA:**

K.a. garaian, greziar inperio osoan, sexuaren helburua ugaltzea da eta hau da emakumearen eginbehar bakarra sexualitateari dagokionez. Egoera hau bi arrazoi dela medio ematen da:

**ERLIJIOA:** Arbasoen zoriontasun iraunkorra. Hau da, hildakoek zoriontasuna lortzeko ondorengoak ziurtatu behar dira.

**SOZIALA:** Grezia barnean enfrontamentu ugari ematen dira; honetarako gerlariak erditu behar ditu emakumeak.

Betebehar hau betetzeko ezkondu egin behar du, haurtzarotik helburua lortzeko heziketa jasotzen duelarik.

Ezkontzeko adina iristen zaionean honen aitzak erabakiko du zein izango den bere senarra. Instituzio hau era bitxian burutzen zen; ezkontza-egunean, emakumea senargaiaren etxe atarira azaltzen zen aitaren eskutik, hemen gizonak emaztea bahituz. Ekintza honen bitartez senarraren indarra azpimarratzen zen.

Behin ezkonduz gero, emakumeak bere arbasoei uko egiten dio, beraz honek izandako ondorengoek senarraren arbasoen zoriona ziurtatuko dute.

Emakumearen papera haurrak izan eta etxea zaintzea izango da. Klase sozialen arabera, ohiturak bide desberdina hartzen du:

Goi-mailetan haur ugari izan arren, nodriza izeneko langilea zuten hauek zaintzeko.

Behe-mailetan haur asko izatea ez zen posible, ez baitzuten gaitasun ekonomikorik hauek aurrera ateratzeko. Honen aurrean abortoa baimendua zegoen senarrak erabakitzen zuen bitartean, emakumearen erabakia suertatzen zen unean honek zigorra jasaten zuen.

Garai honetan \*Ginne\* deituraz izenpetzen zen emaztea, hots, erditzen duen emakumea. Esan behar jaiotza-kopurua handia zela, urtero ia haur bat izaten zuen greziar emazteak.

Emazte greziarraren betebeharra haurrak izatea da, plazerrerako beste emakumeak daude, konkubinak....

Beraz emaztearen papera garai honetan haurrak izatearena izango da. Plazer sexualerako beste bide batzuetara joko du gizonak, goi-mailakoak konkubinak erosiko ditu, behe-mailakoek aldiz, prostituzio legalizatu eta erregulatuaren aukera dute.

Argi ikusten da emakumearen menpekotasuna, bere senarra hiltzen zenean semearen menpe edo familiara itzultzen zen.

## **ERROMA:**

Erroman emakumearen rola klase sozialaren arabera eman da. Goi-mailetan gizonak emaztea luzitzeko du, honela haur gutxi izango ditu edertasuna galtzearen beldur. Ondorioz gizonak plazerra konkubinekin lortuko du. Behe-mailetan emakumearen rol sozial bakarra haurrak izatearena da.

Familiari dagokionez, ezkontza Grezian burutzen zen antzera ematen zen. Erroman ezkontza jai bat zen; K.a. 200 urterarte goi-mailekoen eskubidea eta gerora esklabu eta behe mailakoengan onartua izan zena. Ondorioz, ezkontzatik at ematen diren erlazio sexualak ugariago bihurtzen dira, kontutan izanik gizona gizonago konsideratzen zela zenbat eta erlazio gehiago izan ezkontzatik kanpo.

Garai honetan edertasunari garrantzi handia ematen zioten.

Ezkondu eta lehen hiru hilabetetan emazteak kontrakotasunen bat azalduz gero, gizonak hau bere familiara bidaltzeko eskubidea zuen. Lehen hiru urteotan ezin zuen etxetik irten. Bazkaldu ere, senarrak eta honen familiakoek amaitu ondoren egiten zuen.

Txinan ere emaztea haurrak izateko helburuarekin izaten zen. Plazerrera konkubinak zituzten.

Nohizbehinka gizonak emaztea jotzen zuen, senarrak gogortasuna azaldu behar zuen, bestela ahultzat jotzen zen. Senarraren gurasoen aginduak bete behar zituen, honi uko eginez gero etxera bidaltzen zuten eta hau gaizki ikusia zen Txinan garai hartan.

Dibortzioa baimendua zegoen gizonak erabakitzen zuen bitartean. Konfuzio enperadorearen garaian zazpi arrazoi zeuden senarrak erabakia hartzeko:

- Antzutasuna.
- Adulterioa.
- Zeloak.
- Hitz-jarioa: emazteak ahalik eta gutxien hitz egin behar zuen, bere eginbeharra ez zen hitz egitea.
- Lapurketa.
- Gizonaren gurasoen aginduak ez betetzea.
- Lepra.

Beraz, emaztearen egitekoa etxeko lanak eta haurrak izatea da, ahal baldin bada mutilak izan behar ditu eta hauek ez dira bereak senarrarenak baizik. Neska izaten zuten emazteek lotsaren ezaugarri, izkutuan hasten zituzten. Hauek, heziketa domestikoa jasotzeko aukera baino ez zuten, mutilek aldiz ikasketa zabalagoaren eskubidea zuten.

Konfuziotar moralak erakutsi zuen etxeko lanak emakumearenak zirela, senarraren eta honen gurasoen menpe zegoela; hauen aginduak inongo kexarik gabe bete behar zituela. Haurrak izan behar zituen, ahal bazen mutilak eta inoiz ez ziren bereak izango senarrarenak baizik. Azkenik alargunduz gero ez zuen berriz ezkontzeko eskubiderik, semeen menpe gelditzen zelarik.

Garai honetan Erromari epoka erotikoa esan zitzaion. Gizona \**equus eroticus*\* zen; dominatzen duena, emakumearen gain aurkitzen zena. Baldintza hauek betetzen ez zituen gizona ahultzat jotzen zen.

Prostituzioa Grezian bezala behe-mailakoentzat pentsatua dago. Dirudun gizonek konkubina "esklabuak" zituzten plazerrerako. Esan behar, prostituzioa oso araututa zegoela, burdelen funtzionamendua legislazioaren aldetik kontrolaturik zegoen.

## TXINA

Txinan emakumearen zapalkuntza nabaria da. Tradizioak dio, Fohi ama birginatik jaiotako heroi mitikoa, garaiz iritsi zela humanitatea emakumearen erasoez salbatzeko. Geroago mito hau kontutan izanik Konfuzio enperadoreak emakumeari buruz legislazio bat burutu zuen K.a. VI. mendean.

Gurasoek erabakiko dute seme-alaben ezkontza. Gehienetan erabaki hau haurrak oraindik jaiotzeko zeudela hartzen zen. Jaio ondoren, neskarekin ezkondu behar zuen mutila hila suertatzen bazen, emaztegaiak adin heldura heltzean bere burua hiltzen zuen hari fideltasuna azalduz, ekintza hau gurasoek gorai patua izanik.

Ezkondu baino lehen, ezkongaiak elkar ikustea debekatua zuten. Zeremonian, emakumeak aurpegia estalirik izan behar zuen, pozaren adierazpenik ezin zuen adierazi, gurasoengandik bereiztearen adierazpena izan zitekeelako. Horrenbestez gauean, logelan, emakumeak estalia kendu eta une honetan ikusiko zuen lehenbiziko aldiz bere emaztearen aurpegia.

## **JAPONIA:**

K.a.ko V-VI milurtekoetan, Japoniako emakumearen egoera Txinakoaren antzekoa da; gizonaren autoritatea, emakumearen menpekotasuna.....

Garaiko konkubinek zioten, emazteak haurrak izateko erabiltzen zituztela; plazererako aldiz prostituziora jotzen zuten. Goi-mailako klaseetan gizonezkoak konkubinak erosten zituzten.

Japonian emakumeak ongi zekien bete behar zituen arauak; gizonari zerbitzatu eta sexua zerbitzatu. Hau betetzen ez zuenak moralaren aurka jartzen zen. Bere eginbeharrak etxeko lanak eta haurrak izatearena da.

Herri honetako Hokkaido irlan ainu izeneko taldean hain zuzen; emakumeak arimarik ez zuenez lurrera begira ibili behar zuen, jainkoari ezin baitzion so egin. Taldeko gizonentzat dogma zen emakumeak ez zuela arimarik, honela, gorantz begiratzeko baimena emanaz gero, jainkoaren zigorraren beldur ziren.

Japonian beste herrietan ikusi dugun bezala emaztea haurrak izateko da eta konkubinak plazererako.



Egunero idazteko joera zuen emakumeak Japonian, egunean gertaturikoak idazteko joera. Aipatu behar da, idazki hauek irakurtzeko eskubidea zuela senarrak. Ondorioz pentsa dezakegu emazteak ez zuela berezko gertakizunik kontatzen gizonak irakurri nahi zituenak baizik.

1946.an legedia japoniarrak emakumearen eskubide zibilak onartu zituen; hala eta guztiz, egoerak ez du aldaketa handirik jasan.

\*Munduko herririk industrializatuena izanik, 320 biztanle km karratuko populazio-dentsitateaz, historia inperial sendoaz, azpimarra dezakegu, emakume langileen bostetik bat bortxatua dela bere nagusiaren eskutik. Baina Japonian hau ez da delitua. Berdintasun laboralari buruz orain dela hiru urte onartutako legeak, ez du agresio sexuala zigortzen\*. (El País, 15-10, 84).

## BIBLIOGRAFIA

FERNANDEZ DE CASTRO, C.; *La otra historia de la sexualidad*, ed. Martínez Roca, 1990.

FISHER, H.; *El contrato sexual*, ed. Argos Vergara, 1984.

APUNTES DE SEXOLOGIA; *Instituto superior internacional de sexología clínica*.

REVISTA: AÑO CERO; *El tabú de la sangre femenina*.

UNESCO; *Albistaria. Emakumea tradizioa eta aldakuntzaren artean*.

# EMAKUMEA ETA TORTURA

**Itsaso Idoiaga**

Euskal Herrian latza bada erakunde armatuarekin harremanak edukitzearen akusaziopean atxilotua izatea, infernu beltz bihurtzen dira komisaldegia emakumeentzat.

Bi dira torturazaitelen helburuak: bere burua edo hirugarren pertsona bat inplikatzeko duen atxilotuaren aitormena lortu, edota erakunde hiritar eta berauen kideei buruzko informazioa eskuratzea. Horretarako, gizona ez ematen dieten torturaz ez ezik (poltsa, elektrodoak, itomenak, sasi-ijekuzioak, kolpeak...), emakumeek tratua berezia edukiko dute: agresio sexualak, irainak, bortxaketak, seme-alabeenganako mehatxuak... Zapalketa bikoitza: abertzalea eta emakumea izateagatik.

Baina lan teoriko bat egin beharrean, 1992.eko lehen hiru hilabeteetan atxilotu eta torturatuak izan ziren euskal emakume batzuen hitzen bidez ezagutuko dugu zein den infernu hori. Ez dugu izenik aipatuko, edozein emakume izan baitzitekeen gertaera penagarri hauen protagonista.

## **AGRESIO SEXUALAK, BORTXAKETAK**

Badirudi beste lekutako beste garaiko gauzak direla. Baina ez, gaur eta Estatu espainoleko komisaldegietan gertatzen dira. Emakumeak biluztu ondoren, horrela segitu behar dute itaunketek dirauten bitartean, aldi berean flexioak, kolpeak, elektrodoak, ukitu nazkagarriak jasotzen dituztelarik.

Irakur dezagun A-ren testimonioa:

◊ Hankak ireki zizkidaten, eta sexu-organoetan jotzen ninduten (...) Hiru goardia zibil sartu ziren. Arropak erantzeko agindu eta biluzik nengoela, gorputz osoa ukitu zidaten, bai aurretik, bai atzetik. “Hau bai nazka. Ez dauka titirik” esan ondoren, korrontea ematen zuen makila bat pasatu zidan batek zangoetatik, bularretik, sexu-organotik... Gero bortxatuko nindutela esan zidaten. Hiru bolondres daude ni bortxatzeko. Ukitzen nautela sentitzen dut. “Puta hau ez da nire gustukoa. Nik ez dut putarik bortxatzen, baina erratzaren makila sar diezaioket ipur-zulotik” komentatzen dute bere artean. (...). Jantzi eta komunera joateko gogoia nuela esan nuen. Odoletan nengoela konturatu nintzen. (...) Berriz ere arropak erantzeko esaten didate. Odola dakusatenean: “Puta bat hilerokoarekin. Ez nau harritzen bere senarrak adarrak jartzeak. Guztiekin oheratzen da. Beno, berdin berdin bortxatuko dugu”. Gorputz osoa ukitzen didate ondorengoa esanez “Titi txikiak ditu. Ez da nire gustukoa. Zelako gorputz nazkagarria daukan puta honek”.

C-ren testimonioa:

◊ Galdeketa La Salven hasi zen. Neronek biluzteko edo beraiek biluztuko nindutela agindu zidaten. Arropak erantzi nituen. Leku guztietan ukitzen ninduten. Erratz baten makila erakutsi eta hori edo guardia zibil baten zakilaren artean aukeratzeko esan zidaten. Makila sartu behar izan nuen nire maginan pixka bat. Gero batek pistola bat jarri zidan ahoan eta tiro egin zuen. Deskargaturik zegoen (...). Gau osoan zehar, gizon bat zetorren, biluzteko agindu, eta gero bera masturbatzera behartzen ninduen. ◊

D-rena:

◊ Biluztu ondoren, gorputz osoa ukitu zidaten. Makila edo goardia zibil baten zakilaren artean aukeratzeko agindu ondoren, pistola bat sartu zidaten maginan. Gero buruan jarri eta tiro egin zuten balarik gabe. Galdeketa guztiak izan ziren antzerakoak, neu biluzik eta nire burua edo beraiek masturbatzea agintzen zidatarik. (...). Hurrengo egunean, goardia zibil batek eskuaz eta barrabilez ukitu ninduen. Behin, etzanarazi ninduen, maginan eskua edo hatzamar batzuk sartu zizkidalarik. Ez dakit zenbat denbora iraun zuen, baina niri eternoa egin zitzaidan. Oso nekatuta nengoan. ◊

I-rena:

◊ Goardia zibil baten barrabilen gainean eseri ninduten, aurrera eta atzera mugitzen zen bitartean. ◊

Eta mehatxuak. I-k hauxe kontatzen du: “Ostikada batez antzu utziko nindutela esan zidaten, eta zerbait ekarri zuten, makina bat edo, hori lortzeko.”

J-ri botila bat sartuko ziotela maginan esan zioten. Eta odolez zikin bat hartu zuten, hepatitis edo IHESa zeukala esanez. Zorionez, dena mehatxuan gelditu zen.

Eta guzti hau gertatzen den bitartean, etengabeko irain-jarioa entzun behar dute. B-ri honela esaten zioten. “Putxa, zorra, guarra. Titiak edo ipurdia itsusia daukazu. Zenbat militanterekin oheratu zara? Ziur guztiakin izan dela. Zenbat kobratuko zenuke gurekin larrua jotzearen?”.

I-k haxe gogoratzen du: "Mota guztietako komentario matxistak entzun nituen: nire mutil lagunarekin mantentzen dudana erlazioa, inpotentzia, antzutasunari buruzkoak... Eta mehatxu sexista ugari ere".

J-ri ondorengo gauzak galdetzen zizkieten: "Zenbat bider miazkatu diodan zakila mutilari, zenbatetan eman didan ipurditik... eta honelakoak itauntzen zizkidaten".

## FAMILIARENGANAKO MEHATXUAK

Torturazailleak, emakumeen punturik sentiberena aurkitzen saiatzen dira; eta behin min gehiena ematen diena topatu, bertan jartzen dituzte mehatxu guztiak. Askotan puntu hau familia da: gurasoak, seme-alabak, kideak...

E, zazpi hilabeteko haurdu zegoela atxilotu zuten. Honela esaten zioten: “Aborta dezazun eragingo dizugu. Ostikadak emango dizkizugu. Baditugu abortoa probokatzeko metodoak, eta ez da inortxo ere enteratuko”. Azkenean, konbultsioak eduki zituen eta torturazaille batek lasaitu egin behar izan zuen gezurra zela esanez, abortatzen bazuen bere nerbioengatik izango zela.

F, alaba galtzeko arriskuan egon zen. “Nire alabak urtebete du. Goardia zibila nire bila etorri zenean, esnatu eta oihuka hasi zen. Ordubete ohe gainean histeriko egon ondoren, umea zaintzen duenari sartzeko baimena eman zioten, alabarekin gelditu zelarik. Oraindik amets gaiztoak ditu. (...). Itaunketa batean, kolpeka hasi ziren. Lurrera bota ninduten, eta erdi itota eta ia konortea galdurik nengoenean, batek boligrafo bat jarri zidan eskuan eta zerbait sinatzera behartu ninduen. Gero, nire alabatxo beraien eskuetan utzi nuela, patria potestad delakoa itaunketan zegoen emakume funtzionariari eman niola esan zidaten. Gezurra zen, baina nik ez nekien, egia zela uste nuen.”

G-ri bere semeen aurrean hilko zutela esan zioten. Bere semeak negarrez ari ziren amaxu amaxu oihukatzen zutelarik. Etxetik atera zutenean, semeak musukatzeko baimena eman zioten, ikusten zituen azkeneko aldia zela esanez.

Gero, komisaldegian, seme bat zeukatela eta, aldez aurretik prestaturiko aitormen bat sinatzen ez bazuen umea torturatuko zutela esan zioten G-ri. Zeldan, senarraren ondoan jarri zuten emakumea, senarraren garraxiak eta eztulak entzuten zituelarik.

## **TORTURATZAILEAK**

Torturetan parte hartzen dutenak gizonezkoak izaten dira, goardia zibilak, polizia nazionalak, zein ertzainak. Metatuta daukaten gorrotoa, agresibitate eta frustrazio guztiak atxilotuak torturatzen askatzen dituzte. Behe-mailako pertsona bezala tratatzen dute emakumea, haren militatzeko kapazitatea zalantzan jarritz: “Hemendik benetazko gudariak pasatzen dira, 40 hildako dauzkatena. Zu pringatu bat besterik ez zara, emakumea.”, esan zioten A-ri.

Baina torturatzen ere ikasten dute. J-k honela kontatzen du: “Ertzain bat zebilen handik (Dirección General de la Guardia Civil delakoan), atxilotuei itaunketa bereziak egiten ikasten ari zelarik. Iñaki deitzen zioten”.

Emakume poliziek ere torturatzen dute, gizonezkoek beste indarkeria eta sadismoa erabiliz. Hauxe adierazten du C-ek: “Gero emakume bat etorri zitzaidan La Salven, eta gorputz osoa ukitu zidan berarekin primeran pasatuko nuela esanez. Nire kidea apurtuta utzi zuela komentatu zidan”. I-k eta J-k emakume baten parte hartzea ere deskribatzen dute.

Eta testigantza guzti hauek, bere burua demokratizat hartu eta bertan torturarik ez dagoela aldarrikatzen duen estatu batean gertatzen delako adibide batzuk besterik ez dira. Beraz, imagina ezazue herri “ez-demokratiko”-etako komisaldegi eta presondegietan emakumeek jasaten dutena.

# **COME HOME FOREVER ROXALI!**

**Emaztea eta exodo rurala Iparraldean: 1920-1955.  
-mitoak...bederen-**

**Itxaro Borda**

**gure aitzineko belaunaldietako amama,  
ama, izeba, kusina hurbil eta urruner,  
Roxali askoren gisarat, Parisen,  
urteak urtetegi higatu zituztelakotz...  
oroituz...**

Garai batean, historiako ikasketak egiten ari ginela, munduaren bilakaera dramatikoaren ikuspegi “poetikoegira” lerratzen ginelako fama genuen. Historia, bere odolerian abandonatzez, osoki eman ginen “poesia”ri, eta gaur, arras bitxi zaigu, berriz, ixtant batentzat, poesiaren ildoari uko egin beharra. Bereziarietiek agian, gure huts metodologikoak barkatuko dizkigute.

Baina, poesia edo nobela idazten dugunok, gaizki ala ongi, ez da auzia! ba dakigu hitzak ez direla inoxenteak, eta **Tupintegiko Roxali** kantu arrailanta eskoletan edo katiximan erakasten zigutenek ere bazekiten, neskakilak behintzat, kantuaren hitzak barneratzeaz gain, sozietateak emaztei begira zituen oinarritzko eredu zenbaitetaz jabetzen ari ginela: nolako emaztea ez den izan behar, alegia. Azkenean, bizi-kriterio batzuk menperatzen hasten ginen, ur bazterrean, udako arratsalde beroetan, amarekin, ardi-ile kardatzen artzen ginelarik.

Amaren sor-etxeko bost haurrideetarik lau baziren denbora batez Parisen sehi edo mutil lanetan zirenak (1945-1955 urteetan zehar). Adibide ximple hori Iparraldeko hainbat etxez biderkatzekoa daiteke, herriskek jasan zuten exodio ruralaren ideia baten ukaiteko. Amaren familiakide gehienak itzuli dira geroztik, baina ez gara sekulan menturatu galdegitera TUPINTEGIKO ROXALI kantuaz zer iritzi zuten. Kantua, sinadurarik gabe –noski–, 1940. urtean argitaratu zen edo ezagun bihurtu zen urte horietarik goiti, gerla eta “okupazione” denboran beraz.

Pentsatzekoa da, hala ere, min amiñi batekilan hartzen zituztela, sor-jendarteak, manera burlakoi hartan, azaldu prozesu sozialaren salaketa, baina, gure aitzinekoek, iragan garaia umiltasun askoz pairatu zituztenek, kantuaren gezurreztatzeko bezala, ahaleginak oro egin zituzketen “Herrian Bizi, Herrian lana” slogana aho-zokoan edukiko zuten haur-zionea munduratu. Eta konturatzen gara, demagun Amikuzen gaindi ibiltzez, herriak oraino husten ari direla, eta nolazpait TUPINTEGIKO ROXALI frango badagoela gure artean.

Imagina dezagun Roxali, Peyroradeko edo Baionako geltokira heltzen ari dela, hamabi nahiz hamalau oren tren zatatsuetan gastaturik, oso akiturik eta “aferaz” kargaturik. Etortzen da, hilabete bateko bakantzak “etxen” pasatzerat. Alabaina, kantua 1940an idatzirik, ez ziren hain urrunekoak, 1936ean Front Populaire delakoak, langileei eman Congés Payés haien ondorioak. Beha dauzka kaiertze keztatuan, anaia bat edo aita, arraileria zahar bat lekuko, beste Tupintegiko Roxali anonimo baten erranen arabera: ”aita jin zitazut xeka avec les orgues!”, hau da, idipare galantek tiratu orgekin. Harrotasun “normalaz” gain, imagina dezakegu neskaren zoriona “etxerat” hurbiltzean.

Erran behar dugu lehenik, Parisen sehi zabiltzan nesken harrotasunak arrazoinik bazuela: alabaina, kasik sortzetik herritik joan arte, serora-eskoletan eta prediku aulkietarik erakutsia izan zitzairen HIRIA lazgarriko infernua zela, nesken gal-toki zehatz. Itzultzen zirenean, gogo zuketen orori frogatu hiriaren landerra ez zela gaindiezina, eta nornahik –probetxuz– ber gauza egin zezakeela. Kantuan agertzen zaigun Roxaliren estereotipoa etxalde ttipi batekoa dela argi da, bizigaitzetik salbazionera jauzi egin duena, exilioaren bidea hartuz. Edozein gisaz, zapalduenak zapalduarekiko duen harremana arras garrantzitsua da, konpli daitekeen guzia FROGA eta ETSENPLU moldean erakasten baitu.

Kantu-egilea ohartzen denez, Roxali -etxetier alaba agian!- erabat itxuraldaturik dabil bere sor-herrian. Zapata “takoin”dunak daramazki, ezpainak gorriturik, orobat modan da, bixtan dena ez herriko modan, Pariseko “proletario inmigratuen” usantzak segitzen baititu. Ahantzezina da, garai haietan, hiri handietan urtzen ziren inmigratuak frantses probintzietarik edo Europako gune praubeenetarik etortzen zirela. Kantu-egileak, nahitarat, Roxaliri jartzen dizkio sor-jendarteak “prostituzioneaz” dituen ideien elementuak: arropen koloreak, arintasuna, eta gainera “karrikan xut-xut ibilki” da zigarreta bat dukeela behatz puntetan, emazteak pipan orduan ze itsuskeria! Idazleari axolagabeko portamodu hori, neska batentzat, jasankaitz zaio, batez ere. ”Kukutegi”etako alabek xuguntasun gehiago ukaitea hobe bailukete, non ez den nortasunaren ahalge pixka bat. Roxalik, bere destinutik “ateratzeko” egiten dituen bermealdiak desbalioturik dira. Baliorik ere ez dute. Roxalik frantsesez mintzatzen dakiela aitzinatzeko betetzen dituen urratsek. Kantu-egileak, molde komiko-ironi maltzur batez ziminotzen ditu Roxalik erabiltzen dituen frantsesezko eleak: “bonxour”, “xoli”, “j’en suis Gaskun” . . ., eta hizkuntza mailan, menturaz, Tupintegi Roxali “laborari-alabak” euskararekin aski baluke, izkribatzalearen ustez bederen.

Baliteke, Roxaliren konportamenduak herriari zenbait desafio eskaintzen dizkiola, ardura horrela agitzen bait da, herri batean, familia behartsuenetako haurrak baitira partitzerat bortxatuak, non ez duten “klientelismo-sistema ongi antolatu” batean parte hartu nahi, eta sistema horretan ere, ez da orrendako lekurik. ”Klientelismo-sistema” horren partaide dira noski, herriko notableak: apeza, auzapeza, errientak eta laborari helduak (etxeko jaunak). Hauen bitartez, lana edo senargairik egokiena aurkitzea ahalezko bihur zitekeen. Roxalik, karrikan “xut-xut” paseatzean erakutsi gei duke bere meritu xoilan bidez hein hortarat iritsi dela, exilioaren momenturik beltzenak gainditurik, doi bat merezi duela daraman itxura.

“Self made woman” itxura harroaz segitzen baldin badugu, erran genezake, Pariseko “proletario inmigratuen” artean bazegoela halako kompetizione bat, probintzietarik XIX. mendean finkatu estereotipo “zozoloen” kontra borrokatzeko. Estereotipoak, Pariseko intelektualek, herrietako notable handien laguntzaz eraikiak izan ziren. Euskaldunak, adibidez, atzeratuak ziren, irrigai, baina famaz



turkak bezain langileak, bretoiak, alkoholiko hutsak eta mediterraneotarrak auhertziri andana bat. Roxaliren indarrak, etorkiko kultur ezaugarrien ezabatzeko nahikundeetan koka ditzakegu. Jantzera, ibilera eta mintzaerak aldatzen saiatzen da, jadanik “asimilatuak” direnen trufak ez jasateko. Roxaliren itxura berriak “geriza kultural” eragin bat eduki dezake, norberaren “survival” desiren inguruan. Idazleak, “geriza kultural” horren premiarik ez du asmatzen, edo, nehoiz burlatua izan ez denez, ez susmatzen ere. Emazteen imigracionean zehar (1920-1960) gauza harrigarri bat azpimarra daiteke, hau da, ez dela sor-jendartearen eta partitzen zirenen arteko elkartasun-sendimendu izpirik egon, 1952-1953 urteak arte bederen, orduan sor-jendarteak aumonier bat bidaltzen baitu Parisera, ardi galdu horien guzieren biltzeko. Gutxi gora-behera epoka horretan eraikiko zen Pariseko Euskal Etxea. Elkartasunaren konzeptuarekin jarraituz, alderantziz, nabarmen da, Ameriketarat joan ziren gizonek kantu hunkigarri-romantiko gehiago erdietsi zutela: “maitatua sobera...” eta beste. Ausart gintezke eransterat, oraino ere zorigaitzez, emazte baten desterratzea ez dela hain bortizki senditua gure sozietatean.

Aipatu dugu 1850-1950eko gizonen Ameriketarako exodo saldoa. Eta hemen desberdintasun handi bat agertzen zaigu: gizonak partitu dira “Nevadako bortuetarat” sor-jendartean egiten zuten lan beraren betetzeko, artzaintzarat orozbat, beraz beti baserritar mundu batean murgiltzez, eta itzuli direlarik, pobre edo aberatsez dute berekilan ingeles edo espainol hizkuntza karreatu. 1920tik harat, behin Miarritzerat, gero Pauera eta handik Pariserat edo Bordelerat zihoazen emazteak izan dira masiboki mundu hiritarrarekin jo duten kasik lehenak. Hor zegoen egiazko ozka, landerra, eta hori “euskaldun-fededun” sistemak nolabait desbaliotu behar zuen, kanalizatu, burla lodiaren bidez.

Beti erraiten da, irri egitea on dela osagarriarentzat, batzuetan hobe dela egunero hamar minutuz karkazailka artzea, 100 gramo steak jatea baino. Baina irriak badu bere zeregina jendartean, eta hitzaren gisara, irria ez da sekula inoxentea. Konturatzen gara, Euskal Herrian, momentu gozoak pasatzeaz gain, trufatzeko ere erabiltzen dela, bertsolarien edo kantarien ahotik. Gehienetan “arazo kolektibo” baten esprimitzeko noiztenka irriaz beste “armarik” ez da, fenomeno soziala azkarregi denean adibidez. Emazteen exodo rural itxuraldatzailearen aurrean bezala. Bi irri mota bereiz ditzakegu ordea: bat, sozialki helduaren irri “sanoa”, demagun Piarres Adame batena, eredu orokorraren araberrako zuhurrarena; bestea, “ozpintsuago” dena, eta hunkitzen duena, kolektiboaren modeloetarik kanpo dabilena, edo dabilzan talde sozialak, herriak eta herrialdeak barne, beti ere, talde sozial horiek, irri egiteko eskubidea hartzen duena baino hein apalagokoan daudenak: mutxurdin-karlos/donadoak, buhameak, sexu ahulekoak, lurretik bizi ez direnak, eta zerrenda aisa luza genezake, kantutegi bat edo beste eskualatzen bagenu. Irri mota hori prezeski, erabiltzen du, 1940.eko urteetan zehar, Tupintegiko Roxali ridikulizatzen duen luma anonimoak.

Idazlearen "portrait-robot" bat egiten saiatzerakoan, pentsa dezakegu, mintzairaren airostasunetik, bertsolari xotil kutsu zerbait baduela. Menturaz, apeza da; baina deusek ez digu horrelako azalpenik segurtatzen. Apez izan ala ez, agian "Eskualduna". "Gure Herria" edo "Aintzina" aldizkarietako kolaboratzaile (behintzat leitzale segitu?) dela sumatzen dugu, garai hartako idazkietan solas berdinak ardura irakurri baititugu. "Moda Berria"z erasiakan ari zirenen taldeko partaide: Lafitte, Larzabal. Gazteiz, Oxobi, Zerbitzari, Leon, Andere Jaureguiberry... Eta duen euskararen kalitateak bide hortarik zilatzerat bultzatzen gaituke: idazle-eskolatu bat (euskara-frantsesa-latinaren jakile)...mihi-zorrotzekoa!

Gizon eskolatuak "kometitu" Tupintegiko Roxali kantua hurbiltzen ahal dukegu, gorago aipatu aldizkarietan, "moda berriaren" (janzkera) eta "eskuararen galtzearen"(izaera/mintzaera) arteko zubi argia egiten zuten testu zonbaiter. 1942an, AINTZINA hilabetekariak honako hau argitaratzen du: "Joan den aldiko "Aintzina"n Gazteizek zion eskualdun neska gazteak itsutuki modari josiak zirela. Egia erran, hortan ditake gure ahulezia, gure eskasa. Sosa bezainbat, moda zozo horrek gaitu deitzen zorigaitzez hirietarat, moda zozo horrek dauku ekarri herrixka-ttipietaraino frantximant erasia...". Bukaeran dagoen oharpenak Tupintegiko Roxaliren bertsoak juntatzen ditu: "Hiriko hats ustelak kotsatu ditu gure xoko garbienak!"

Kantuan azaltzen den ideia hori, orduko ideia garrantzitsu bat da: HIRIA/USTELKERIA... Emazte inmigranteak ehaintzen du, baserri "garbienaren" eta hiri "zikinaren" bitartekari haria. Mehatxuak hain dira bistako, non "garbitasunaren" konzeptua aztertzenagotzen duen, 1943ko apirilaren 27ko Eskualdun Gazteen Biltzarreko predikuan Larzabal apezak: "Apez eskualdun gisa, mamu hetarik biga dauzkizuet bereziki aipatuko: erdara eta lizunkeria!" Mutiko eta neskatxer mintzo da: "zerk egiten du bada, Jainkoaren begietan, odolaren garbitasuna? Lizunkeriak nahastekatua ez izaiteak! Lizunkeria ezagutzen ez duen odola, hura da Jainkoarentzat odol garbia...beraz neskatx eta mutil eskualdunak! Nahi duzue zuen odola garbi atxiki? Begira zaizte lizunkeriatik. Egiaz derauzuet, Jainko maitearentzat, hobe da Eskual Herria kaskoidua, baina on gelditua (horrelako amets egin ditekea?) ezenez eta Eskual Herria eskualdun gelditua baina tzartua..." Larzabal zenaren erakaspenean oro biltzen dira: garbitasunaren elementuak, odola, eskuara, eta jakin badakigu kultur mundu hura kudeatzen zutenentzat nor zen GARBITASUNAREN ardatz edo aktore. Emaztea zen. Emaztearen gain finkaturik zen "mundu zaharraren" salbatzearen prozesu osoa. Menditarra ezizenez sinatu beste testu batean, urte berdinetan, istorio honen hogenduna behatzaz erakutsia da: neska gaztea, ukatzale-trahitzaile. Tupintegiko Roxalik, errealitate gogorra izan behar zuen, hainbat luma zitaltsuen oldarrak jasaiteko. Edo agian, beldurra asmakuntzaz, zinezko landerra ertu baino lehen hedatzen zuten. Hauxe dio Menditarra delakoak: "Neskato gazte batzu bereziki ahalge dira beren burrasoak bezala mintzatzeko: ez dea hori ez bakarrik eskuarari bainan aitamer berer uko egitea? Egia erran, heien ezpain gorrituari segur erdara

hobeki doakio! Bost edo sei hilabete...sehi...egon direlakotz hiri batean, nahi daukute sinets arazi eskuara ahantzia dutela...Entzun zazue:”Jainkoak Tezela egun on Katixa! -Bonjour! -Zonbeit egunendako jina sor-leku xaharrerat? -Oui! -Jes! Eskuara ahantzi duzia! -oui, oui, oui, oui- (Zer balentria!) -Ori! Nun sortua haiz? Nundik ateratzen haiz? ”Ederki hori etxeko anderea! Nexkato ergel horrek etzuen bertze erreposturik merezi.” Aski nabarmen da, Iparraldeak jendarte aldaketa sakon bati bihurtzeko egiten dituen saioak, gehienak, larderiaz eta trufa merkez eramanak direla.

Halatan, eskola duten “notableak” ari dira EMAZTE INMIGRATUA desbaliatzen, kantuen edo artikuluen bidez, exodoak tentatuko lituzkeen neska gazteak aitzinetik “kulpabilizatzeke”, bai etxeari (familiari orohar) eta bai mintzairari begira. Larderia horien atzekaldean ba zena exodia geldiarazteko xederik? Ez dakigu...nehon ez baitugu, azken hogeikada hau arte, horrelako xederik irakurtu. Baina segur da, ”notable kulturalak” jakinez herritik hirirat partitzean norberaren nortasuna aska daitekeela, nahi ukan dutela kontrol sozialaren zama are gehiago astunago moldatu. Tupintegiko Roxaliak “Eskualdun Fededun” Jainko-legeari trahitzale gisa erakutsiak izanen dira oraino luzaz, jendarte aldaketari ihardespren zehatzagoak ondoko hamarkadan plantan ezarri artean (1950-1960).

Emazteen exodo rurala desbalioturik, Tupintegiko Roxali kantua dela medio, ber denboran kasik, puskaka inertzian erortzen ari zen euskal baserrietako sozietatea arramoldatzeko ideiak jalgitzen dira, kantu-egilearen inguruko taldetik. Hezkundea behar dela indartu diote, mutiko eta neskentzat. Astekarietan idazteaz gain, beren proiektuak eraikitzen hasten dira. Ongi neurtzekoak dira, orduko agerkarien indarrak: etxe guzietan sartzen ziren, eta guti-gora-behera, aldizkari bera seipazazpi jendeak leitzen zuten. Horien medioz, Tupintegiko Roxali arrakastatsu bihurtu baldin bazen, destinu horren samurtzeko deliberoak ere agertzen ziren hosto berdinetan. Jendea, kontrol sozial liferent baten eskale zen, eta sinesten zuen herriak bere haurrak hazten ahal zituela, nahikunte guziak bateratuz. Pariserat sehi joan emazteak ere, itzultzen ziren herriko gizonekin ezkontzeko, eta norbera ohart ziteken, Tupintegiko Roxaliak, azkenean, emazte “normalak” zirela. Ez hain normalak ordea, euskara ahantzi gabe, bizi-eredu “modernagoak” saiatzen baitituzten bakoitzak bere familian. Ekartzea segur aski ekonomikoki arras xehea izan zen, baina aberastea kultura mailan frogatu zela dudarik ez. Tupintegiko Roxaliek, Pariseko Eskual Etxean jastatu "eskualduntasan" zerbaiten ekarpena herrietan egin zutela ahantzi gabe.

Gerla ondoko garaietan, apezek gehienetan kudeatu dituzte, neskak “lizunkeria”tik urrun atxikitzeke mugimenduak. ”Les Filles De Marie”, “Eskualdun Gazteria” edo “Begiraleak” bezalako talde kristauak antolatuz. Gazteentzat, parroketan, gelak eraiki dituzte, igande arratsaldetan, teatroan liberti zitezen. Orduan, idatzi zituen Piarres Larzabalek bere antzerkirik ederrenak. Trufa

bultatik landa, jendartea kontrolatzen zuen saldotxoa konturatu zen, egiazko arazo bat bazegoela, eta herriko plazetan airostasun pixka bat hedatuz, ez zela gehiago Tupintegiko Roxalirik izango. Alabaina, sistema osoaren giltza, herrian egoten zen neskatxa-ama-emaztea zen. Honek hutseginez gero sistema lehertzeko arriskuan zegoen.

Gerla denboran, prezeski, AINTZINA hilabetekari laburrean, Mayi Eichechurik, 1942an emaztearen hiru egin-beharrak zerrendatzen ditu: lehen lehenik, eta oroz gainetik, emazteak onesta izan behar du (moralala aldetik noski), gero fedearen zaintzale, ohitura xaharren eramaile, eta azkenik mintzaira xugunaren erabiltzale. Emaztea ETSENPLUA da. Egin-behar horiek guziak barnatuko ditu. 1950.eko hamarkadan, Narbaitz kalonjeak. "Kattalinen Gogoetak" liburu edukatiboan. Konturatzen gara, "Tupintegiko Roxali"tik "Kattalinen Gogoetak"tarat egun parrasta bat pasatu dela, "notableek" egoeraren aztertzeko eta galdera berrien ihardespenak aurkitzeko heina hain zuzen ere. Sugeak bere buztana ausiki aurretik, hona 1964eko Tupintegiko Roxaliren alabaren portamodua aurkezten digula. HERRIAN. Landart gazteak:

gure herriko neskatxak  
dira biziki politak  
xoratzen dute herria  
eta mutiko gaztia!

behar zinuzten ikusi  
gure pesta egunetan  
zonbeit ziren harrigarri  
akituak, beti dantzan!

arropa arinez bezi  
xapela buru gainean  
matelak, ezpainak gorri  
gogo-bihotzak airean!

irriñoa ezpainetan  
begiak dirdir daldaran  
zangoak arin farandan  
bada loria pestetan!

gure herriko neskatxak  
izan diton plantakoak  
ta behar bezalakoak  
lagun ditzala Jainkoak!

Kopla xotil hauei beren bukaera moralista kentzen badiegu, iduritzen zaigu, Parisetik hilabete batentzat bakantzaz jin Tupintegiko Roxali baten deskribapenak baizik ez direla, kantu-egilea aldi honetan, neskatxer so, zoraturik dagoela. Ematen du, euskal jendarteak, 1960eko hamarkadan oreka-maila berri bat arra-ardietsi duela, eta exodo ruralaren kezka urrun dagoela, iraganeko sarraskien oroitzapenen ildoan kasik ahantzirik. Exodo ruralak, 1962ko P.A. Caren ondorioz, baserriak are hustenago ditu, baina sor-jendarteak, Parisetik letorkiokeen "bitxitasun eta harrokeria" guzietan usaturik dela nabaritzen dugu.

Tupintegiko Roxali kantatzen dugularik, arbasoen lurrian belaunalditik belaunaldirat itzatuak izateko urgulua erakustea baino, milatan hobe genuke, kantuak duen Iparraldeko historiaren zatirik minberenaren oihartzuna umilki entzutea. Trufaren gibelean, adituko ditugu, geltokietan eta, Pariseko hegatz-peetako sehi-gela hotzetan ixuri negarren soñu malenkoniatsuak, aldi berean, iraun beharrez hantzen zirenak. Odolik ez da izan historia honetan, –ba dirudi Historia Handian sartzeko Odol kotsia premiazkoa dela!– ahalgearen zama agian bai. Kulpabilitate zerbait. Emazteak, gizonen kontrala, gogo-onez partitzen baitziren herritik kanpo. Harrigarria zaiguna, beste aldetik, horrelako saldo-mugimenduak bertsorik edo idazki ezagunik ez uztea. Alabaina, harrigarria baldin bada, ulergarria ere bada, orduko emazteetan alfabetizatu guti baitzen. Batzuk han egon dira, bizitzeak "lur haietan errotuz, gehienak itzuli dira, eta sor-herrietan ezkondu, mentalitateak kanbiatzen amini bat saiatuz. Hirian ibili emazteek, luzaz fama txarra ukan dute: despendiosak, euskararen galarazleak familietan etab. Baina, fama salbu, Mayi Eichechurik lerrotu hiru egin-beharrak emazteen esku daudela erraitekoa dugu: fedearena (doi bat ahuldurik), ohiturena, eta partikulazki euskararena (etxean, erakaskuntzan). Eguneroko lanak. Beti. Horregatik ez du emazteen exodo ruralak pisurik.

Ahalezko da, idazten ari garen momentuan, Iparraldeak exodo bolada berri bat ezagutzen ari dela, eta geltokiak, estudiantzerat eta lan-bila doazen gaztez (batez ere neskatxez) betetzen direla. Tupintegiko Roxaliren garaian, fenomenoak –besterik ezin egin!– onargarria baldin bazen, posible da gaurkoan, lekuan berean lan-hautuak biderkatu direnean, partitzen direnen bihotzetako ximikoa are garrantzagoa izatea.

# ZINEA ETA EMAKUMEA

## Begoña del Teso

Emakumea eta zinea. Zelakoa da hartu-eman? Amodiozkoa agian? Esklabutasunarena akaso? Nor noren menpe? Nor noren pare? Lagun ote? Adiskideak bide? Lehiakideak hor nonbait? Nor maitale, nor maitatua? Erraza, errazegia seguru, negarrez hastea. Edonora begira ere triste izateko adina motibo aurkituko genuke erraz asko. 1939 eta 1979 artean, Estatu Batuetan 7.332 filme egin ziren. Haietatik, 14 bakarrik ziren emakume batek sinatuak.

Meryl Streep andereño famatua, aktorezentzako lan-aukera garrantzitsuenen alde borroka egin duena, kexati agertu zen "Pretty woman" filme polit eta goxoaren arrakastaren aurrean: "Ene bada, ondo ulertu izan badut, Hollywooden neska batek izan dezakeen ametsik handiena puta garestia izatea dela dio filmeak" zioen garrasika "Memorias de Africa"ko izarrak.

Oraindik, okerrago, Julia Robertsek bi milioi dolar besterik ez zuen lortu pelikula honetan. Bere esanetara, bere menpe, bere besoetan arras maitemindurik zegoen Richard Gere jaun guapoak lau eskuratu zuen. Gehiago nahi? Zortzi miloi dolar jaso zuen Michael Keaton tontolapikoak "Batman vuelve" zela medio, baina filmeari merezia zuen doinua ematen zion Michelle Pfeiffer señoritie arriskutsuak laurekin konformatu behar izan zuen. Eta diskriminazio krudrel horrek sutan jarri zuen duela ia 15 urte emakumeoi akziozko zinearen atea ireki zizkigun bulartsu hori, Sigourney Weaver, hain zuzen ere. Erabaki sendoa hartu zuen. Irmo eta tinko egingo luke lehia gizonezkoek kobratzen duten adina jasotzeko...

Gehiago nahi? Hona hemen: Joan den urteko maiatzean Estatu Batuetan zinez –bai artez, bai industriaz– dena dakien aldizkari batek, "Premiere"

izenekoak, Hollywooden botere gehien zuten ehun lagun zenbatu eta izendatu zituen. Sei besterik ez ziren emakumeak: Barbara Streisand, Julia Roberts, Jodie Foster, Sherry Lansing ekoizlea, Penny Marshall zuzendaria eta Rosalie Swedlin aktoreen ordezkaria.

Bada ba kexatzeko adina baina hori ez da, preziso, gure estiloa. Aieneka aritzea alferrik da eta guk aurrera begiratu nahiago dugu. Aurrera edo lan fin, trebe, azkarra egiten ari diren emakumei so geratzea dugu asmoa. Garaiak, Bob Dylanek zioen legez, aldatzen ari dira eta Hollywood da gure itxuraldaketaren ispilu eta esklabu. Bai takilan bai pantailan badugu indarra. Gure atrebentziak moldez, trazaz, aldatzen behartu du Hollywood. Hona hemen, pausoz pauso, aldaketaren kronika. Hona hemen aitzindari izan ziren emakume askori eginiko omenaldia.

## ZER DUTE AMANKOMUNEAN?

Alice Guyek, Ida Lupinok, Elizabeth Taylorrek, Dorothy Aznerrek, Barbara Streisandek, Sigourney Weaverrek, Katharine Hepburnek, Linda Hamiltonek, Ruth Ann Baldwinek, Helen Gibbonsek, Sherry Lansingek, Dawun Steelek, Marlene Dietrichek?

Ba, hala edo nola, zinearen mundu zabalean izan zirela/direla aitzindari. Bota dezagun gainbegiratua: Alice Guy izan zen pantailak ezagutu zuen lehen emakumezko zuzendaria. Izatez, Leon Gaumont ekoizle frantsesaren idazkaria zen baina 1900. urtean (pentsa ezazue zinea 1895ean sortu zela) jefeari esan zion Gaumont etxeko filme guztiak berdintsuak zirela, ezer berririk ez zutela kontatzen. Monsieur Leonek kamara jarri zion eskuan eta errodatzeko agindua eman. Magiaz, trukoz, tramankuiluz beteriko "La fee auz choux" izan zen emaitza. Zinea mutua zeneko garaian 36 emakume ari omen ziren lanean baina bat bakararra aurkitu dugu zeluloidea hizketan hasi zenean. Dorothy Azner zuen izena eta 1928an "Manhattan Cocktail" izeneko filme hitzuna burutu zuen. 30.eko hamarkadan Dorothy Hollywoodeko hamar zuzendaririk inportanteenetakoa bat zen zerrenda guztietan.

Ida Lupino bezalakorik bilatzea... zaila Aktorea zen. Aktore adoretua baina 1950ean zuzendari bihurtu zen. Odolbero, hezigaitza, ekoizleak menperatzen zituen eta nahi zuena atrebentzia osoz lortu ere.

Elizabeth Taylorren kasua arras desberdina da, jakina, baina gure errespetua merezi du begi eder eta bihotz handia duen emakume balent honek.

Berak, 1960an, emakumezko izar batek ordurarte jasoa ez zuen soldata eskuratu zuen "Cleopatra"n parte hartzeagatik. Milioi bat dolar. Muga gauditua

zen. 33 urte pasata 10 milioitan dago mugarri berria. Gizonezkoek kobratu egiten dute. Emakumeak ez baina horretan dabil borrokan. Sharon Stonek, kasu, 7 miloi t'erdi eskatu eta lortu egin ditu "Instinto basico"ren bigarren zatian agertzeko...

Kamararen atzean dauden/zeuden neskengana bueltatuko gara. Ruth Ann Baldwinnek errodatu zituen Oesteko filmeak "49 17" zuen izenburu eta mutua zen, 1917 urtekoa. Bera izan zen lehena Mendebaldean zeluloidean sartzen.

Bide batez, bihoakio gure agurra beldurrezko filmeetan, egun, aise eta suertez dabilen neskatxa bati: Kathryn Bigelow da eta bere "Los viajeros de la noche" k banpiroen mundua iraulikatu zuen. Beste bati diosala: Mary Lambert, hots; "Cementerio de animales"-ekin dardaraz jarri zuen takila, bene-benetan.

Oso jende gutxik Helen Gibbonsen izena sikiera ahoskatzen daki baina bihotsua, ausarta zen neskatxa. Bera Hollywoodera iritsi arte, gizonezkoek egiten zituzten, mozorroturik, aktoserek egin beharreko eszena arriskutsuak. Helenek ederki zekien zaldiz, motoz eta kotxez ibiltzen eta 1914ean "The hazards of Helen" direlako zine-ataletan hasi zen lanean eta denak aho zabalik uzten ere. Geroxeago, Estatu Batuetan berdintasunerako legea indarrean jarri zenean, gizonezkoek emakumezkoen lan arriskutsuak burutzeari debekua jarri zitzaion...

Barbara Streisand... zelako saltsera. Guinness liburuan ere agertzen da harrosko. Zer dela eta? Ba "Yentl" filmean denetatik egin zuelako: gidoia idatzi, dirua jarri, ekoiztu, antzestu, abestien letrak sortu, zuzendu eta... Oskar bat bereganatu ere. Txalo, ño.

Katharine, Katharine Hepburn... Lasai asko, erraz asko esan dezakegu berarekin emakumeontzako hasi zirela gauzak aldatzen Hollywooden. Berak bai pantailan, bai bizitzan gizonaren parekoa zela aldarrikatu zuen sutsu eta, jakina, denek onartu. Izenburu-eskukada bat nahi? "La fiera de mi niña", "La mujer del año", "La costilla de Adan", "Las aventuras de Silvia". Ezin ahaztu hurbilean zuen sorgin seduktore hura, Marlene Dietrich, alegia.

Sigourney Weaver hasiera-hasieratik abiatu zen Katharinek urraturiko ildotik. Hamarkadetan zehar, filmeak joan, filmeak etorri, akziozko kontakizunetan gure sexukideei beti bihurtzen zitzairen orkatila unerik desegokienean, mamua, hiltzailea, King Kong edota dinosaurua hurbilean zeudelarik. Ohiuka hasten zen babesgabe gaisoa eta gizonezko heroiak buelta eman behar eta salbatu. 1979an gauzak zeharo aldatu ziren espazioan. "Alien" du izenburu gure kemenaren berri eman zuen filmeak. Bertan, monstruo batek hartua den espaziountzian gizonak banan-banan gertatuko dira hilik. Zeluloidearen gailurrean, Sigourney Weaver geratuko da bakardade ikaragarrian, mamua lagun/arerio bakarra... Hamarkadetan zehar, hiru aldiz egingo die aurre Alieni berari eta bere kumeei. Duela gutxi ikusi



dugu basa harreman horren amaiera. Gizonezkoek inguraturik, gartzela-eliza den planeta urruneko batean, berak, inolako armarik gabe jarriko da mamu itzalaren aurrean. Eta orduan monstreak zenbateraino maite duen ikasiko dugu, baina denontzat beranduegi izango da Sigourney arras nekatua baita eta betirako atsedena nahi baitu...

Sigourney Weaver, hamarkadetan zehar harrotasuna itzuli digu emakumeoi. Hamarkadetan barrena, "Alien"en kontra burutu du guda parezina.

"Alien"ek eta Sigourneyek beste emakume askori ireki zizkioten abenturazko zinearen ateak baina benetan benetazko erreleboa hartu zuena Linda Hamilton da. Koka dezagun geure burua bere aroan, bere istorioan bere parerik gabeko aginduan. Datozen garaietan, makinek, errobotek menperatuko dute Lurra, gizakiak esklabutzat harturik. Gizon bakarrak gidatuko ditu berarien kontrako armadak. Eta gizon hori emakumearengandik sortua izango da. Eta emakume hori jada haurdun da... oraindik ere existitzen ez diren mende horietatik, arerioek bere bizitza moztuko duen "Terminator" bidaliko dute honantza... Eta bi aldiz, "Terminator" eta "Terminator 2"an, Linda Hamilton matxinatuko da patuaren kontra eta zinea bere ausardiaren aurrean makurtu. Linda Sigourney baino askoz oldartsuagoa da. Gorputza prestatu du amaierarik gabeko guda horretarako. Gihartsua da. Eskubide osoz dago gure komentario honetan baina bereziki kontu zehatz bategatik ekarriko dugu hona. Orain arte zinean emakumezko inork ez du korrika egin berak egiten duen trebetasun eta erraztasunez. Jada, emakumeari, Lindari esker, ez zaio orkatila bihurrituko korrika doanean.

Joan gaitezen zinearen ilunabar aldera, Hollywoodeko bulego txit dotore horietara. Bi aitzindari aurkituko ditugu bertan. Dawn Steel eta Sherry Lansing. Biek bideratu izan dituzte bi ekoiztetxe erraldoi. 80.eko hamarkadan Columbiaren buru izan zen Dawn. Oraintxe bertan, Paramounten lehendakari izendatu dute Sherry. Egun, inork, ez emakumezkorik, ez gizonezkorik, ez du Sherryk biltzen duen boterea. Eta ez da berria lan honetan. Duela hamar urte, Foc etxearen zuzendaria izan zen. Bultzatu zuen pelikularik? Ba, esateko... "Carros de fuego".

Lerro hauekin bukatzeko edo, aipa dezagun jainkosa bat: Marlene Dietrich. Berak ere muga franko ezabatu zuen guretzat. Bat bakarra jarriko dugu hemen. 1930 urtean, "Marruecos" filmean prakak zeramatzan. Lehenengo aldiz zinean... Amerikako emakume pila joan ziren jostunengana galtza eske...

Porzierto, denok dakigu Al Johnson izan zela zinean hitz egin zuen lehendabiziko gizona "El cantor de jazz"en baina nor ordea emakumea? amarena egiten zuen Eugenie Besserer. 13 hitz besterik ez zituen esan baina bera zen denetan lehena.

## EMAKUMEAREN IRUDIA ZINE-AROETAN ZEHAR

Irudi mugikorraren hastapenetan emakumeak gizarteak emandako paperak bete behar izan zituen, jakina, emazte eta amarena baina gutxika, gutxika beste nortasun-motak eskuratu zituen. Ez zen berria, ez horixe, tentolariarena baina ukitu maltzurra eman zion bere zeluloidezko isladari. Pentsa ezazue, arren, banpiroak guk ezagutzen ditugun bezalakoak izan baino lehen, "vamp" hitzak beste esanahi arriskutsua zuela: gizonezkoak tentatu, bereganatu eta bizitza, gizontasuna, kuraia zurgatzen zizkion emakumea azaltzeko erabiltzen zen "vamp" hori. Marlene eta Greta pantailan agertu baino lehen izan ziren ospe handiko beste tentolari. Bihoakio gure omenaldia Theda Barari. Publizitateak "munduko emakumerik zitalena" deitzen zion. Bere izenak, hizkiak lekuz aldatuz. "heriotza arabiarra" esan nahi zuen ingelesez. Cincinattiko neska apala zen Theodosia Goodman hura "Esfingearen itzalean" jaioa zela zioten gezurrezko biografiek. Ipar Europatik zetorren "vampiresa"ren mitoa. Kultur guztietan daukagu gizonezkoak engainatzen trebe den itxaslamiaren berri. Zineak areagotu izan zuen misterioa. Theda Bara eta beste asko, Lya de Putty, Pola Negri.. Musu eman eta galbidean sartuko litzake gizon gaixoa...

Izan ziren ere jainkosa ukiezinak, "diva" eta "prima donna"k. Aipa dezagun Donostiako zinemaldira etorria den Francesca Vertini signorina. Denek errespetatua izan zen. Aspaldiko melodrametan parte hartzen bazuen ere, bere antzesteko erak bazuen indar izugarria eta modernoa zen oso.

1915 urtean, Louis Feuilladeren "Les vampires" filmean Musidorak jazten zuen jantzi hau eskandalu-bide izan zen Europa osoan

Garaiak aldatuz joan ziren pixkanaka-pixkanaka eta emakumezkook bide berriak urratuz gizartean. Zinez, negozio ehundokoa bilakaturik adi zegoen, erne.

Zegoeneko, neskak lanean zebiltzan eta bazuten diru pusketa bat aretoetan gastatzeko. Baina, klaro, berariak bezalako emakume lehiatsuak nahi zuten ikusi. Mae Murrayek (1899an jaioa) ematen digu aldaketa horren testigantza. Argia zen. Bihurria, alaia eta 1925ean, "La viuda alegre" ozpintua izan zen. Etorriko zen beranduxeago Louise Brooks eta bere "Lulu", G.W. Pabstek sinatua, "Giza itxura duen ametsa" deitu zioten. "garçonne" estiloa jarri zuen modan. Mutil ederraren antza zuen neskatxa paregabe eta hauskorra. XX. mendearen hasieran berea izan zen Europako emakumeen inspirazioa. Itxuraz eta moldez...

Ederra, akziozkoa, bizia. Amerikan, garai berean, "flapper" deituriko irudia zen denen desioa. Modernoa, aldatzen ari ziren garai horiei irmo atxikitua, erretzen ausartzen zena, gizona aldean ez bazuen ere, dantza egiten zuen ero moduan. Lanean zalapartaria. Judy Hollyday –"La costilla de Adan"en ikusi genuen Kate Hepburn eta Spencer Tracyren parean– aukera dezakegu "flapper" horien ordezkari.

## **AMODIOA BETI TARTEAN**

Katek lortu zuenari ez diogu ez muzin ez uko egingo. Berak ezarri zituen "sexuen arteko gerra"ren zutabeak eta nondik norakoak, baina sutsu eta fin erreparatzen badiezue bere filmeen kontu batek harrituko zaituzte, molestaturiko ere.

Borrokan, gerratean, erriertan, norgehiagokoan irmo eta tinko iraun arren, Spencer edo Gary Grant izugarri maite zuenez, bukaeran eskua luzatzen zien bakea sinatuz. Urteek, urte mordoak pasa izan behar amodioagatik zeluloidezko emakumeak ez makurtu arte. Sigorneyek sekulan ez du nobiorik izan. Egia osoa esan behar bada "Alien 3"an amodioa egiten du mediku batekin baina segituan, jeloskor agian, alienak akatuko du amorantea. Gaur egungo filmerik komertzialenetan ere, segun eta zein kasutan maitasunak ez du lekurik. "Algunos hombres buenos" horretan, Bob Reinerrek zuzendutakoan, Demi Moore Tom Cruiseren bekoz beko jarriko da. Biak dira armadako abokatuak eta prestatu behar duten epaiketaren inguruan dituzte aburu kontrajarriak. Gaizki heziturik gaudenez, denok, nahi ala ez nahi, musua noiz etorriko zain geunden baina gidoigilea azkarra eta ausarta izan zen. Demi eta Cruiseren hartu-emanak maila profesionala ez zuen inoiz gainditu. Txalo.

## GAUR ETA ORAIN, IDAZLE-NAHASLE

Zinean betidanik izan dira gidoigile emakumezkoak. Omendu egin behar dugu Ruth Gordon andereñoa lerro hauetan. Berak, Garson Kanin senar, lagun eta kide zuela, Katharine Hepburn duen irudia sortu zuen bere izkribuetan. Gaur ere, bada neska gidoigile eskukada dotorea.

Izenak erreparatzea ez zaigu kostako, hona hemen zenbaitzu: Callie Khouri, "Thelma y Louise"ren sortzailea. 34 urte. Oskarra lortu zuen. "Pantailan inoiz ikusita ez nuen istorioa kontatu nahi izan nuen" dio. Bi gidoi berri egin behar ditu eta bat berak zuzendu ere. Gogoan "Cuando Harry encontró a Sally" filmea? Bertako eszenarik dibertigarrienean, neskak, Meg Ryanek, burla egiten dio Billy Crystal. Oh, bai, bai zera, gizonezkoek beti pentsatzen dute ondo egiten dutela amodioa. Seguru emakumeak ez dituela zoriontasunaren plantak egiten. Eta egingo balitu ere, berak antzemango luke, fijo. Oh bai, jakina, Megek "orgasmoa" antzesten du hor bertan, jatetxean. Billy gizarajoak nora begira ere ez daki... Nori okurritu zitzaion gizonaren harrokeriari emandako zaplasteko hori? Ba Nora Ephron andereñoari. Lanean jarduten du etengabe eta, dagoeneko, "This is my life" izenburu duen filmea egin du. Beste bi: Ipuin eder eta beldurrezkoak kontatzen dizkigun Caroline Thompson "Eduardo Manostijeras" marabilaren gidoia berea da. Baita "La familia Addams"ekoa ere.

Hollywooden, gaur, den-denek filme bati buruz egiten dute berba "Indecent proposal" du izena. Diotenez, Instinto básico" baino askoz ausarta eta adierazgarriagoa izango da. Nor idazlea? Laster zuzendari gisa arituko den Amy Jonez neska gaztea.

Derrigorrezkoa denez, lau neska hauek –beste askorekin batera– Hollywoodek munduko pantaila guztietan banatuko duen emakumearen irudia aldatzen ari dira zeharo. Baina non, zertan dabil egungo zine-emakumea? Nola darabiltza gizonezkoak, zer pentsatzen dute berari? Nola tratatu? Hona hemen zertzelada batzuk.

## ARMAK, SEXUA, INDARKERIA

Zinea betidanik izan da gizartean gertatzen denaren islada. Batzuetan ispilu benetazkoa. Bestetan, agian, gezurtero samarra baina beti izan du egiazko munduaren disdira. Beraz, gaurko pantailatan egungo emakumea agertuko zaigu hala edo nola. Eta, jakina, Estatu Batuetako emakumeak gizonezkoekin borroka pare-pareko guda balitz bezala ulertu du. Ohean zein bulegoetan. Kanean zein enpresa handietako geletan. "Gizonak badu, guk ere bai" da mezua. Eta zinea, lekuko.

Emakumeak askotan aurrea hartzen dio gizonari sexu-kontuan eta gizona aho bete hortz geratzen da. Zeluloidezko frogarik nahi? Ba "Melodias de seducción". Erasoan Ellen Barkin señoritie, biktima aluzinatua, berriz, Al Pacino. Bai, bera, justu. "El Padrino" hirugarrena. Eta fuertea da eszena. Eta pentsa ezazue zine komertzialeaz ari garela eta ez esperimentalaz. Zineak badaki zertan dabilen aretoetara hurbiltzen den emakumea.

Baina noizbehinka, noizean behin, polita da borrokatzeari uztea eta ametsetan hastea. Baliteke kasualitatea ez izatea "Pretty woman" emakume bizkor eta gertu batek ekoiztua izatea. Laura Ziskin du izena eta berak atera zuen aurrera egitasmoa. Gogoan? Kanean, Julia. Izkinean, Julia Roberts. Gizonak ditu lanbide, aipaturiko "Lulu" hark zituen legez. Gizon guapoa, itxurosoa, diruduna, laburbilduz, Richard Gere, hurbilduko zaio. Konpainia nahi omendu. Konpainia bakar-bakarrik... Segituan izango dira maiteminez. Segituan ikusiko ditugu bi, lau, bost eszena ezetsu eta bihurri. Bai printze urdina, bai, baina ez akatsik gabea. alturak ematen dio beldurra, esateko, baina axola gutxiko kontua, Julia, Richard, ipuina... Halere errepara iezaiozue kontalariak esandakoari: "Hollywooden gaude eta hemen dena gerta liteke..."

Itzul gaitzen guda-zelaira. Esan dugun bezalaxe, emakumeak gizonezkoak ziren eremu guztietan sartu eta hauek berezkoak izan dituzten "arma" guztiak erabili nahi ditu. Azkenean, gizasemeak egoera onartu behar baina trukean jada, salbuespenak salbu, ez du begirunez tratatuko ez eta gehiago babestuko ere. Bestalde, egun, zinean emakumearen kontra erabili ohi den indarkeria inoiz baino zakarragoa da eta askotan ez du sexuarekin zer ikusirik.

Har dezagun itxuraz erabat arrunta den filme bat: "Detective con medias de seda". Azalean, Hollywoodek sor dezakeen produkto homologatua. Piskatxo miatuz gero halakoxea ez dela konturako gara. Literatura kriminalean arras ospetsua den Sara Paretskyren pertsonaia hartu du protagonistatzat. 40 urteko emakumea. Ezkertiarra, abokatua, feminista eta... ikerlari pribatua den Vic Warshawski. Bestalde, betidanik gorputzean sua (gogora dezagun filme bero eta beltz hura, "Fuego en el cuerpo" ) izan duen aktoreak hartzen du parte bertan. Izena? Kathleen Turner. Sutsu eta aisaldirik gabe lehiatu zen Sararen liburuek duten tonu gazi, ankerrak zeluloidean iraun zezan. Zenbaitzutan galdu egin zuen enbidoa. Besteetan, berriz, ohorez gaingitu. Gatozen harira. Pelikula horretan Vic Warshawskik arerio dituen gizonetzoei ez zaie burutik pasatzen sexualki erasotzea.

Pareko daukate. Haietako asko baino indartsuagoa, trebeagoa aikidon edota arte martzialetan; beraz, eraso zaplastekoak, ostikoak eta indarkeria garbia izango da. Berak bai, ordea, Vickek duen mingain luzea ausart eta maltzur erabiliko du etsaien organo eta bizitza sexuala adierazteko... Eta, berriro errepikatu nahi nuke inork ahaz ez zezan... zine komertzialean gaude.

Baina emakumea ez da beti orain dauzkagun pelikuletan sexurik gabeko pare. Har dezagun, konparaketa egiteko, "Acusados"en kasua. Jonathan Kaplaren lan bortitz honetan ikusten dena ia inoiz ez da pantailaratu. Bertan, Jodie Foster bortxatuko dute taberna bateko makina baten gainean. Eta ez preziso gizon bakarrak, hiru edo lauk baizik. Beste guztiak, lekuko ixilak. Inguruan dabilzan emakumeengandik ez du laguntza edota elkartasunik jasoko. Izan ere, berarien gizonak kendu zizkien, beraz, "ondo merezitua" du...

Eszena ikaragarria izango da, baina askoz gogorragoa egingo zaigu gerokoa. Polizien aurreko itaunketa, ospitalean jasandako tratu krudela. Salaketa zorrotza egiten du filmeak, gizonetzko batek idatzia, izan ere. Gizonetzko batek zuzendua, por zierto. Eta hona hemen beste galderarik, ba al da emakumezkoek eginiko filmeak antzematerik?

## **EMAKUMEAK AKZIOAN, GIZONAK BERE BURUARI TRAZIOAN**

Hasiera batean bai. Joandako garai ez oso urrunetan, printzipioz bazirudien zinegile emei geratzen zitzaien esparrutxo bakarra xuabe, sentimenduz beterikoa zela. Hori edota, Europa aldean, adierazpen feminista sutsuak.

Belaunaldi berriko zinegileek pikutara bota dituzte bota beharreko azken aurreko mugarri horiek. Hemen eta orain, emakumeak dabilza seguru eta aise, beldurrezko zinean kasu. Aipa dezagun Mary Lambert andereñoa eta bere "Cementerio de animales". Hain handia izan zen lehen parteak lortutako arrakasta

ezen beste bati ekin baitzion "hit parade" guztietan ederki asko kokatu arte. Ilunabar aldeko izakia dugu ere lehen aipatu izan den Kathryn Bigelow. Jakin badakigu berea dela "Los viajeros de la noche" ipuin beltz eta odoltsua, baina beste bi filmek eman zioten sona eta ez batean ez bestean ez da nabari emetasuna (hobe esanda, eredu klasiko-klasikoetan agertzen den emetasun kaskar hori), "Acero azul"en emakume polizia baten erretratua egiten du Jamie Lee Curtis aktorearen laguntzaz. Hain zuzen ere hiltzaile psikopata berarekin maitemintzen da hain handia baita pistola erabiltzeari darion erotismoa. Arriskua, sexua, armaren erakartasuna izugarri ondo darabiltza Kathrynnek eta akziozko eszenetan maisu agertzen da.

Beste filmeak surf eta misterioa nahasten ditu trebetasun osoz: "Le llaman Bodhi" du izenburu eta aretoak bete izan zituen lana da. Orain Juana da Arcoren istorioa da errodatzekoa Kathryn. Nor antzesle eta Winona Ryder.

Ganberra halakoa dugu Penelope Hyers. Musika "heavy"ren inguruan egin zuen aspaldian dokumentu ia "underground" bat. Orain, takilaren gailurrean da Estatu Batuetan "¡Qué desparrame!" filme "makarra", erabat makarrari esker. Lelokeria hutsa bada ere bertan telebistari egiten zaion kritika eta zineari luzatutako enbido eta keinuak mundialak dira benetan.

Eta bien bitartean, gizonezkoak zer? Ba, gaisoak jira eta biraka, bidean galduta eta bidea, neskeen bultzada ikusita, galduta ere. Badaude, jakina, jende fina haien artean. Pentsa ezazue Ridley Scottengan. Bera gabe "Thelma y Louise" ez litzateke existituko. Gogora dezagun emakumezko batek egin behar zuen salaketa azalean, "Acusados"en jarri izan zuen Jonathan Kaplan. Betidanik izan dira zinean emakumeak mirestu eta ulertu izan dituzten jaunak. Nork lagundu zion Katharine Hepburni bere nortasuna finkatzen George Cukorrek baino? Imajinatzen duzue Marlene Dietrich Joseph von Stenberg gabe? Seguru, egun ez genukeela "El angel azul"en berri zehatza. Nork aurkeztu zigun "Eva al desnudo" eta emakumearen erradiografia ikaragarria pantailaratu? Joseph Mankiewiczek. Hurbilagorik nahi? Carmen Maurak, María Barrancok ia dena zor diote Almodovarri. Don Pedrok izugarri ondo ezagutzen du arima emearen sekreturik sakonena.

Eta ez pentsa, aipatutako miresle eta zerbitzari horietako askok prest daude gugatik berarien sexukidei iruzur egiteko. Adibiderik? Ba behin eta berriro aipaturiko "Thelma y Louise". Hor agertzen diren gizasemeek kostata egiten dute dir-dir gure neskeekin konparatzen baditugu.

Seguru zuetako askorengan duda edota kezka samin bat ari dela sortzen. Pistoladun emakumerik? gizontasunari orain arte egoki izan zaion paper bortitza hartzen duen neskarik? Bai eta ez, bai baina ez, ez baina bai. Sigourney Weaverrek

"Alien"en, Linda Hamiltonek "Terminator"en, Kathleen Turner-ek "Detective con medias de seda"n gizonari dagokion rola betetzen dute akatsik gabe baina emetasuna erantsi egiten diote. Parekoak bai baina besteek ezkutua duten alde femeninoa martxan jarria, emezkoa ederki erabiliz. Eta, zeluloidezko iraultza horren bitartez, erdi ahaztua genuen armarik garrantzitsuenetakoa berreskuratu dugu. Zein ba?

## SEXUA

Iraganean, fotogrametako emakumezkoek lotsarik gabe erabiltzen zuten armatzat sexua. Sexua eta sexuaren ingurumiria guztiak. Eta ez bakarrik "vampiresa"k edota Greta Garbok antzesten zituen bekatari-tentariak. Zine beltzak, zine kriminalak eman zion emakumeari sexuaz jokatzeko parada, proportzioa, tenorea: Gilda, Lana Turner, Gene Tierney "Laura"n, Barbara Stanwyck "Perdición"en, Gloria Graham "Los sobornados"en eta Laura Bacall hainbat eta hainbat filmetan. Denak izan ziren trebe eskura zuten armarik gozoena eta arriskutsua ere erabiltzen.

Urteak pasa ahala bazirudien arma hori herdoildu egin zela. Adimena, bizkortasuna, geure-geureko kemenaz baliatzeko esan ziguten zenbat eta zenbat ahizpek. Azkarrak ginen bai, baina jada Ava Gardnerri deitu zioten legez "munduko animaliarik ederrena" deitua izatea birao izugarria zen. Bapatean, erotismorik gabeko hainbat eta hainbat filmetan parte hartu eta gero (pentsa ezazue "El silencio de los corderos"en Jodie Foster eta Anibal el Canibalen artean ezartzen den harremana zerebrala da oso. Pareak dira baina hiltzaile finak duen erakartasun hilgarriaz aprobeztatzeko aukera eta eskubidea baduen bitartean, Jodiek sekulan ez du emakume izate hori bitartekotzat hartuko) Sharon Stonek bueltatu digu sexuari onura ateratzeko orguilu, aukera. "Instinto básico" fama oneko/fama txarreko horretan, bere pertsonaiak, Catherine Fremellek eskura, bere esanetara dituen bitarte guztiak ederki dakizki eta arretaz, maltzurkeriaz, pausu bakoitza ondo baino hobetu neurtuz, aterako die banan-banan onura. Komisaldegiko eszena paregabea bera da katua eta polizia tentelak arratoiak. Tangoak dioen bezala, jolas egiten du katueme traidoreak arratoi zorigabekoekin. Eta ez du pistolarik. Eta ez du labanik. Eta ez dabil mehatxuka... Gorputza dauka arma eta jakinduriaz darabil. Gizonezkoen ahulkeriak ezagutzen ditu ederto eta haietaz baliatzeko sexua eta adimena uztartzen ditu irrifartsu eta azeri.

Nere ustez –eta badakit kontrako iritzi ugari badirela– Sharon-Catherine orain miresten ditugun emakume gogor eta aske horietako bat da. Thelma eta Louiseren parekoa, "Tomates verdes fritos" huskeria eder eta zoragarri hartan agertzen zirenen laguna. "Instinto básico"ren emakumeak gizonezkoarekin egiten du maltzur jolas. Eta hori kontatzeko, hori adierazteko duen askatasuna,



Sharon Stone, Gilda,  
Ava Gardner, Laura,  
Barbara Sthawyck eta  
zine beltzaren hainbat  
eta hainbat emakumeren  
oinordeko duin eta  
leiala.

atrebentzia da, hain zuzen ere, zinearen historian zehar Ava Gardner edota Barbara Stanwyck bezalako jainkosa "kriminalek" lortu nahi izan zutena eta gizarteak, ohiturak, Moralak hala aginduta lortu ez zutena.

Hemen itxi beharko genuke komentario hau. Hemen, oraintxe bertan. Thelma eta Louisek eskutan dute pistola eta kamiolaria belauniko dago haien aurrean, Sharonek jolas egiten du gizontxoekin eta Barbara Streisandek "El príncipe de las mareas"en 50 urteko emakume batek bizi dezakeen amodiozko istorioa kontatzen digu. Hemen etorriko litzaioke amaiera artikulua honi, baina egin dezagun zenbait omenaldi eta harrapa dezagun gure ondotik pasa berriak diren zenbait filme.

## **ESCARLATA O'HARA**

Jakina, Ashley Wilkes konkistatu nahi izan zuen ia "Lo que el viento se llevo" filme osoan zehar. Jakina, Ret Buttlerrekin maitekeriatan ibili zen baina sinistu ala ez, emakume sendoa da, borrokarako prest. Pentsa ezazue Jainkoari egiten dio zinean edo botatzen dion erronkan. "Sekulan ere ez naiz gose izango". Bere antzekoak dira hainbat eta hainbat Oesteko pelikuletan agertzen diren emakume bihoztunak. Ez ditugu hemen ahaztuko "Jonhny Guitar" sekulako

horretan dauden Joan Crawford eta Mercedes MacCambridge. Bien arteko norgehiagoka hezibakoak gizonezkoak izutuko ditu zeharo. A, azken zertzelada "Lo que el viento se llevo"ri buruzkoa. Garai haietan Hegoaldeko señoiritiek ez zuten erakusten sexuaren plazerra baina elipsi eder baten bitartez, Retten besoetan eskaileran igo eta gero zer gertatu zen ederki asko adierazten digu Scarletttek goizaldeko irriño horrekin.

Scarlett O'Hara kuraia osoa bizitzaren aurrean, katueme ezitsu (baina hatzapar zorrotzat zituen) amodio kontuetan.

## MARILYN

Negar egingo dugu berarekin oroitzean? Hobe ez. Gogora dezagun ordea hainbestetan zuen bizitzeko irrika, grina. Pentsa dezagun bere sexualitate basa eta aldi berean gozo eta errugabea. Gogora dezagun zoriontsu, komedian. Gizonezkoak zituen miresle eta emakumeok sekulan ez ginen bere erruz jeloskor izan. Jada ez dugu bene-benetan ulertzeko tenorerik, baina berak emakumeari jainkosa izateko eta sentitzeko eskubidea, zorabioa eman zion.

## **GILDA-RITA**

Gure artean "Gilda" estrenatu zenean, 1946an jendeak, zentsuraren mesfidantzaz, munduko beste pantailetan, eskularruaren eszenan Rita biluzik geratzen zela uste zuen. Eta oker zeuden ikusleak baina arrazoi-puntu bat bazuten. Egia esan.. eskularru beltz eta luze hori apurka, dotoreziaz, sentsualki kentzen duenean, Rita biluzten ari dira hor dauden denak eta gero, ero moduan hurbiltzen zaizkionean "bortxaketa" da ikusten duguna. Azken ohartxoak. Aurreraxeago, Rita Orson Wellesekin ezkondu zenean, zine-aztia "Gilda"z zen jeloskor. Elkarrekin egin zuten "La dama de Shanghai"n mitoaren islada uxatzeko edo horiz tindatu zion ile gorria eta moztu, moztu, moztu...

## **GAUR EGUNGO ZENBAIT NESKA**

Hurrengo belaunaldia zinean dago jada. Eta hurrengo belaunaldiko neskeekin, broma gutxi. Walt Disney etxeak ere ederki daki hori eta "La bella y la bestia" delizios horretan, aske, borrokari, bizkor eta tematsu pintatu dute Ederra. Konpara ezazue Edurne Zurirekin edota Errauskinarekin eta dasta ezazue diferentzia.

"Ederra eta Piztia". Walt Disneyen oinordekoek ederki ulertu dute garaiak aldatzen ari direla. Gure "Belle" gustora joango litzake Thelma eta Lousiren kotxean.

Aipa dezagun Michele Pfeiffer. Bere "Catwoman"ek pantailatik uxatu zuen Batman bera saguzahar gizonaren itzuleraren berri ematen zuen filmean. Ekar dezagun gogora Juliette Lewis, 20 urte bete berriak. Gazteagoa zelarik "El cabo del miedo"n Robert De Niroekin konpartitu zuen eszena batek sexua, beldurra eta lilurapena batzen zituen era harrigarri batez. Beste bat, Winona Ryder, berak, Coppolaren konplizitatez, Drakula bueltatu digu Banpiroa benetan den moduan, amorante eder, fin eta hilezina.

Aintzinako banpiroak ere menperatzeko gaia da gaurko zeluloidearen egungo emakumea. Hona hemen, amodioa lekuko, Winona Ryder eta Gary Oldman filme eder batean, "Dracula".

Gaur egungo emakumea oraingo zinean. Ez dago atzera egiterik. Klase askotako armak ditugu eskuan. Arriskutsua da egoera. Zeluloidean behintzat, gizona zkoen parekoak garenez, beraiek jainkosez ahaztu baitira baina eutsi gogor kontu bi ahaztu gabe. Zinera goazen bitartean badugu aukera gure zeluloidezko islada eskatzeko. Hollywoodean adi daude, erne, emakumea norantz eta zertan begira. Bestalde ez pentsa, bada, dagoeneko, gizonengandik erantzun gogorra. Hainbat eta hainbat kritikalariren esanetan "Reservoir dogs" "The bad lieutenant" eta "C'est arrivé près de chez nous" filme bortitz beltz, krudel eta ikaragarri onek gizontasunaren beldur, desio eta fantasia guztiak jartzen dituzte pantailan, Thelma, Louise eta beste guztiak, mutil bueltatu dira, zabilzate kontuz... Baina ez dago zertan gehiegi kezkatzerik. Frantzia estrenatzeaz daude emakumeek eginiko sei filme eta lehenengo aldiz 16 urtez "Première" aldizkari frantsesean emakume batek buruturiko pelikula, "Max eta Jeremie", Philip Noiret eta Christopher Lambertekin, Claire Deversek sinatua, agertu da azalean, portadan.

